Pazienteen, herritarren eta profesionalen beharrei eta itzaropenei gero eta gehiago erantzungo dion zerbitzu bat eskaintzeko, Osasun Eskolaren atari berria lantzen hasi da. Egitasmoa Europar Batasunak finantzatu eta Eskoziarekin elkarlanean garatutako jardunbide egokien transferentzia-prozesu bat du sorburu. Ingurune gardenago bat sortu nahi da, bai herritarren bai sistemako profesionalen parte-hartzea indartuz.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak sustatutako Osasun Eskolen Sareko kidea da sortu zenetik bertatik Osasun Eskola. Euskal Autonomia Erkidegoak Batzorde Teknikoaren lehendakaritza betetzen du 2014tik, eta, Kataluniako Generalitateak, lehendakariordetza.

Osasun Eskolako programen komunikazio-planen baitan, «Informazioa aginduz, osasuna aholkatuz» planaren jarraipena egitea dago, baita Paziente Bizia programaren jarduera desberdinak komunikabideen bidez hedatzea ere.

Programetako arduradunekin elkarlanean, hainbat egitasmo daude uneotan abian laster webgunean jasoko diren material berriak egiteko, batzuk tabakoa erretzen uzteari buruzkoak eta besteak presio bidezko ultzeren gainekoak.

Osasun Eskola «Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileentzako laguntza plana» egitasmoko lantaldean ere parte hartzen ari da. Plan hori mendekotasuna duten pertsonak edo mendekotasun arriskuan direnak etxean zaintzen dituzten zaintzaile ez-profesionalei zuzenduta dago.

Osasun Eskolak egin beharreko ekintzen plan operatibo berri bat definitzea. Une honetan, egin beharreko ekintzak jasotzen dituen kudeaketa-plan baten diseinua aztertzen ari da.

Paziente Bizia programaren metodologiari jarraituz, on line prestakuntza-programa bat diseinatzen ari da, pazienteak eta/edo zaintzaileak aktibatzeke. Helburua biztanle gazteagoengana iristea da, baita arrazoi desberdinak tarteko aurrez aurreko tailerretan parte hartzerik ez duten pertsonengana ere.

Donostian, maiatzaren 6an eta 7an, Herritarrentzako Osasun Eskolen Sarearen I. Topaketa Nazionala egin zen. Ikasketa komun eta esanguratsu baterako ingurunea sustatzea izan zuen helburu, herritarren, pazienteen, zaintzaileen eta profesionalen arteko elkarlanaren eta inplikazioaren bidez. 270 pertsona bertaratu ziren, erkidego desberdinetakoak.

Paziente Aktiboa programaren garapena eta hedapena:

- Eskuliburu hauek egin dira:
 - “Nire osasuna zainduz minbiziaren ondoren”. Paziente-talde batekin pilotatuko da 2017ko lehen hiruhilekoan, ondoren zabaltzeko.
 - “Ijito herrian nire osasuna zainduz”. Ijito komunitateko 24 monitore trebatu dira, eta paziente edota zaintzaileekin hiru tailer ere jarri dira abian.
- Paziente nefrologikoak trebatu dira «Nire osasuna aktiboki zainduz» tailerraren bitartez. Eskuliburua ebaluatu eta pazienteen beharretara egokitzeko egin daitezkeen aldaketak aztertu zain.
- 74 ikastaro eman dira. “Nire diabetesa zaintzen” ikastaroa 33 aldiz eman da, eta 428 lagunek hartu dute parte. “Nire osasuna aktiboki zaintzen” ikastaro generikoa 41 aldiz eman da, eta 480 lagunek parte hartu dute parte.
- Programa hasi zenetik gaur egunera, metodologia horren onurak izan dituzten pertsonen kopurua 4.371ekoa da. Programa 289 monitoreren elkarlanarekin gauzatu da (134 paziente eta 155 profesional).

Aurreko urteetan bezala, monitoreen omenezko jardunaldia egin da, programan lagundu izana aitortzeko. Abenduaren 14an izan zen. 130 pertsona bertaratu ziren. Jardunaldiaren zati bat prestakuntzari eskaini zitzaion, eta beste batean monitoreen esperientzia desberdinak azaldu ziren.

Osasun Eskolak honako egitasmoetan parte hartu du:

- Nagusi azoka
- Deustuko Unibertsitatearen Osasun Kudeaketako Masterra
- EHUko Osasun Publikoko Unibertsitate Masterra
- Paziente Kronikoaren Osasun Arretaren VIII. Kongresu Nazionala
- Paziente Aktiboaren III. Konferentzia Nazionala

SISTEMAREN JASANGARRITASUNA BERMATZEA

Datu ekonomikoak

AKTIBOA / ACTIVO	2016	2015
A) AKTIBO EZ-KORRIENTEA / ACTIVO NO CORRIENTE	954.188.089	958.178.092
I. Ibilgetu ukiezina / Inmovilizado intangible	7.539.389	10.057.852
5. Aplikazio informatikoak / Aplicaciones informáticas	7.539.389	10.057.852
II. Ibilgetu materiala / Inmovilizado material	941.303.651	942.763.012
1. Lurrak eta eraikuntzak / Terrenos y construcciones	805.135.948	745.871.721
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala / Instalaciones técnicas y otro inmovilizado material	104.878.063	101.177.746
3. Ekoizpen-bidean den ibilgetua eta aurrerakinak / Inmovilizado en curso y anticipos	31.289.640	95.713.545
IV. Taldeko enpresetan eta elkartuetan epe luzeko inbertsioak / Inversiones empresas del grupo y asociadas a largo plazo	4.352.495	4.352.495
1. Ondare-tresnak / Instrumentos de patrimonio	4.352.495	4.352.495
V. Epe luzeko finantza inbertsioak / Inversiones financieras a largo plazo	992.554	1.004.733
2. Hirugarrenei emandako kredituak / Créditos a terceros	992.157	1.004.336
5. Bestelako aktibo finantzarioak / Otros activos financieros	397	397
B) AKTIBO KORRIENTEA / ACTIVO CORRIENTE	343.383.651	340.897.926
II. Izakinak / Existencias	50.672.306	46.791.242
1. Merkataritzakoak / Comerciales	25.105.008	22.568.191
2. Lehengaiak eta bestelako hornikuntzak / Materias primas y otros aprovisionamientos	25.567.298	24.223.051
III. Merkataritza zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak / Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	185.892.032	198.917.451
1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik / Clientes por ventas y prestaciones de servicios	4.728.001	4.356.356
2. Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak / Clientes, empresas del grupo y asociadas	175.322.490	185.827.096
3. Hainbat zordun / Deudores varios	990.522	1.278.259
4. Pertsonala / Personal	4.532.071	7.102.737
6. Administrazio Publikoekin bestelako hartzeak / Otros créditos con las Administraciones Públicas	318.948	353.003
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak / Inversiones financieras a corto plazo	617.803	391.866
5. Bestelako aktibo finantzarioak / Otros activos financieros	617.803	391.866
VI. Epe laburreko aldizkapenak / Periodificaciones a corto plazo	1.074.368	849.967
VII. Diruzaintza eta bestelako aktibo likido baliokideak / Efectivo y otros activos líquidos equivalentes	105.127.142	93.947.400
1. Diruzaintza / Tesorería	2.607.759	2.147.757
2. Bestelako aktibo likido baliokideak / Otros activos líquidos equivalentes	102.519.383	91.799.643
AKTIBOA GUZTIRA (A+B) / TOTAL ACTIVO (A+B)	1.297.571.740	1.299.076.018

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA / PATRIMONIO NETO Y PASIVO
2016
2015

A) ONDARE GARBIA / PATRIMONIO NETO	990.270.021	93.294.345
A-1) Fondo propioak / Fondos propios	45.424.507	45.134.759
I. Fondo soziala / Fondo social	18.490.166	18.410.798
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak / Resultados de ejercicios anteriores	26.723.961	26.637.572
1. Gaineratikoa / Remanente	50.379.698	46.328.098
2. (Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak) / (Resultados negativos de ejercicios anteriores)	(23.655.737)	(19.690.526)
VII. Ekitaldiko emaitza / Resultado del ejercicio	210.380	86.389
A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak / Subvenciones, donaciones y legados recibidos	944.845.514	948.159.586
B) PASIBO EZ-KORRIENTEA / PASIVO NO CORRIENTE	13.095.436	13.551.498
I. Epe luzeko hornidurak / Provisiones a largo plazo	1.514.740	1.032.952
4. Bestelako hornidurak / Otras provisiones	1.514.740	1.032.952
II. Epe luzeko zorrak / Deudas a largo plazo	11.580.696	12.518.546
5. Bestelako pasibo finantzarioak / Otros pasivos financieros	11.580.696	12.518.546
C) PASIBO KORRIENTEA / PASIVO CORRIENTE	294.206.283	292.230.175
III. Epe laburreko zorrak / Deudas a corto plazo	31.152.831	29.785.965
5. Bestelako pasibo finantzarioak / Otros pasivos financieros	31.152.831	29.785.965
V. Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak / Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar	262.813.159	262.202.223
1. Hornitzaileak / Proveedores	125.828.775	128.423.537
2. Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartuak / Proveedores, empresas del grupo y asociadas	3.618.360	2.880.806
3. Hainbat hartzekodun / Acreedores varios	2.617.906	2.833.717
4. Pertsonala (ordaintzeko dauden ordainsariak) / Personal (remuneraciones pendientes de pago)	3.808.463	7.784.180
6. Administrazio Publikoekin bestelako zorrak / Otras deudas con las Administraciones Públicas	126.939.655	120.279.983
VI. Epe laburreko aldizkapenak / Periodificaciones a corto plazo	240.293	241.987
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)	1.297.571.740	1.299.076.018
TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO (A+B+C)	1.297.571.740	1.299.076.018

GALDU-IRABAZIEN KONTUA / CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS

2016

2015

A) ERAGIKETA JARRAITUAK / OPERACIONES CONTINUADAS

1. Negozio-zifraren zenbateko garbia / Importe neto de la cifra de negocios	2.627.802.422	2.558.609.293
b) Zerbitzu-emateak / Prestaciones de servicios	2.627.802.422	2.558.609.293
4. Hornikuntzak / Aprovisionamientos	(694.795.655)	(668.894.062)
a) Salgaien kontsumoa / Consumo de mercaderías	(280.615.167)	(266.649.596)
b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa / Consumo de materias primas y otras materias consumibles	(287.913.411)	(280.880.317)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak / Trabajos realizados por otras empresas	(126.168.851)	(121.057.404)
d) Salgaien, lehengaien eta bestelako hornikuntzen narriadura / Deterioro de mercaderías, materias primas y otros aprovisionamientos	(98.226)	(306.745)
6. Ustiapeneko bestelako sarrerak / Otros ingresos de explotación	28.905.185	32.995.311
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk / Ingresos accesorios y otros de gestión corriente	27.432.270	30.810.145
b) Ekitaldiko emaitzara egotzitako ustiapeneko diru-laguntzak / Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio	1.472.915	2.185.166
7. Pertsonal-gastuak / Gastos de personal	(1.801.678.010)	(1.761.492.818)
a) Soldatak, lantsariak eta antzekoak / Sueldos, salarios y asimilados	(1.434.603.826)	(1.404.157.005)
b) Karga sozialak / Cargas sociales	(367.074.184)	(357.335.813)
8. Ustiapeneko bestelako gastuak / Otros gastos de explotación	(154.697.950)	(155.390.496)
a) Kanpoko zerbitzuak / Servicios exteriores	(151.097.827)	(153.545.090)
b) Tributak / Tributos	(525.978)	(460.027)
c) Merkataritza eragiketetako galerak, narriaturak eta hornidura-aldaketak / Pérdidas, deterioro y variación provisiones por oper. comerciales	(2.416.252)	(1.072.010)
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak / Otros gastos de gestión corriente	(657.893)	(313.369)
9. Ibilgetuaren amortizazioa / Amortización del inmovilizado	(50.448.932)	(54.628.741)
10. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena / Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras	52.841.264	54.684.952
11. Hornidura-soberakinak / Excesos de provisiones	-----	103.042
12. Ibilgetuaren narriadura eta inorengantzearen emaitza / Deterioro y resultado por enajenación del inmovilizado	(2.839.092)	(545.740)
b) Inorengantzeen eta bestelakoen emaitzak / Resultados por enajenaciones y otras	(2.839.092)	(545.740)
13. Entitateak emandako diru-laguntzak eta egindako transferentziak / Subvenciones concedidas y transferencias realizadas por la entidad	(4.659.512)	(5.212.355)

**A.1) USTIAPENEKO EMAITZA / RESULTADO DE EXPLOTACIÓN
(1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13+14+15)**

429.720

228.386

16. Sarrera finantzarioak / Ingresos financieros

116

193

b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak / De valores negociables y otros instrumentos financieros

116

193

b2) Hirugarren enpresetakoak / De terceros

116

193

17. Gastu finantzarioak / Gastos financieros

(219.026)

(140.496)

b) Hirugarrenetikiko zorrenak / Por deudas con terceros

(219.026)

(140.496)

19. Kanbio-diferentziak / Diferencias de cambio

(430)

(1.694)

A.2) EMAITZA FINANTZARIOA / RESULTADO FINANCIERO (16+17+18+19+20+21)

(219.340)

(141.997)

A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA / RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)

210.380

86.389

A.4) EKITALDIKO EMAITZA / RESULTADO DEL EJERCICIO (A.3+22)

210.380

86.389

Diagnostiko Biologikoaren Sarea

Oinarrian, hiru tipologiatako proiektuak landu dira:

- KKU guztiei eragiten dieten eta **irismen globala edo zeharkakoa** duten proiektuak, DBSren hobekuntzan eta eraginkortasunean zuzeneko eragina dutenak.
- Zenbait **diziplina espezifiko** proiektuak, esate baterako, hemoterapia edota genetika.
- KKU bakoitzeko **proiektu espezifikoak**.

Parte-hartzeari dagokionez, zenbait datu eman dira:

- Proiektuak 20 lantalderen bitartez garatu dira.
- 100 pertsona inguruk, gehienak Diagnostiko Biologikoaren Sareko –DBS– kideak, hartu dute parte esandako lantaldeetan.

Ondorengo taulan biltzen dira urtean zehar landu diren proiektuak eta aurrera eramandako jarduketak:

PROIEKTUA	JARDUKETAK
PC1 Zerbitzu-zorroaren eta kudeaketa-sistemaren berrikuspena	Laborategietan: • Proben katalogo korporatiboa eta BUE-Balio Unitate Erlatiboak egin dira; oraindik SIL berrian implementatu behar dira. • Katalogo korporatiboan, proben alta eta baje kudeaketako sistematika finkatzea. Anatomia Patologikoan: • Umetoki-lepoko minbiziaren baheketaren zentralizazioa Donostiako Unibertsitate Ospitaleko (DUO) Anatomia Patologikoko Zerbitzuan. Egun, Gipuzkoako eta Arabako laginak prozesatzen.
PC2 Eskaria optimizatzea	Identifikatu diren kontsumo handiko proben multzotik, honako gida hauek argitaratu dira: • B12aren eskasiaren diagnostikoa • Folatoa. 2016an, alergia-proben eta farmako biologikoen antigorputzen erabilera egokitzea aztertu da.
PC3 Erosketa-kudeaketaren optimizazioa	Ondorengo lehiaketa korporatiboen esleipena: Alergia-probak, mikroorganismoak identifikatzea masa-espektrometria bidez, faringeko A estreptokokoa antzemateko testa eta odola ateratzeko hodiak Gipuzkoarako. Anatomia patologikoan, bularreko minbiziaren pazienteentzako pronostiko-testen lehiaketa esleitzea. Hurrengo lehiaketa korporatiboen izapidetzeen hasiera: Lagin biologikoen, autoimmunitatearen, karga birikoen proben eta gernuan disolbagarri diren legionella eta pneumokokoen antigenoen garraioaren lehiaketa. Honako lehiaketa hauen oinarri tekniko orriak lantzen ari dira: DNA ateratzekoa eta kuantifikatzekoa, hemokultiboena, arrisku handiko eta txikiko HPVarena, gongoil zelatarian bularreko minbiziaren metastasia antzematearena eta ebakuntza-barneko biopsietarako lagin biologikoen ultraizoztearena.

PC4 Informazio-sistemak garatu eta hobetzea

Laborategietan:

SIL berri bat ezartzea, Osakidetzaren Diagnostiko Biologikoaren Sarearen ereduari izaera multizentriko, korporatibo eta hizkuntzaniztun batean oinarrituta erantzungo diona. Proiektuak laborategien kudeaketarako berrikuntza teknologikoa ekarriko du, eta, horri esker, Osakidetzaren Diagnostiko Biologikoaren Sareko laborategien kudeaketa integral bat egin ahal izango da. Horrek, 2016an, honako hau ekarriko du:

- Ezarri beharreko proiektua diseinatzea eta hedatzea.
- Lantalde guztiak abian jartzea, arkitektura, fluxuak, eta Osakidetzako DBSaren eta ereduak laborategiaren funtzionamendua diseinatzeko.
- Beharrezko informazio funtzional guztia jasotzea ezarpenari hasiera emateko.
- Aplikazioa instalatzea, Osakidetzaren arkitektura eta eskakizunen arabera. Ontzat ematea.
- Omega sistemarekiko integrazioa diseinatzea eta abiaraztea, eta migrazioa.
- Aplikazioa katalogo korporatiboekin eta Gurutzetako KUUaren katalogo zehatzekin parametrizatzea, hasiera batean Mikrobiologia Zerbitzuarekin.
- Gurutzetako langileen prestakuntza eta entrenamendua, Mikrobiologiako Zerbitzua abian jartzeko.

Anatomia Patologikoan:

- Anatomia Patologikoko LIS korporatiboaren hobekuntzak - VitroPath.
- VANTAGE trazabilitate-sistema ezartzea Anatomia Patologikoko Laborategian, LISarekin integratuta.
- Eskaera elektronikoaren aplikazioa zerbitzu guztietara zabaltzea. Eskaera elektronikoa umetoki-lepoko minbiziaren baheketa-probak egiteko ezartzea.

PC5 Kudeaketa Klinikoko Unitateak sortzea

DBSko 10 KUUak funtzionamenduan (5 laborategi + 5 Anatomia Patologiko).

PC6 Diagnostiko Biologikoko SAREaren Kudeaketa Eredua diseinatzea

Osakidetzako DBSaren zuzendaritza batzordeak finkatzea: Laborategiak, Anatomia Patologikoa eta Hemoterapia.
Aginte Mahai Korporatiboa diseinatu, SIL berrian inplementatzeko.

PC7 Transfusio Prozesuaren berrikuspena

Immunohematologiako probetarako ekipamenduen eta erreaktiboen lehiaketa zentralizatuaren hedapenaren bukaera.
Transfusio Segurtasunaren sistemaren hedapena identifikazio-gailuen bidez, PDA edo software espezifikoak baliatuta.
Lagundutako Eskaera Elektronikoa ezartzea, eta e-osabiden gehitzea.

PC8 EAEko Genetika Plana osatzea

Aztartzen

PC9 Pertsonen kudeaketa

GGBBetatik antolaketa-aldaketei eta KUUetan sortutako beharrei erantzun zaie.
Egungo plantillaren eta etorkizuneko aurreikuspenen azterketa egin da.

PC10 Lagin biologikoen garraioa kudeatzea

Lagin biologikoen garraioaren lehiaketa izapidetzea.

KKUei dagokienez, hauek izan dira jarduera azpimarragarrienak:

Laborategiak

ARABAKO KKU:

Antolamenduari dagozkionak:

- Debagoieneko Ospitaleko ospitaleetako erantzunaren laborategia abian jartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren Irekitze eta Funtzionamendu Baimena eguneratzea.
- One-Stock softwarea abian jartzea.
- Ugalketa lagunduko laborategi berriaren informazioa jasotzea, eta hura diseinatzea.
- Odola ateratzeko zentroetatik datozen hozkailuen trazabilitate-sistema ezartzea.
- Laborategietako web-orriak eguneratzea.
- Bioarabaren ikerketa-jardunaldietan parte-hartze aktiboa: Teknologien katalogoa.
- Mikrobiologiako proba azkarrak Larrialdietako Laborategietan sartzeara.
- Transfusio Segurtasuna Santiago AUOn ezartzea

Ekonomiari dagozkionak:

- Gasometrietako lehiaketa zentralizatua ezartzearen bukaera.
- Alergiako lehiaketa zentralizatua ezartzea.
- KKUetako fluxu-zitometrien lehiaketa ezartzea.
- Aldaketa garrantzitsuak Mikrobiologia Molekularreko lehiaketan.
- Malditoff lehiaketa zentralizatua ezartzea.
- Ereile automatiko baten ebaluazioa

Langileen inguruko jarduketak:

- Fakultatiboak ez diren langileekin banakako bilerak, haien lanpostu-esleipenari buruzko nahien berri jakiteko.
- Hematologiako katean analista kliniko bat sartzeara langile kopurua handitu gabe.
- Fakultatiboen erretiroen estaldura: 2 AC, 1 Mikrobiologia.
- Txagorritxu AUOk Larrialdietako laborategiko gainbegiratzea aldatzea.

GURUTZETAKO KKU:

SIL:

- Sistema parametrizatzea Gurutzetako KKUn ezartzeko.
- Egungo sistematikari buruzko aholkularitza.
- Langileen prestakuntza eta entrenamendua.

Urduliz:

- Altzari eta azpiegitura guztiaren esleipena eta instalazioa.
- Ekipamendu guztiaren esleipena eta instalazioa.
- Abian jartzearen plangintza egitea.

Antolamendua:

- GUOn bezeroen arretarako eremuko fakultatiboek erabat onartu dute Hematologiako eta Koagula-zioko errutina.
- GUOn bezeroen arretarako eremuak hematologia urgentea onartu du.
- Gernuen atala berrantolatzea lehiaketa berriarekin.
- Karga birikoen erabateko automatizatzea (cobas 6800).

Prealitika:

- Jardunbide egokien auditoria-gidaria 3 ESletako odola ateratzeko zentroetan.
- Tabletten erabilera zuzentzea eta zabaltzea, ospitaleratu aurretik odola ateratzeko unitatean.
- Laginak hartzeko kontrol automatizatua ezartzea.

Erosketak:

- Lehiaketa korporatiboak.
- Zitometriako lehiaketa egitea eta esleitzea.
- Histokonpatibilitateko lehiaketa egitea.

Zerbitzu-zorroa

- Farmako biologikoak. Zentro guztietako eskaera bere egin du, Gipuzkoakoa izan ezik.
- Hitzarmena BioCrucesekin, tandem-masen sistema erabiltzeko. Azil karnitinak barneratzea.
- CSUR EB aitorpena metabolismo-atalarentzat.
- Katean egindako probak sartzeari, eta aldaketak metodiko batzuetan.
- Teknikak aldatzea, Giardia eta Cryptosporidiuma hobeto antzemateko.
- Zikarako teknikak ezartzea.

Eskaera kudeatzea:

- Arau automatikoak sartzeari tiroiderako.

GALDAKAOKO KKU:

Antolamendua. Unitatea berrantolatzen jarraitu da:

- Kateko middlewarea hobetzeko zenbait jarduera.
- Lagin urgenteen ordutegia zabaltzea katean.
- Sistemaren erreformaren diseinua hematologia katean ezartzeko.
- Erreaktiboaren kudeaketa-sistema automatizatzea eta SAPen sartzeari.

Langileak:

- Hainbat kudeaketa, zenbait langilek erretiroa hartu dutela baliaturik.

Ekipamendua eta/edo teknologikoa:

- Lehiaketa korporatiboari lotutako gernu-sistema berria ezartzea.
- Infragorrien ekipoa eranstea, kalkuluak hobeto identifikatzeko.

Ekonomia:

- AntiTPO antigorputzak, D bitamina eta proteinogramak eskatzearekin lotutako eskaria kudeatzeko

arauak eranstea.

- Zerbitzuek, Alergia zerbitzuarekin elkarlanean, IgE-en eskaera espezifikoak berrikustea.
- ESko Zuzendaritzarekin eta hornitzaileekin egindako bileren jardueraren eta gastuaren aldizkako jarraipena.

Ezagutzaren kudeaketa. Ikerketa bultzatzea:

- Barrualde-Galdakao eta Bilbo ESletako ikerketa-unitateek antolatutako ikastaroan parte hartzea.
- Laborategiak zuzendutako proiektuak, hematologia-kontagailuek eskaintzen dituzten ikerketa-parametroekin, prostatako minbiziko biomarkatzaile berriekin eta biztanle ugalkorren semen-parametroen erreferentziazko balioekin lotuta.

Anatomia Patologikoa

ARABAKO KKU

- Trazabilitate-sistema ezarri zen (2015eko iraila). 2016an, % 100ean, zitologia barne.
- Eskaera elektronikoa Araba ESIn.
- Laguntzak jarraitzen du hiru egoitzetan: Txagorritxun, Santiagon eta Debagoienan.
- Hitzarmen bat sinatu da Debagoienaren eta AUOren artean.
- Laginen garraioa hobetu da, lehenago irits daitezten eta atzerapenik gabe prozesa daitezten.
- Bi eskaner gehitu dira Santiagon eta Debagoienan, ebakuntzetan gerta daitezkeen biopsietarako.
- Formolaren neurri zuzentzaileak.
- Administrari laguntzailearen lanpostu bat kendu da (Donostiako Ospitaleko baheketa-programa). 2014tik, 06:30etik 15:00etara.
- Erizainen eta zeladoreen erretiroak anatomia patologikoko teknikari espezialista bihurtu dira.
- Bi egoiliar-plaza eman dira (aurretik baimenduak) 2017rako.

Gastuak material suntsikorretan:

- Gora egin du, gora egin baitute Immunohistokimikako eta Patologia Molekularreko zehaztapenek minbiziaaren diagnostikoan eta tratamenduan.

Jarduera zientifikoa:

- Argitalpen zientifikoak egiten ari dira. Sistematikoki ari da parte hartzen kongresuetan, komunikazioekin, posterrekin eta txostenekin.
- Doktorego-tesi bat irakurri da (5 doktore zerbitzuan).
- Hiru doktorego-tesi egiten ari dira (hiru egoiliarrek).

BASURTUKO KKU

- Egungo zerbitzuaren hainbat erreforma-proiekturen balorazioa + zerbitzu berriaren balorazioa.
- Formol-mailak neurtzea >> langileen/lehen esku-hartzeko ekipoaren gomendioak + aire girotua makrogelan (urrian hasita)
- Armairuak erostea produktu kimiko/lurrunkorrak gordetzeko + biltegia zerbitzuko sarrerara lekualdatzea (negutegia).
- PEen erabilera zabaltzea (ebakuntza-geletan izan ezik/erabilera partziala).

GURUTZETAKO KKU

- Eremu fisiko erabilgarriak egokitzea, errendimendua handitzeko.
- Trazabilitate-sistema informatikoa finkatzea (Vantage).
- LMA zerbitzuaren asteko saio tematikoak.

GALDAKAOKO KKU

- Trazabilitate-sistema informatikoa finkatzea (Vantage).
- Laneko osasunari buruzko azterketa, formola produktu kantzerigenotzat sailkatzeak planteatutako arazoaren inguruan.
- Artxibatze-guneak berrantolatzea.
- Paperezko pasiboa digitalizatzea (azken 20 urteak).
- 2000. urtea baino lehenagoko zitologien ezabatze fisikoa.
- Graduatu-ondoko irakaskuntza eskatzeko izapideen hasiera.
- Ziztaden gela galdu da, eta zerbitzuz kanpoko eremu bat egokitu.
- Azterketa anatomopatologikoak (PAAFak eta abar) eskuratzeko eskaintza ospitalez kanpoko ESlari.
- Eskaera informatikoa orokortzea.

GIPUZKOAKO KKU

- Kalitate immunohistokimikoaren bermearen programa (GCP SEAP).
- Lantaldea - protokoloak, teknikariaren laginak.
- Teknika molekularra lantzea, MGMT genearen metilazioa aztertze bidez.
- Menarini prozesadorean protokoloa.
- Giza papilomaren birusa zehazteko protokoloa.
- Vantage - vitropath sartzea.
- Eskaera elektronikoa ezartzea.
- Telepatologia ezartzea.

KKU guztiak, beren arduradunen bitartez, presente egon dira DBSaren Zuzendaritza Batzordeetan, proiektu transbertsalen jarraipena eginez: erosketak, zerbitzu-zorria, informazio-sistemak....

Laburpen gisa, jarraian 2016an egindako jarduera nagusiak jaso ditugu:

- **Zerbitzu-zorria:** Umetoki-lepoko minbiziaren baheketaren zentralizazioa Donostiako Unibertsitate Ospitaleko (DUO) Anatomia Patologikoko Zerbitzuan. Egun, Gipuzkoako eta Arabako laginak prozesatzen.
- **Informazio-sistemak:** SIL berri bat ezartzea, Osakidetzaen Diagnostiko Biologikoaren Sarearen ereduari izaera multizentriko, korporatibo eta hizkuntzaniztun batean oinarrituta erantzungo diona. Proiektuak laborategien kudeaketarako berrikuntza teknologikoa ekarriko du, eta, horri esker, Osakidetzaen Diagnostiko Biologikoaren Sareko laborategien kudeaketa integral bat egin ahal izango da.

- **Erosketak:** Ondorengo lehiaketa korporatiboen esleipena: Alergia-probak, mikroorganismoak identifikatzea masa-espektrometria bidez, faringeko A estreptokokoa antzemateko testa eta odola ateratzeko hodiak Gipuzkoarako.
- **Hemoterapia:** Immunohematologiako probetarako ekipamenduen eta erreaktiboen lehiaketa zentralizatuaren hedapenaren bukaera. Transfusio Segurtasunaren sistemaren hedapena identifikazio-gailuen bidez, PDA edo software espezifikoak baliatuta.
- **Kudeaketa ekonomikoa:** Gastu orokorretan % 1,1eko murrizketa izan da, hau da, 2015ean baino 1.016.261 € gutxiago gastatu da. Kontzeptuka, gastua honako hau izan da:
 - -% 1,96 langileetan (-% 3,41, 2012ko aparteko paga eta aurtengo % 1eko soldata-igoera kontuan hartzen ez badira).
 - -% 0,23 funtzionamenduan, erregistratutako jarduerak gora egin badu ere.

Balantze oso positiboa, gastua murriztu baita, soldata-igoera eta jarduerak gora egin duela kontuan hartuta.

Inbertsioak

Osakidetzako Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoetako Zuzendariordeak obra, instalazio eta ekipamenduei dagozkien helburuak, ekintzak eta adierazleak zenbateraino bete dituen adierazten du.

HOBETUNTZAK AURRETIK ZEUDEN AZPIEGITURETAN

- Basurtuko Unibertsitate Ospitalea: hainbat jarduketa egin dira Farmaziako pabiloian, eta Areilza Doktoarearen Kirurgia Blokeko aldagelak gaitzeko lanei ekin zaie.
- Arabako Unibertsitate Ospitalea: Kirurgia Handi Anbulatorio berriko eta Oftalmologia Klinika berriko lanak egin dira Santiagoko egoitzan; Eguneko Ospitale Mediko eta Onkohematologikoa, Odol Bankua eta Hematologia Txagorritxuko egoitzan, Errehabilitazio Zerbitzua Santiagoko egoitzako «B» eta «C» pabiloietan.
- Lakuabizkarreko Osasun Zentroan, Errehabilitazio Zerbitzuko lanei ekin zaie; 2017ko hasieran amaituko dira.

AZPIEGITURA BERRIA

- Urduliz Ospitalea – Alfredo Espinosa Orive: Inauguratu egin da ospitalea (Kanpoko Kontsultak, Erradiologia, Osatek Erresonantzia Magnetikoa), ekipamendu-espeditenteak ere egiten ari dira zenbait eremu irekitzeko (Larrialdiak, Laborategia, KHA, Endoskopiak, etab.).
- Eibarko Ospitalea: lanak aurrera doaz, erritmo normalean.
- BioCruces Institutua: Lanak aurrera doaz; 2017an amaituko dira; ekipamendu-espeditente batzuk izapidetzen ari dira.
- Miribillako Osasun Zentroa: Bilboko zentro berria ireki eta abian jarri da, lanak eta ekipamendu-hornidura amaitu ondoren.

ORDEZKO AZPIEGITURAK

- Karmeloko Osasun Zentroa: Bilboko zentro berria ireki eta abian jarri da, lanak eta ekipamendu-hornidura amaitu ondoren.
- Zornotzako Osasun Zentroa: obra amaitu eta onartuta, eta zentroa hornituta, lanean ari dira.
- Amurrioko Osasun Zentroa (oraingoa ordeztuko du): obretan ari dira; obrak 2017ko ekainean amaitzea aurreikusita dago.
- Kanpezuko Osasun Zentroa (aurrekoa ordezteko): obra hasita dago; 2017ko uztailean inauguratzea aurreikusita dago.

GOI-MAILAKO TEKNOLOGIA

- Azeleragailu Lineala Basurtuko Unibertsitate Ospitalean: azeleragailu zaharraren ordeztu azken belaunaldiko teknologia ezarri da, erradioterapiako ekipamendua berritzeko planaren barruan.
- Angiografia Digitaleko gela Basurtuko Unibertsitate Ospitalean: teknologia berri eta eguneratu da.
- Angiografia Digitaleko gela Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean: teknologia berri eta eguneratu da.
- OTA (64 ebaki) Donostia Unibertsitate Ospitalean: OTA zahar baten ordeztu azken belaunaldiko teknologia ezarri da.
- Ebakuntza-gela hibridoa Basurtuko Unibertsitate Ospitalean: irudi medikoa sortzeko gailu aurreratuek hornitutako kirurgia-gela bat da; kirurgia oso inbaditzailea ez izateko bidea ematen du, hau da, pazientearentzat horren traumatikoa ez den kirurgia. 2017an hasiko da lanean Kirurgia Blokearen 2. fasearen gainerakoarekin eta Bizkortze Sailaren eraikinarekin batera (hornitu ere egin dira pixkanaka 2016an eta 2017an).

Azpiegiturak eta pazienteen beharretarako egokiak diren teknologiak

Jada azpiegitura informatiko existenteetako hobekuntzak

- **Zentroetako LAN sareen garapena**
Ospitaleetako LAN sareetako osagaien berritze teknologikoarekin jarraitzea, zahartze teknologikoari aurre egiteko
- **Gailu mugikorrek segurtatzea (MDM)**
Gailu mugikorrek (smartphoneak, tabletak...) kudeatzeko plataforma bat ezartzea
- **Biltegiatze tresnak, zerbitzariak eta SAN gailuak**
Abian jartzen den proiektu bakoitzak –AGFA, Documentum, birtualizazioa (Oskloud), datu-base desberdinak– zein jada abian dauden Erakundearen proiektu estrategikoek –Osabide, erradiologia...– biltegiatze, zerbitzari eta SAN gailuen beharra gero eta handiagoa izatea eragiten du.
- **Datuak prozesatzen dituzten zentroen LAN sareen garapena**
Datuak prozesatzen dituzten zentro korporatiboen LAN sareetako osagaien berritze teknologikoarekin jarraitzea, zahartze teknologikoari aurre egiteko.
- **IPAM plataformarako tresnak:** Sareko segmentuen eta DHCP zerbitzarien helbideratzea kudeatzeko konponbidea.
- **Lantokiaren garapena:** PCak ordezkatzeko eta sistema eragilearen azken bertsioa (Windows 10) duen ekipamendua sartzeko.
- **SOA kudeatzeko neurriko softwarea**
- **Zerbitzariak kudeatzeko tresnak:** Zerbitzariak kudeatzeko tresnez hornitzea eta aplikazio kritikoen zerbitzua ziurtatzea.
- **Komunikazioetarako ekipamendua:** Karga orekatzaileak.

PROTAGONISMO ETA INPLIKAZIO PROFESIONALA

Plangintza

Reporting sistematika eta datuen analisiak

Giza Baliabideak Antolatzeko Planeko 2. ildo estrategikoan –Plangintza– barne hartutako helburu, ekintza eta adierazleetako datuak ustiatzeko sistematikarekin jarraitu da; era berean, Giza Baliabideen Aginte Koadroari atxikitako txosten espezifikoak definitu dira, hileru ustiatu eta analisiak eta erakunde arteko konparatiboak ahalbidetu ditzaten eta Giza Baliabideen plangintzaren esparruan erabakiak hobeto hartzeko lagungarri izan daitezen.

Dimentsionatzeko analisisia

Egoeraren diagnostikoa egin eta Osakidetzaren langile edo enplegatu premiak aztertu ostean, bi espediente prestatu dira: bata enplegatu berriak sortzeko eta bestea daudenak birmoldatzeko. Horrela, 2016ko uztailaren 19ko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren bitartez, 700 plaza berri sortzeko espedientea onartu zen; horietatik 425 plaza Urdulizko ospitalera bideratuko dira. Urdulizko ospitalerako izendatu dira, beraz, 266 plaza. Beste 23 plaza Osasun Aholkurako esleitu dira.

Gobernu Kontseilu berean 66 plaza birmoldatzeko espedientea onartu zen, Erakundeek igorritako justifikazio-memoriak aztertu ondoren. Plazak birmoldatu dira jada.

Kontratazioen eta plaza hutsak betetzen diren jarraipena

Zerbitzu Erakundeetara igorri dira aldi baterako postuei eta hutsik dauden plazei buruzko txostenak azter ditzaten eta, enplegatuen bilakaerak ez ezik, kasua hala denean, egin beharreko doiketa-premiak identifika ditzaten.

Aldi baterako enplegatuen kontrataziorako motiboak homogeneousatu, sailkatu eta kodetzeko xedearekin, eta kontratuen sorrerako motiboak antolatzeko, informazioa bateratzeko eta datuen tratamenduko eraginkortasuna areagotzeko, informazioa eskatu zaie Zerbitzu Erakundeei.

Lanpostu hutsak betetzeko prozedura

Ondorio-txosten bat prestatu da hutsik dauden lanpostuak estaltzeko prozesua arintzen lagunduko duten balizko jarduketak eta neurriak jasotzen dituen, aldi baterako postuak gutxituz joateko.


Enplegatuen zerrenda

LANBIDE TALDEA	ENPLEGATUEN ZERRENDA
A.1. Fakultatibo medikoak eta teknikariak	6.558
A.2. Goi-mailako teknikariak	451
B.1. Osasungintzako diplomadunak	8.420
B.2. Erdi-mailako teknikariak	212
C.1. Teknikariak. Osasungintzako teknikari espezialistak	995
C.2. Teknikariak. Administrazioko espezialistak	518
C.3. Teknikariak. Espezialista profesionalak	218
D.1. Osasungintzako teknikari laguntzaileak	4.069
D.2 Administrazioko teknikari laguntzaileak	2.235
D.3. Teknikari laguntzaile profesionalak	420
E.1. Beharginak	2.304
GUZTIRA	26.400


Banaketa, zerbitzu-erakundeen arabera

Zerbitzu Erakundeak	Guztira	Enplegatuen zerrenda estrukturalaren %
ZUZENDARITZA NAGUSIA	921	% 3,49
LARRIALDIK	265	% 1,00
ARABAKO ESI	3.516	% 13,32
DEBAGOIENAKO ESI	520	% 1,97
ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	384	% 1,45
RIOJA ALAVESA - ARABAKO ERRIOXAKO ESI	145	% 0,55
TOLOSALDEKO ESI	182	% 0,69
DONOSTIALDEKO ESI	4.640	% 17,58
BIDASOAKO ESI	564	% 2,14
GOIERRI-UROLA GARAIOKO ESI	796	% 3,02
DEBABARRENEKO ESI	670	% 2,54
GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	164	% 0,62
URIBEKO ESI	804	% 3,05
TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA	85	% 0,32
BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA	932	% 3,53
SANTA MARINA OSPITALEA	330	% 1,25
GORLIZKO OSPITALEA	334	% 1,27
BILBO-BASURTUKO ESI	3.567	% 13,51
BARRUALDE – GALDAKAKO ESI	2.358	% 8,93
BARAKALDO-SESTAOKO ESI	811	% 3,07
EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI	4.412	% 16,71
GUZTIRA	26.400	


Langile finkoak eta aldi baterakoak lanbide taldeko




Aginte-postuak lanbide taldeko




Adin-piramidea




Generoaren eta adin-taldearen arabera banaketa



Generoaren eta lanbide taldearen arabera banaketa (%)



Adinaren eta talde profesionalen arabera banaketa



Langile finkoen izatezko bajak lanbide taldeko

	Nahitaezko erretiroa		Borondatezko erretiroa		Beste baja batzuk	
Lanbide taldea	Guztira	Bajen guztizkoaren %	Guztira	Bajen guztizkoaren %	Guztira	Bajen guztizkoaren %
A.1. Fakultatibo medikoak eta teknikariak	152	% 16,76	49	% 5,40	41	% 4,52
A.1. Fakultatibo medikoak eta teknikariak	152	% 43,55	55	% 11,68	31	% 15,50
A.2. Goi-mailako teknikariak	7	% 2,01		% 0,00	2	% 1,00
B.1. Osasungintzako diplomadunak	65	% 18,62	147	% 31,21	66	% 33,00
B.2. Erdi-mailako teknikariak	2	% 0,57	3	% 0,64	3	% 1,50
C.1. Osasungintzako teknikari espezialistak	5	% 1,43	12	% 2,55	10	% 5,00
C.2. Administrazioko teknikari espezialistak	7	% 2,01	19	% 4,03	1	% 0,50
C.3. Teknikari espezialista profesionalak.	2	% 0,57	4	% 0,85		% 0,00
D.1. Osasungintzako teknikari laguntzaileak	66	% 18,91	131	% 27,81	41	% 20,50
D.2. Administrazioko teknikari laguntzaileak	19	% 5,44	48	% 10,19	9	% 4,50
D.3. Teknikari laguntzaile profesionalak	4	% 1,15	9	% 1,91	6	% 3,00
E.1. Beharginak	20	% 5,73	43	% 9,13	31	% 15,50
GUZTIZKOA	349	% 34,22	471	% 46,18	200	% 19,61
BAJAK GUZTIRA			1.020			

BAME/BAEE eskaintza 2014-2015 BAME/BAEE amaiera

Especialidad	Año 2015	Año 2016	Especialidad	Año 2015	Año 2016
ALERGOLOGIA	1		ALERGOLOGIA	3	1
ANALISI KLINIKOAK	1	4	ANALISI KLINIKOAK	3	4
ANATOMIA PATOLOGIKOA	4	3	ANATOMIA PATOLOGIKOA	5	3
ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETA	19	20	ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETA	21	18
ANGIOLOGIA ETA HODIETAKO KIRURGIA	2	1	ANGIOLOGIA ETA HODIETAKO KIRURGIA		3
BIOKIMIKA KLINIKOA			BIOKIMIKA KLINIKOA	1	1
DIGESTIO-APARATUA	8	6	DIGESTIO-APARATUA	10	9
KARDIOLOGIA	6	5	KARDIOLOGIA		6
KIRURGIA OROK. ETA DIGESTIO-APARATUA	8	9	KIRURGIA OROK. ETA DIGESTIO-APARATUA		9
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA		1	KIRURGIA KARDIOBASKULARRA		1
AHO ETA AURPEGI-MASAIETAKO KIRURGIA	1	1	AHO ETA AURPEGI-MASAIETAKO KIRURGIA		1
KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA	8	10	KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA		10
KIRURGIA PEDIATRIKOA	1	1	KIRURGIA PEDIATRIKOA		
KIRUR. PLASTIKOA, ESTETIKOA ETA KONPON.	2	2	KIRUR. PLASTIKOA, ESTETIKOA ETA KONPON.		2
TORAXEKO KIRURGIA	1	1	TORAXEKO KIRURGIA		
DERMATOLOGIA MED. KIR. ETA BENER.	5	4	DERMATOLOGIA MED. KIR. ETA BENER.	4	4
ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOA	2	2	ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOA	3	2
OSPITALE-FARMAZIA	4	5	OSPITALE-FARMAZIA	6	6
HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIA	5	4	HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIA	5	6
LANEKO MEDIKUNTZA	2	2	LANEKO MEDIKUNTZA	6	4
FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZA	74	76	FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZA	82	78
MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA	4	3	MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA	4	4
MEDIKUNTZA INTENTSIBOA	6	5	MEDIKUNTZA INTENTSIBOA		4
BARNE-MEDIKUNTZA	8	9	BARNE-MEDIKUNTZA		14
MEDIKUNTZA NUKLEARRA		1	MEDIKUNTZA NUKLEARRA	1	
MEDIK. PREBENTIBOA ETA OSASUN PUBLIKOA	1	1	MEDIK. PREBENTIBOA ETA OSASUN PUBLIKOA	1	1
MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIA	3	3	MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIA	4	
NEFROLOGIA	3	3	NEFROLOGIA	4	5
NEUMOLOGIA	5	6	NEUMOLOGIA	7	5
NEUROKIRURGIA	2	1	NEUROKIRURGIA		1
NEUROFISIOLOGIA KLINIKOA	1	1	NEUROFISIOLOGIA KLINIKOA	2	1
NEUROLOGIA	4	6	NEUROLOGIA	4	6
OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA	9	7	OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA	12	11
OFTALMOLOGIA	6	8	OFTALMOLOGIA	9	9
ONKOLOGIA MEDIKOA	5	5	ONKOLOGIA MEDIKOA		3
ERRADIOTERAPIA ONKOLOGIKOA	3	3	ERRADIOTERAPIA ONKOLOGIKOA	2	2
OTORRINOLARINGOLOGIA	4	5	OTORRINOLARINGOLOGIA	5	2
PEDIATRIA	18	24	PEDIATRIA	24	24
PSIKOLOGIA KLINIKOA	4	5	PSIKOLOGIA KLINIKOA	5	5
PSIKIATRIA	11	11	PSIKIATRIA	11	11
ERRADIO-DIAGNOSTIKOA	8	10	ERRADIO-DIAGNOSTIKOA	9	
ERREUMATOLOGIA	3	1	ERREUMATOLOGIA	2	3
UROLOGIA	5	5	UROLOGIA		4
EMAGINA	20	22	EMAGINA	24	24
OSASUN MENTALEKO ERIZAINA	11	8	OSASUN MENTALEKO ERIZAINA	11	9
FAMILIA ETA KOMUNITATEKO ERIZAINA	9	9	FAMILIA ETA KOMUNITATEKO ERIZAINA	9	9
GUZTIZKOA	307	319	GUZTIZKOA	299	325

Hautaketa eta horniketa

1. 2014-2015eko Enplegu Publikoaren Eskaintza

Osakidetzako Administrazio Kontseiluak 2014ko abenduaren 9an sinatu zuen 2014ko ekitaldirako Ente Publikoaren Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzeko akordioa (2014ko abenduaren 16ko EHAA), eta 2015eko otsailaren 23an, 2015eko ekitaldirako Ente Publikoaren Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzeko akordioa (2015eko martxoaren 3ko EHAA). Horren bidez, 1.014 lanpostu eskaini ziren, horietatik 507 estatutupeko langile finkoen izaera lortzeko prozesuaren baitan, eta beste 507 barne-sustapeneko prozesuaren baitan.

Prozesuen arrazionalizazio- eta eraginkortasun-arrazoiak tarteko, 2014ko eta 2015eko Enplegu Publikoaren Eskaintzen lanpostuak metatu egin ziren, eta estatutupeko langile finkoaren izendapena lortzeko hautapen-prozesuak eta barne-sustapenekoak batera garatu ziren.

2015. urtean zehar fase hauek burutu ziren: hautaketa-prozesuaren izen-ematea, onartuen eta baztertuen behin behineko eta behin betiko ebazpenen argitalpena, epaimahai kalifikatzaileak izendatzeko ebazpenen argitalpena eta oposizio-faseari dagozkion hautaketa-proben egitea. 2016ean, jarduketa hauek garatu dira:

Oposizio-fasea gainditu dutenen zerrenden argitalpena

2016ko martxoaren 9an, epaimahai kalifikatzaileek emaitzen aurkako kexen berrikusketa egin ostean, Osakidetzaren webgunean argitaratu dira Giza Baliabideen Zuzendariaren Ebazpenak. Horietan, oposizio-fasea gainditu dutenen zerrendak jasotzen dira, deitutako kategoria guztienak.

Kategoria	Oposizio-fasea gainditu duten pertsonak
FE Familiako medikua LMAT	722
FE Pediatriako medikua LMAT	167
Erizaina	9.159
Fisioterapeuta	1.080
Emagina	409
Laborategiko teknikari espezialista	709
Erizaintzako laguntzailea	6.820
Administrari laguntzailea	4.795
Zeladorea	5.420
Guztira	29.281

Aipatutako ebazpenak argitaratu ondoren, 10 egun baliodun gaitu dira betekizunak eta merezimenduak alegatzeko eta deialdiaren oinarrietan ezartzen den dokumentazioa entregatzeko.

2016ko azaroan, Enplegu Publikoaren Eskaintza gairak zutenek alegatutako betekizunei eta merezimenduei lotutako datuak eguneratu dira Curriculum Vitae aplikazioaren bitartez. Horretarako, berrikusketarako epea ezarri da, epaimahai kalifikatzaileek balorazioa egin aurretik.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probak EPEren testuinguruan

2016ko apirilaren 14an, Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpena argitaratu da. Horren bidez, hizkuntza eskakizunak egiaztatze proben deialdia egiten da, eta argitaratu egiten da 2014-15 Enplegu Publikoaren Eskaintzara dagozkion kategorietan euskararen ezagutza egiaztatze probetara deitutako pertsona izangaien behin betiko zerrenda.

2016ko ekainaren 24an hizkuntza-eskakizunak egiaztatze proben behin-behineko emaitzak argitaratu dira, eta 2016ko uztailaren 22an, behin betiko emaitzak.

2. 2016ko Enplegu Publikoaren Eskaintza

2016ko apirilaren 25ean, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak onartu egin du Osakidetzako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren inguruko Erabakia 2016. urterako. Horren bidez, 1.200 lanpostu eskaini dira (2016ko maiatzaren 17ko EHAA).

3. 2012ko Lekualdatze Lehiaketa eta 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintza

2015eko apirilaren 14an, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 3. Atalak 247/2015 Epaia eman zuen. Horrek ezeztatu egin zuen Osakidetzak Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2. zenbakiko Epaitegiak 2013ko uztailaren 30ean emandako 123/2013 Epaia kontra aurkeztutako apelazio-errekurtsoa, eta ebazpen hori berretsi zuen.

Epaia hori betetze aldera, 2012ko Lekualdatze Lehiaketa handitu da, eta 141 lanpostu eskaini dira FE Familiako medikua LMAT kategorian eta 29 FE Pediatriako Medikua LMAT kategorian. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian honako ebazpen hauek argitaratu ziren 2016ko apirilaren 26an:

- 117/2016 ebazpena, 2016ko apirilaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2015eko apirilaren 14ko 247/2015 Epaia betearazten da, honi buruzkoa: Euskadiko Medikuen Sindikatuaren 2012ko lekualdatze-lehiaketa - Medikuen kategorian (Fakultatibo Espezialista Familiako Medikua-LMAT eta Fakultatibo Espezialista Pediatriako Medikua-LMAT lanpostu funtzionalak).
- 387/2016 ebazpena, apirilaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiarena. Honen bidez handitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 247/2015 Epaia betez, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen Talde Profesionaleko Medikuei kategorietan (Familiako medikua Fakultatibo Espezialistaren-LMAT eta Medikuei Pediatriko Fakultatibo Espezialistaren-LMAT lanpostu funtzionalak) leku-aldaketako lehiaketaren destinoen eskaintza, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren martxoaren 26ko 413/2012 Ebazpenak erregulatzen duena.

2016ko abenduaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dira destinoak esleitzeko ebazpenak. Esleitutako destinoak banatu dira, eta 2017ko urtarrilaren 15ean amaiera eman zaio laneratze-faseari destinoak erakundeetan.

2012ko Lekualdatze Lehiaketan garatutako jardueren ondorioz, 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintza handitu da. Horren bidez, 152 lanpostu eskaini dira FE Familiako medikua LMAT kategorian eta 71 FE Pediatriako Medikua LMAT kategorian. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian honako ebazpen hauek argitaratzen dira 2016ko azaroaren 10ean:

- 306/2016 Ebazpena, azaroaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Horren bidez eskaini egiten dira Fakultatibo Mediko eta Teknikoen Talde Profesionaleko Mediku kategoriaren (Familia-medikua Fakultatibo Espezialista-LMAT lanpostu funtzionalak) 2012ko Lekualdatze-lehiaketaren destino eskaintzaren handitzetik sortutako 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintzaren barruko destinoak.
- 307/2016 Ebazpena, azaroaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Horren bidez eskaini egiten dira Fakultatibo Mediko eta Teknikoen Talde Profesionaleko Mediku kategoriaren (Familia-medikua Fakultatibo Espezialista-LMAT lanpostu funtzionalak) 2012ko Lekualdatze-lehiaketaren destino eskaintzaren handitzetik sortutako 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintzaren barruko destinoak.

2016ko abenduaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dira estatutupeko langile finkoak izendatzeko Ebazpenak. Esleitutako destinoak banatu dira, eta aurreikusita dago laneratzea 2017ko urtarrilaren 16an amaituko dela.

2017ko lehen hiruhilekoan zehar aurreikusi da 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren baitako ondoriozko fasearen eskaintza eta esleipena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 247/2015 epaiaren arabera.

4. 2016ko Lekualdatze Lehiaketa

2016ko abuztuaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2016ko uztailaren 18koa, 2016rako Ente Publikoko Lekualdatze Lehiaketaren irizpide orokorrak onartzen dituenak.

5. 2014ko kontratazio-zerrendak eta 2011 eta 2008ko kontratazio-zerrendak

2016ko urtarrilaren 1ean euskara-eskakizunak aurkezteko epea ireki zen aldi baterako kontrataziorako zerrendak, zerbitzu-eginkizunak eta aldi baterako barne-sustapena eguneratzeko.

2016ko apirilaren 26an aldi baterako kontrataziorako zerrenda eguneratuak argitaratu ziren:

- 2014ko kontratazio-zerrendak, 1. eta 2. lehentasuna (Behin betiko eta eguneratutako zerrenda horiek behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak ebazten dituzte, eta eguneratu egiten dituzte hizkuntza-eskakizunak eta Osakidetzan izandako esperientzia profesionala, 2015eko abenduaren 31ra arte).
- 2011ko kontratazio-zerrendak, 1., 2., 3., 4. eta 5. lehentasuna (2014ko zerrendetan ez dauden kategoriak, eguneratuta 2015eko abenduaren 31ra arteko hizkuntza-eskakizunekin eta Osakidetzan izandako esperientzia profesionalarekin).
- 2008ko kontratazio-zerrendak, lehentasun guztiak (2014ko eta 2011ko zerrendetan jasota ez zeuden kategoriak, hizkuntza-eskakizunekin eguneratuak).

Data horretan bertan, Osakidetza webgunearen bitartez argitaratzen dira behin behineko zerrendak

dituzten ebazpenak, 2014ko kontratazio-zerrenden 3. lehentasunekoak (2015ean jasotako eskariak jasotzen dituzten eta etengabe irekita dauden kategoriak) eta 2011ko kontratazio-zerrenden 6. lehentasunekoak (2015ean jasotako eskariak jasotzen dituzten 2014ko zerrendetan jasotzen ez diren eta etengabe irekita dauden kategoriak). Zerrendok barematuta eta eguneratuta daude euskara-eskakizunen eta Osakidetza eskaintako zerbitzuen arabera. Aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, 2015eko abenduan behin betiko zerrendak argitaratu dira.

2016ko maiatzaren 31an Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpena argitaratzen da. Horren bidez etenik gabe irekita uzten dira aldi baterako kontratazioko zerrendak kategorialanpostu funtzional hauetan: FE Ospitale Farmaziako teknikariak eta FE. Psikologo-Kliniko teknikariak.

2016an zehar, eskaerak aurkezteko beti irekita dauden kategoriei dagozkien aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko 2.548 eskaera jaso dira.

Aldi baterako kontratazioari lotutako gardentasuna areagotzeko helburuarekin, astean behin argitaratzen da 2014ko uztailetik, astelehenero, lanpostu hutsen eta erreserbatuen zerrendei dagokien deialdi-hurrenkera, esparruaren eta kategoriaren arabera, 2014ko aldi baterako kontratazioko zerrendei eta 2011ko aldi baterako kontratazioko zerrendei dagokiena.

2016ko lehen hiruhilekoan zehar, Fakultatibo Mediku Espezialisten bermatze-prozesua garatu da. Horri esker, behin behineko 83 profesional sartu dira plantillan, bitarteko langile gisa.

2016ko bigarren sei hilekoan zehar 462 lanpostu huts eta erreserba eskaini dira modu telematikoa, kategorialanpostu dagozkien bitarteko langile gisa aritzeko: erizaina, erizaintzako laguntzailea, administrari laguntzailea, zeladorea eta zerbitzuako langilea.

6. Aldi baterako kontratazioa

Egin diren izendapenak, osasun-eremuaren arabera, lanbide-taldetan taldekaturik:

	Guztira	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
A1 Fakultatibo mediko eta teknikoak	15.362	2.405	% 10,40	4.245	% 10,32	8.712	% 12,97
Medikua	14.689	2.361	% 10,21	3.943	% 9,58%	8.385	% 12,48
Farmazeutikoa	201	29	% 0,13	47	% 0,11%	125	% 0,19
Odontologoa	314			199	% 0,48%	115	% 0,17
Biologoa	24			10	% 0,02%	14	% 0,02
Psikologoa	134	15	% 0,06	46	% 0,11%	73	% 0,11
A2 Goi-mailako teknikariak	144	41	% 0,18	43	% 0,10%	60	% 0,09%
Goi-mailako informatikaria	37	22	% 0,10%	13	% 0,03	2	% 0,00
Goi-mailako beste tituludun batzuk	107	19	% 0,08%	30	% 0,07	58	% 0,09
B1 Osasun-diplomatuak	47.013	8.174	% 35,35	16.326	% 39,68	22.513	% 33,51
Erizaina	43.110	7.510	% 32,48	15.209	% 36,97	20.391	% 30,35
Emagina	887	80	% 0,35	341	% 0,83	466	% 0,69
Fisioterapeuta	2.662	547	% 2,37	647	% 1,57	1.468	% 2,18
Beste osasun diplomadun batzuk	354	37	% 0,16	129	% 0,31	188	% 0,28
B2 Erdi-mailako teknikariak	160	20	% 0,09	37	% 0,09	103	% 0,15
Ingeniari teknikoa	6	2	% 0,01			4	% 0,01
Gizarte-langilea	126	8	% 0,03	30	% 0,07	88	% 0,13
Erdi-mailako beste tituludun batzuk	28	10	% 0,04	7	% 0,02	11	% 0,02
C1 Osasuneko teknikari espezialistak	5.470	906	% 3,92	1.840	% 4,47	2.724	% 4,05
Erradiologiako teknikari espezialista	2.884	443	% 1,92	992	% 2,41	1.449	% 2,16
Laborategiko teknikari espezialista	1.816	301	% 1,30	538	% 1,31	977	% 1,45
Anatomia Patologikoko teknikari espezialista	317	38	% 0,16	165	% 0,40	114	% 0,17
Medikuntza Nuklearreko teknikari espezialista							
Erradioterapiako teknikari espezialista	327	81	% 0,35	88	% 0,21	158	% 0,24
Beste teknikari espezialista batzuk	126	43	% 0,19	57	% 0,14	26	% 0,04
C2 Administrazioko teknikari espezialistak	323	101	% 0,44	94	% 0,23	128	% 0,19
C3 Teknikari espezialista profesionalak	935	307	% 1,33	209	% 0,51	419	% 0,62
D1 Osasuneko teknikari laguntzaileak	27.494	5.180	% 22,40	7.876	% 19,14	14.438	% 21,49
D2 Administrazioko teknikari laguntzaileak	15.112	2.627	% 11,36	5.137	% 12,49	7.348	% 10,94
D3 Teknikari laguntzaile profesionalak	1.695	92	% 0,40	165	% 0,40	1.438	% 2,14
E1 Mendekoak / Langileak	17.744	3.269	% 14,14	5.170	% 12,57	9.305	% 13,85
Zeladorea	9.442	975	% 4,22	3.810	% 9,26	4.657	% 6,93
Zerbitzuetako langilea	8.302	2.294	% 9,92	1.360	% 3,31	4.648	% 6,92
	131.452	23.122	% 100,00	41.142	% 100,00	67.188	% 100,00

Egin diren izendapenak, osasun-eremuaren arabera, harreman juridikoaren arabera taldekaturik:

	Guztira		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
Bitartekoak	2.651	% 2,02	555	% 2,40	964	% 2,34	1.132	% 1,68
Ordezkoak	41.218	% 31,36	6.129	% 26,51	12.229	% 29,72	22.860	% 34,02
Aldi baterakoak	87.583	% 66,63	16.438	% 71,09	27.949	% 67,93	43.196	% 64,29
	131.452	% 100,00	23.122	% 100,00	41.142	% 100,00	67.188	% 100,00

Izendapenak, sexuaren arabera:

	Guztira		Hombres		Mujeres	
A1 Fakultatibo mediko eta teknikoak	15.362	% 11,69	4.916	% 21,04	10.446	% 9,66
A2 Goi-mailako teknikariak	144	% 0,11	47	% 0,20	97	% 0,09
B1 Osasun-diplomatuak	47.013	% 35,76	6.171	% 26,41	40.842	% 37,79
B2 Erdi-mailako teknikariak	160	% 0,12	23	% 0,10	137	% 0,13
C1 Osasuneko teknikari espezialistak	5.470	% 4,16	840	% 3,59	4.630	% 4,28
C2 Administrazioko teknikari espezialistak	323	% 0,25	25	% 0,11	298	% 0,28
C3 Teknikari espezialista profesionalak	935	% 0,71	573	% 2,45	362	% 0,33
D1 Osasuneko teknikari laguntzaileak	27.494	% 20,92	1.671	% 7,15	25.823	% 23,89
D2 Administrazioko teknikari laguntzaileak	15.112	% 11,50	1.546	% 6,62	13.566	% 12,55
D3 Teknikari laguntzaile profesionalak	1.695	% 1,29	1.481	% 6,34	214	% 0,20
E1 Mendekoak / Langileak	17.744	% 13,50	6.074	% 25,99	11.670	% 10,80
	131.452	% 100,00	23.367	% 100,00	108.085	% 100,00

Izendapenak, kontratuen iraupen tarteen arabera

	Aldi baterakoak 6 hilabete baino gutxiago	Aldi baterakoak 6 hilabete baino gehiago
A.1. Fakultatibo mediko eta teknikoak	375	1.344
A.2. Goi-mailako teknikariak	4	28
B.1. Osasun-diplomatuak	1.524	1.293
B.2. Erdi-mailako teknikariak	6	17
C.1. Osasuneko teknikari espezialistak	200	158
C.2. Administrazioko teknikari espezialistak	3	16
C.3. Teknikari espezialista profesionalak	22	28
D.1. Osasuneko teknikari laguntzaileak	995	612
D.2. Administrazioko teknikari laguntzaileak	435	402
D.3. Teknikari laguntzaile profesionalak	48	34
E.1. Mendekoak / Langileak	653	240
GUZTIRA	4.265	4.172

7. Zerbitzu-eginkizunak

Koadroaren ezkerreko atalean, Osakidetzan beren jabetzako lanpostu bat duten langileei beste autonomia-erkidego batzuetako osasun-zerbitzuetan lan egiteko baimendutako zerbitzu-eginkizunen kopurua adierazten da.

Eskuineko atalean, berriz, beste osasun-zerbitzu batzuetan beren jabetzako lanpostu bat duten eta Osakidetza-zerbitzu-erakundeetan zerbitzu-eginkizunak eman zaizkien pertsonen kopurua adierazten da.

DESTINOA BESTE OSASUN ZERBITZUETAN		BESTE OSASUN-ZERBITZU BATZUETATIK DATOZENAK	
Baimenak	Luzapenak	Baimenak	Luzapenak
7	35	19	52

8. Lanpostuen deialdiak

2016an argitaratutako lehiaketa-sistemako eta izendapen askeko sistemako deialdien kopurua:

	LEHIAKETA-SISTEMA	IZENDAPEN ASKEKO SISTEMA	GUZTIRA
Buruzagitzak	18	57	75
Aldi baterako barne-sustapena			50
Zerbitzu-eginkizuna			84
Guztira			209

2016an argitaratutako zuzendarien eta zuzendariordeen deialdien kopurua:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Zuzendariak	9	2	1	12
Zuzendariordeak	1	1	2	4
Guztira	10	3	3	16

2016an argitaratutako LMAUko buruen deialdien kopurua:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
LMAUko burua	1	6	7	14


Prestakuntza-plan korporatiboa

Prestakuntza-plan korporatiboari dagokionez, ondoren adierazten diren prestakuntza-jarduerak antolatu dira: 2016. urtean zehar, 14.632 profesionalak hartu dute parte Prestakuntza-plan korporatiboaren baitako jardueretan. Guztira, 166.754 ordu sartu dira prestakuntzan, 337 prestakuntza-jardueratan banaturik. Izena emandakoen % 84 emakumeak izan dira, eta % 16 gizonezkoak.


Prestakuntza-jardueren banaketa, esparru eta eremuen arabera, honako hau izan da:

Esparrua	Ordu-kopurua			Izena emandakoak		
	Jarduerak	Benetan egindako	Orduak	Guztira	Gizon.	Emakum.
1. 1. ANTOLAMENDU-EREDUA	15	134	3.596	547	143	404
1.1 LIDERGOA	1	7	168	29	11	18
1.2 KUDEAKETA-, ZIURTAPEN- ETA ANTOLAKETA-TRESNAK	14	127	3.428	518	132	386
2. INFORMAZIO-SISTEMAK	41	296	3.708	654	216	438
2.1 INFORMATIKA-TRESNA KORPORATIBOAK	35	207	2.917	583	188	395
2.2 MAHAIGAINENKO INFORMATIKA-TRESNAK	2	19	301	36	12	24
2.3 LANKIDETZA-TRESNAK	4	70	490	35	16	19
3. KLINIKO-ASISTENTZIALA	202	3.197	126.887	10.924	1.527	9.397
3.1 SEGURTASUN KLINIKOA	26	413	27.069	2.790	530	2.260
3.2 BIOETIKA	4	16	216	85	8	77
3.3 JARDUN KLINIKOA	95	1.377	56.987	4.673	514	4.159
3.4 PAZIENTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANA	16	306	4.762	327	23	304
3.5 SAILKAPEN / ERREGISTRATZE SISTEMAK	12	223	8.552	753	96	657
3.6 PREBENTZIOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENA	49	863	29.302	2.296	356	1.940
4. PERTSONAK	49	780	22.865	1.828	307	1.521
4.1 KOMUNIKAZIOA ETA GAITASUN SOZIALAK	40	655	9.480	721	125	596
4.2 LANEKO OSASUNA	1	50	800	18	4	14
4.3 ARAUAK ETA LEGEAK	8	75	12.585	1.089	178	911
5. ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU OROKORRAK	11	195	4.585	314	124	190
5.1 MANTENTZE-LANAK ETA AZPIEGITURAK	1	20	360	19	19	0
5.2 ZERBITZU OROKORRAK	5	100	2.920	198	89	109
5.3 PRAKTIKA TEKNIKOA ETA ADMINISTRATIBOA	5	75	1.305	97	16	81
6. IKERKUNTZA ETA EZAGUTZAREN ZABALTZEA	12	120	1.902	226	53	173
6.1 IKERTZEKO PRESTAKUNTZA	6	75	1.315	131	47	84
6.2 EBIDENTZIA ZIENTIFIKOA	4	35	492	56	4	52
6.4 HIZKERA ZIENTIFIKOA ETA ZABALKUNDE TRESNAK	2	10	95	39	2	37
7. IRAKASTEKO PRESTAKUNTZA	23	374	5.572	372	56	316
7.1 PRESTATZAILEEN PRESTAKUNTZA	3	90	1.050	36	5	31
7.2 TUTOREEN PRESTAKUNTZA	4	105	2.162	103	34	69
Guztira	337	4.916	166.754	14.632	2.409	12.223


Burututako jarduerak




Sartutako prestakuntza-orduak



Benetako prestakuntza-orduak



Prestakuntza-jardueretako izen-emateak - Datu globalak, esparruaren arabera




ESPARRUAK:


- 1. ANTOLAMENDU-EREDUA
- 2. INFORMAZIO-SISTEMAK
- 3. KLINIKO-ASISTENTZIALA
- 4. PERTSONAK
- 5. ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU OROKORRAK
- 6. IKERKUNTZA ETA EZAGUTZAREN ZABALTZEA
- 7. IRAKASTEKO PRESTAKUNTZA
- 8. PRESTAKUNTZA-PROIEKTU INTEGRALAK

Prestakuntza-jardueren banaketa, emateko modalitatearen arabera (mistoa / online / aurrez aurrekoa).

	Jarduerak	Benetan egindako	Ordu-kopurua Orduak	Izena emandakoak
PRESTAKUNTZA: Mistoa	68	1.631	28.754	1.375
2. INFORMAZIO-SISTEMAK	1	26	208	12
3. KLINIKO-ASISTENTZIALA	34	900	18.054	757
4. PERTSONAK	27	570	7.880	466
6. IKERKUNTZA ETA EZAGUTZAREN ZABALTZEA	2	30	450	37
7. IRAKASTEKO PRESTAKUNTZA	4	105	2.162	103
PRESTAKUNTZA: Online	91	1.929	105.191	7.556
1. ANTOLAMENDU-EREDUA	2	22	918	86
2. INFORMAZIO-SISTEMAK	3	60	360	19
3. KLINIKO-ASISTENTZIALA	79	1.719	88.789	6.236
4. PERTSONAK	2	28	12.204	1.017
5. ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU OROKORRAK	5	100	2.920	198
PRESTAKUNTZA: Presentziala	178	1.356	32.810	5.701
1. ANTOLAMENDU-EREDUA	13	112	2.678	461
2. INFORMAZIO-SISTEMAK	37	210	3.140	623
3. KLINIKO-ASISTENTZIALA	89	578	20.045	3.931
4. PERTSONAK	20	182	2.781	345
5. ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU OROKORRAK	6	95	1.665	116
6. IKERKUNTZA ETA EZAGUTZAREN ZABALTZEA	10	90	1.452	189
7. IRAKASTEKO PRESTAKUNTZA	3	90	1.050	36
Guztira	337	4.916	166.754	14.632




Prestakuntza jardueren % arabera




Izen-emateen %, modalitatearen

Izen-emateen banaketa, lan-harremanaren eta lanbide taldearen arabera

Izen-emateak lan-harremanaren arabera



Izen-emateak lanbide taldearen arabera



- A1** FAKULTATIBO MEDIKO ETA TEKNIKOAK
- A2** GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK
- B1** DIPLOMADUN SANITARIOAK
- B2** ERDI-MAILAKO TEKNIKARIAK
- C1** TEKNIKARI SANITARIO ESPEZIALISTAK
- C2** ADMINISTRAZIOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTAK
- C3** TEKNIKARI ESPEZIALISTA PROFESIONALAK
- D1** TEKNIKARI LAGUNTZAILE SANITARIOAK
- D2** ADMINISTRAZIOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEAK
- D3** TEKNIKARI LAGUNTZAILE PROFESIONALAK
- E1** MENDEKOAK-LANGILEAK
- KL** KANPOKO LANGILEAK
- ZUZ** ZUZENDARIAK

Online prestakuntza-jarduera

Korporazioan, oro har, online prestakuntza sustatzeko helburuari jarraipena emanik, 2016. urtean ondorengo online prestakuntza-jarduerak gauzatu dira:

Guk geuk ekoiztako online prestakuntza-jarduerak

Ikastaroaren izena	Edizioak	Ordu-kopurua	Izena emand.	Benetan egindako orduak
Azalpeko gordailu benosoa daukan pazientearen arretari heltzea	6	60	531	4.650
Mendekotasunari heltzea eta tabakoari uzteko banakako teknikak	5	150	157	2.790
Adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitzeko, diagnostikatzeko eta tratatzeko esku-hartze programa	3	21	18	63
Hasierako asistentzia, sindrome koronario akutuaren susmoa dagoenean	5	150	495	9.030
Pazientearen segurtasunari buruzko oinarritzko ikastaroa	10	200	1.026	14.480
Genero-indarkeriari buruzko oinarritzko ikastaroa osasun-profesionalentzat	5	175	349	6.650
Zeladoreentzako prestakuntza	5	100	198	2.920
Hasierako asistentzia sindrome koronario akutuaren susmoaren aurrean - online	1	30	4	90
Eskuen higieena osasun-arretan zehar	9	72	947	5.568
Osanaia: erizaintzako metodologia eta zainketen kudeaketa	11	220	614	8.240
Pazientearen segurtasunaz oinarritzko ikastaroa	2	40	179	1.840
Pazientearen segurtasunaz oinarritzko ikastaroa Pazientearen segurtasunaz oinarritzko ikastaroa	1	20	103	1.320
Presioaren ondoriozko ultzerak prebenitzea eta zaintzea	4	140	173	3.360
Adingabeen alkohol-kontsumoaren prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan esku hartzeko programa	9	63	736	3.871
Datu pertsonalen babesa osasungintzako erakundeetan esparruan	1	15	956	11.580
Sendagaien erabilera zehatza: paziente polimedikatuen zainketa integrala	1	65	292	10.920
Guztira	78	1.521	6.778	87.372

Kanpoan ekoiztako online prestakuntza-jarduerak

Ikastaroaren izena	Edizioak	Ordu-kopurua	Izena emand.	Benetan egindako orduak
Nola idatzi webgunerako	3	60	19	360
Bizitza-estiloari buruzko aholku laburra	1	30	75	1.740
Adineko pertsonen hauskortasuna eta ererikoak hautemateko eta maneiatzeko ikastaroa	2	60	282	6.630
Arriskuaren estratifikazioa. Pertsonen eta populazioaren osasun-beharrei hobeto erantzuteko erreminta	1	3	139	312
Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza	2	170	66	5.185
Ontzi-jabeak: gatazken negoziazioa eta konponketa	1	13	61	624
Pacific: Lidergoa eta taldeen kudeaketa	1	7	29	168
Gurasotasun positiboa: osasuna eta ongizatea sortzea 0-3 urte bitartean	1	50	50	2.050
Triskelion: denboraren kudeaketa eta produktibitate pertsonala	1	15	57	750
Guztira	13	408	778	17.819

Erakundea eraldatzera zuzendutako prestakuntza-proiektu integralak

Osakidetzako zerbitzu-erakundeekin garatutako prestakuntza- eta kudeaketa-proiektuei dagokienez, 2015. urtean ondorengo ekintza hauek gauzatu dira:

- **Lidergo-ereduaren definizioa eta ezarketa**, erakunde bakoitzean lidergoa gauzatzearekin lotura duten lanpostu giltzarrietako gaitasunetan oinarrituta.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko liderren ebaluazioa bukatu da, Osakidetzako lidergo-eredua aplikatuz.

Esku-hartze eredu bat diseinatu da liderren lidergo-gaitasunak garatzeko.

E-Lider informatika-erremintaren garapena osatu da, lidergo-gaitasunen ebaluazioa kudeatzeko.

- **Prestakuntza-ibilbideen eredu estrategikoaren azterketa, analisia eta definizioa**. Paradigma aldaketa prestakuntzaren ikuspegian eta kudeaketan, profesionalen gaitasunak garatzera eta hobetzera zuzendutako prestakuntza-ibilbideen bitartez. Proiektuaren barruan, erizaintzako ibilbideko curriculumaren garapenean lan egin da.

2016. urtean zehar ereduaren hedapena bukatu da unitate hauetan: larrialdietako erizaintza, nefrologia-dialisiak, kritikoak eta ebakuntza-gelak. Unitate horietan, 1.790 profesionalak dituzte prestakuntza-plan pertsonalizatuak eskuragarri. Horiek 2016-2017 aldirako lehentasunezko prestakuntza-jarduerak barne hartzen dituzte.

Gainera, ospitalizazio mediko-kirurgikoaren 101 erizaintza-unitatetan ezarri da prestakuntza-ibilbidea, Osakidetzako zerbitzu-erakunde guztietan.

Ospitalizazio mediko-kirurgikoko unitateen ibilbidearen baitako 1.519 profesionalak prestakuntza-plan pertsonalizatua daukate 2017-2018 aldirako.

2016. urtean zehar, halaber, lehen mailako arretako erizaintzari dagokion ibilbidearen berrikuspena bukatu da. 2017an hedatuko da hori erakunde guztietara.

Azkenik, 2016. urtean, zeladoreen prestakuntza-ibilbidea definitzen hasi zen, analisi-metodologia berri baten bidez. Hala, zeladoreen kolektibo osoaren parte-hartzea sustatu da prozesuan zehar erreminta hauen bitartez: talde fokalak, kolektiboak burututako prestakuntzaren analisi dokumental historikoa, behatzaileen sarrera erakundeetan eta sareen sorrera prestakuntza-plataforman.

- **Giza Faktorearen garapena Osakidetzan**. Pazientearekiko tratuan eragina duten praktika profesionalen azterketa eta kategorizazioa harreman-kulturaren aldaketarako esku-hartze eredu definitzeko eta profesionalen artean esku-hartze programa bat hedatzea eredu ezartzeko xedearekin.

Lunbalgiaren inguruko asistentzia-bide baten osasun-emaizetan giza-faktorea sartzeak zer inpaktu duen ebaluatzen azterlana bukatu da, 2015. urtean hasitakoa. Azterlaneko ondorioen artean nabarmendu egiten da 2. astetik aurrera esku-hartze taldeko pazienteek puntuazio hobea zutela EBA eskalan, kontrol-taldeko medikuek artatutako pazienteekin alderatuz, eta joera hori progresiboa zela denboran zehar.

Gainera, azterlaneko bigarren mailako aldagaiei dagokienez, esku-hartze taldeko medikuek froga osagarri gutxiago erabiltzen zituztela hauteman zen, eta beraz, froga analitikoaren eskaera handia zegoela.

Bilakaera luzeko lunbalgia duten pazienteen inguruko azterlanak beharko lirateke prestakuntza horrek lunbalgia kronikoan zer inpaktu duen ezagutzeko.

- **Jakinsarea prestakuntza-plataforma**: Osakidetzaren prestakuntza-ataria. Erakundeko kideen eskura jartzen ditu hainbat baliabide, tresna, esperientzia, harreman-gune eta aukera, ikasketa partekatua eta ezagutza-trukea sustatzeko.

Jakinsarea Plataforma erakunde hauetan ezartzen hasi da 2016. urtean: Araba ESI, Arabako Osasun Mentaleko Sarea, Donostialdeko ESI, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI eta Barakaldo-Sestaoko ESI. Erakunde horien egiturazko plantillak 13.763 langile ditu guztira.

Diru-laguntzak profesionalen eta zerbitzu-erakundeen prestakuntzarako

2016an, prestakuntzarako eta ezagutzaren zabalkunderako laguntzetarako 2 deialdi argitaratu dira:

- 640/2016 Ebazpena, ekainaren 27koa, Osakidetza-EOZko zuzendari nagusiarena, langileen etengabeko prestakuntzako eta birziklapen profesionaleko ikasketak egiteko 2016ko ekitaldiari dagokion laguntza-programarako eskabideak aurkezteko deialdia ezartzen duena. 324 laguntza eman dira.
- 2016ko maiatzaren 11ko Ebazpena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duena. Diru-laguntzaren zenbatekoa 486.800,76 € izan da, eta horrekin finantzatu dira Osakidetzako zerbitzu-erakundeen prestakuntza-planak.

Lankidetz hitzarmenak prestakuntzaren alorrean

- **Osakidetzaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen Fundazioaren arteko Lankidetz Hitzarmena** sinatu da profesional sanitarioentzat zeharkako prestakuntza ziklo bat egiteko **Udako Ikastaroen XXXV. edizioaren** baitan.

«Osasuna, pertsonekiko konpromisoa» izenburuko programa 14 ikastarok osatu dute era 938 ikaslek hartu dute parte bertan.

- **Hezkuntza-kooperazioko hitzarmena** sinatu da **Mondragon Unibertsitatea-Enpresagintza** erakundearekin **Enpresen administrazio- eta zuzendaritza-graduan**.

Hitzarmen horren indarrez, praktiketan hartu da gradu horretako ikasle bat.

- **Lankidetz hitzarmena**, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren, Osasun Berrikuntza eta Ikerketaren Euskal Fundazioaren eta Deustuko Unibertsitatearen artekoa, 2015-2016 eperako osasun-arloko prestakuntza eta ikerketaren nahiz politika sanitarioen ingurukoa, **Osasun Kudeaketa Masterra** diseinatzeko eta ezartzeko.

Ikasleek Osasun Kudeaketa Masterraren amaierako 17 proiektu bukatu dituzte, Erakunde Zerbitzuetan garatu direnak.

Irakaskuntza-zentroetako izen-emateak eta matrikulak berariazko programak egiteko

Osakidetzako profesionalen matrikulazioa kudeatu eta finantzatu da ondorengo berariazko prestakuntza-programetan:

- 1.100 profesionalak eman duten izena FME - Familia Medikuntzaren Eguneraketarako prestakuntza-programan.
- 300 profesionalak eman dute izena LMAPPA - Lehen Mailako Arretako Pediatriaren prestakuntza aktiboan.
- 3 profesionalak eman dute izena Ikaskuntza Integraleko Metodologiaren Tailerrean (IIMT).
- 4 profesionalak eman dute izena Herri Administrazioetako Kudeaketa Aurreratuari buruzko VI. Kongresuan.
- 2 profesionalak eman dute izena «Aldaketa benetako partaidetzaren bitartez kudeatzea» ikastaroan.
- 2 profesionalak eman dute izena «Euskararekiko gizarte erantzukizuna akademiaren eta gizartearen kultura-aldaketa» ikastaroan.

Prestakuntzako Zerbitzu Korporatiboak gauzatutako beste jarduera batzuk

- **Parte hartu du** ondorengo organo eta batzordeetan:
 - Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua.
 - Osakidetza erakunde publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Prestakuntza Batzordea.
 - Bai Erakunde Zentralean eta bai Osasun Sailean, prestakuntzarako laguntza eskabideak baloratzeko batzordeetan.
- Lankidetzaz **Osasun Eskolarekin «Paziente Bizia»** proiektuan.
- Lankidetzaz Euskaliteko 5S Ebaluatzaileen Klubarekin.
- Lankidetzaz Barakaldo-Sestaoko ESIren Prestakuntza Jardunaldietan.
- Lankidetzaz Ebaluatzaileen Klubarekin Euskaliteko Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan.

Guk geuk ekoiztako online ikastaroen katalogoa

2016. urtean, Osakidetza berak ekoiztako online prestakuntza-katalogoan sartu dira honako ikastaro hauek:

- “Adingabeen alkohol-kontsumoaren prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan esku hartzeko programa”
- “Osakidetza hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak”

Ikastaro horien txertaketari esker, prestakuntza-katalogoa eguneratu egin da guk geuk ekoiztako online prestakuntza-programa hauekin:

Izendapena

Azalpeko gordailu benosoa daukan pazientearen arretari heltzea
Mendekotasunari heltzea eta tabakoari uzteko banakako teknikak
Hasierako asistentzia, sindrome koronario akutuaren susmoa dagoenean
Tabakoari buruzko aholku laburra
Kolon-ondeteko minbiziaren baheketa. Alderdi teoriko-praktikoak
Genero-indarkeriari buruzko oinarrizko ikastaroa osasun-profesionalentzat
Pazientearen segurtasunari buruzko oinarrizko ikastaroa
2. motako diabetes mellitusa
Farmakojagoletza
Zeladoreentzako prestakuntza
Eskuen higieena osasun-arretan zehar
Osanaia: erizaintzako metodologia eta zainketen kudeaketa
Erizaintzako metodologia eta zainketen kudeaketa erreferenteentzako Osanaia programaren bidez
Zu eta kronikotasuna
Osakidetza hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak
Presioaren ondoriozko ultzerak prebenitzea eta zaintzea
Preskripzio Unibertsala: errezeta elektronikoa
Adingabeen alkohol-kontsumoaren prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan esku hartzeko programa
Datu pertsonalen babesa osasungintzako erakundearen esparruan
Osasun Mentaleko errezeta elektronikoa
SAP Oinarrizko gidaliburua
SAP query
Sendagaiaren erabilera zuzena: paziente polimedikatuen zainketa integrala
Txertaketa

Ebaluazioa eta garapena

Profesionalen gogobetetzea neurtzea

Inkestaren edukietan doikuntzak egin dira, bai asebetetzearen itemetan, bai kolektiboaren segmentazio-esparruei dagozkien itemetan, online metodologiaren bidez horiek zerbitzu-erakunde guztietan aplikatzeko.

Inkestaren sustapenari eta aplikazioari dagokienez, Osakidetzako erakunde guztietako kolektiboetan, 2016an lehentasuna eman zaio arrisku psikosozialen ebaluazioari, eta beraz, pertsonen gogobetetzearen ebaluazioa egiteke geratu da.

Ebaluazio profesionala

Lanpostuak hautatzeko eta betetzeko erregulazio-esparruaren arabera, eta zerbitzuburu- eta atalburu-lanpostuen ebaluaziorako esparru-araudiaren proposamenean oinarrituta, **ezarpen-proposamen** bat egin da. Horretarako, ebaluazioaren hedapen-faseak, fase bakoitzean inplikaturako kolektibo profesionalak eta egikaritze-kronograma hartu dira kontuan.

Curriculum Vitae

CV aplikazioa hobetzeko proiektuaren garapena eta ezarpena

CVaren kudeaketarako **hobekuntza-proiektua** —2015ean definitua— 2016an ezarri zen, hiru jardun-lororen arabera.

1. CVaren aplikazioan hobekuntzak ezartzea

- **Edukien eguneraketak** gauzatu dira CVko informazio-esparru guztietan (prestakuntza, irakas-kuntza eta ikerkuntza). Horretarako, atal berriak, meritu-motak, erregistro-eremuak, aukera zabalgarriak, etab. gehitu dira.
- CVan eskuragarri daude **funtzionaltasun eta erabilera berriak**, merituak errazago erregistratzeko eta horiek hobeto baliozkotzeko asmoz, baita CVaren informazioa errazago ustiatzeko ere.

2. CVko merituak kudeatzeko eta baliozkotzeko prozedura

- «CVa kudeatzeko prozedura» eguneratu da.
- Prozedurari loturiko eskuliburuak, merituak baliozkotzeko eskuliburua, entitateen katalogoak, egiaztagirien irizpideak, etab. eguneratu eta hedatu dira, baita Profesionalentzako CV gida ere
- Erakundeentzako prestakuntza- eta hedatze-saioak egin dira CVaren kudeaketaren, merituen baliozkotzearen eta aplikazio informatikoan txertatutako hobekuntzen inguruan.

3. CVan erregistratutako informazioa ordenatzeko eta eguneratzeko prozesua

- CVan erregistratutako informazioa ordenatzeko eta eguneratzeko prozesu bat eratu da, informazio hori edukien eguneraketetara eta aplikazioan egindako hobekuntzetara egokitzeko, fase hauen arabera:

- CVan erregistratutako merituak berrikustea eta eguneratzea
- CVaren aplikazioan txertatzea eta profesionalek ikusteko aukera gaitzea (aurreko CVa eta eguneratutako CVa)
- Profesionalek egindako eguneraketak berrikusteko prozesua irekitzea, egin diren ego-kitzapenen gardentasuna eta zuzentasuna bermatze aldera

Giza Baliabideetako Informazio-sistemak

Giza Baliabideetako Aginte-koadroa.

Giza Baliabideetako Aginte-koadroaren ezarpenean aurrera egitea ikuspegi integralarekin, erakundeen arteko konparaketa ahalbidetzeko.

Giza-baliabideen zerbitzu korporatiboekin batera, **giza-baliabideen kudeaketaren jarraipena egiteko adierazleak berrikusi dira**, gastua, plantilla, kontratazioa, kideak, absentismoa, lan-osasuna, prestakuntza eta euskara barne hartuta.

2016an zehar, **txostenak** egin dira **hiru hilean behin**, giza-baliabideen kudeaketaren jarraipena egiteko definitu diren adierazleekin.

Pertsonen kudeaketarako **txosten eta adierazle** berriak **definitzeko eta garatzeko** prozesuak aurrera jarraitzen du **BW Analyzer erremintan**, zerbitzu-erakundeek eta korporazioak erabil dezaten.

2016an, antolaketarekin eta plantillarekin lotutako txostenak ezarri ziren, plantilla estrukturalari eta pertsona aktiboei, aldi baterako kontratazioari eta plantillaren plangintzari buruzko datuak ustiatze aldera (15 txosten).

Euskara zerbitzu korporatiboa

Osakidetzaren I Euskara Planaren plangintza-aldia bukatu ondoren, 2012an, ebaluazio orokorra egin zen, aztertzeko plan orokorraren eta zerbitzu-erakunde bakoitzak ezarritako moldaketen helburuak zein neurritan beteak ziren. Ebaluazioaren emaitzei erreparatuta, eta 67/2003 Dekretuari jarraituz, bigarren plangintza-aldiari ekin zitzaion; horretarako, Osakidetzaren II Euskara Plana idatzi zen, lorpenak sendotzeko eta prozesua helburu berrietarantz bultzatzeko.

Osakidetzaren II Euskara Plana 2013ko abenduaren 3an argitaratu zen, eta 2019ra arte egongo da indarrean; orduan, planaren ebaluazio orokorra egin beharko da. Beraz, plangintza-aldiaren erdian gaude une honetan, hau da, tarteko ebaluazioa egiteko garaian. Dena den, II Euskara Planari barneko ebaluazio etengabea egiten zaio hainbat bide jarraituz; horrela, posible da planak jasotzen dituen neurrien garapen mailaren irudi fidagarria izatea. Aipatutako tarteko ebaluazioaz gain, beste bi sistema ere erabiltzen dira: alde batetik Bikain ebaluazioa, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskalitek bultzatutakoa (erakunde guztiek tarteko maila lortu behar dute plangintza-aldi honetan), eta bestetik, kontratu-programa (oinarrizko harreman-dokumentua Osasun Sailarekin).

Kontratu-programa


Bertan “Euskara Plana” dimentsioa jasotzen da, 10 adierazlerekin. 2016an, kontratu-programan ezarritako helburuen betetze-maila %73,2koa izan da, aurreko urteko emaitzak 6,81 puntutan hobetuz. Hurrengo taulan 10 adierazleak ikus daitezke eta bakoitzean ESI guztiek lortu duten puntuazioa:

	2016ko batez bestekoa
D7.2. OSAKIDETZAKO II. EUSKARA PLANA	%73
Euskara Planaren garapena ZEan	%90
Inplikazioa eta Euskara Planari emandako bultzada	%72
Lehentasunezko izaera izanik, euskara derrigorrezkoa den lanpostuen gutxieneko %a betetzen ez duten unitateak	%94
Lehentasunezko izaera izanik, bere burua elebiduntzat jo duten zerbitzuak edo atalak	%76
Ospitaletako arreta espezializatua euskaraz ematen duten espezialitateen eskaintza	%53
Kontratututako zerbitzuetan jarritako hizkuntza baldintzen betetzea	%72
Ikastaro, tailer eta prestakuntza saio berezitan euskarak duen tokia	%61
Pazienteen eta erabiltzaileen aldetik asebetetze eta konformitate maila euskararen erabilerari dagokionean	69,54538
Langileen aldetik asebetetze eta konformitate maila euskararen erabilerari dagokionean	%60
Erakundearen proiektatutako irudian euskarak duen tokia	%75

Hurrengo grafikoak 2015 eta 2016 urteen arteko alderaketa egiten du, zerbitzu-erakundeetan Euskara Planaren hedapenari dagokionez, eta Euskara Planarekiko inplikazioari eta bultzadari dagokionez:

Zerbitzu-erakundeen Ikuspegia Euskara Planarekiko


Enfoque de las organizaciones con respecto al Plan de Euskera




Era berean, hurrengo grafikoan ikusten da zerbitzu-erakundeetan nolako eboluzioa izan duen Euskara Planaren hedapenak:

Euskara Planaren hedapena zerbitzu-erakundeetan

Despliegue de Plan de Euskera en las organizaciones de servicios




Azkenik, grafiko honetan emaitzen eboluzioa ikus daiteke:



Garbi ikusten da kontratu-programaren Euskara Plana dimentsioan ezarri diren adierazle guztietan eboluzio positiboa dagoela 2016an, 2015eko datuekin konparatuta.


Hizkuntza-gaitasuna

Gai honi dagokionez, Osakidetza-ren egungo egoeraren azalpen orokorrak ondoko irudia ematen du: betetzen duen lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileen kopurua %34aren inguruan dago, eta oso adierazgarria da Osakidetza-ren langile elebidunen kopuruak izan duen eboluzioa: 2006an, l Euskara Plana onartu zenean, % 11 zen, eta egun %34an gaude. Azken 10 urteetan, portzentajea %2 edo %3 igo da urtez urte.



Grafikoa: lanpostuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileak

Gauzak horrela, langile elebidunen kopurua aldakorra da inguru soziolinguistikoari erreparatuz gero; horrela, Gipuzkoan eta Bizkaiko ekialdean kokatuta dauden zerbitzu erakundeetan langile elebidun gehiago dago.



Eskatutako hizkuntza eskakizuna eskuratzeko erari dagokionez, aipatu beharra dago Osakidetzatik kanpo lortutako ziurtagirien baliokidetzak dela arruntena. Horrek esan nahi du profesionalek eskuratu dutela dagokien hizkuntza eskakizuna Osakidetza sartu baino lehen. Are gehiago, hizkuntza eskakizunak egiaztatze antolatzen ditugun deialdietan egiaztatzen diren ziurtagiriak ez dira egiaztapen guztien %25era heltzen. Horri gehitu behar zaio azken urteetan igo egin direla ikasketak euskaraz egiteagatik lortu diren baliokidetzak.

Osakidetza- HEak baliokotzeko ziurtagiriak	Interesdunak eskatutako baliokotzekak	Ofiziozko baliokotzekak (hautaketa- prozesuetatik) -langileak	Ofiziozko baliokotzekak (hautaketa- prozesuetatik) hautagaiak	Guztira
1. HEarekin	131	197	534	862
2. HEarekin	168	253	677	1.098
3. HEarekin	108	237	679	1.024
4. HEarekin	3	4	6	13
Ikasketen bidez	29	7+33+91=131	38+108+51=197	357
GUZTIRA	439	822	2.093	3.354

Gai honi lotuta, aipatu beharra dago hizkuntza-eskakizuna derrigorrez bete behar duten lanpostu kopurua Osakidetza, kopuru osoaren %37 dela (9.874).

	KOPURU ABSOLUTUA NÚMERO ABSOLUTO	EHUNEKOAK PORCENTAJE
Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuak	9.874	37,27
Plazas con perfil lingüístico preceptivo		
Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duten langileak	2.441	24,72
Empleados sin acreditar el conocimiento del euskera en plazas con perfil lingüístico preceptivo		


Lanpostu hauetako batzuetan lanean ari direnek oraindik ez dute egiaztatu hizkuntza-eskakizuna. Horiek dira hain justu euskalduntze prozesuetan parte hartzeko lehentasuna dutenak. Gauzak horrela, nabarmentzekoa da urtero prozesu horietan parte hartzen duten profesionalen kopurua 2.500 inguru izaten dela, lan orduetan edo lan orduetatik kanpo.

	LEKUAK	PERTSONAK
Programa trinkoak	252	155
Barnetegiak	6	3
2 orduko ikastaroak lanorduetan	69	65
Lanorduz kanpoko ikastaro presentzialak	1642	1.202
Lanorduz kanpoko ikastaroak (autoikaskuntza)	499	511
Udako ikastaroak	164	68
4. HE-eko ikastaroak	31	25
Diruz lagundutako HEO matrikulak	116	116
IVAPeko trebakuntza-ikastaroa Zuzendaritza Nagusian	4	4
Mintzapraktika ikastaroak Zuzendaritza Nagusian:		
-Otsailetik ekainera	24	10
-Urritik abendura	24	22
Ikastaro presentzialak zerbitzu-erakundeetan	170	170
GUZTIRA	3.001	2.351

Beste alde batetik, 2016an hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen izateko 16 eskaera jaso dira, 2/2014 Jarraibidea jarraituz. Horietatik, 9 onartu dira, bat lekuz aldatu da, eta 6 ez dira onartu lanpostuak ez duelako derrigortasun-datadun hizkuntza-eskakizunik.

Hizkuntza-eskakizunen atalari amaiera emateko, aipatu behar da gure erakundearen prestakuntza jasotzen duten eta segur aski etorkizun profesionala Osakidetzan garatuko duten langileen kasua (BAME, BAEE). Kasu askotan, espezializazio prozesuan ari diren bitartean edo are lehenago egiaztatu dute jadanik eskatzen zaien hizkuntza eskakizuna.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten egoiliarrek, kategoriaren arabera
Residentes que han acreditado el perfil lingüístico, por categorías



Hizkuntza Eskakizunak Egiaztatzeko azterketak

Beste urte betez, akordia sinatu da IVAParekin hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko bi deialdi arruntak IVAPak kudeatu ditzan. 2016ko lehen deialdian, 2014-2015 EPEari dagokion hizkuntza-eskakizunen deialdia ere egin da. Horrez gain, Osakidetza Euskara Planak agindutako 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ezohiko deialdiaren ebazpena argitaratu da (memoria honetako beste atal batean aztertzen da).

Ondorengo tauletan aipatutako deialdi horien emaitzak zehazten dira:

2016ko 1. deialdia	1. HE	2. HE	3. HE	4. HE	Guztira	%
Deituak	854	1261	261	26	2.402	
1. probara aurkeztuak	594	949	127	17	1.687	%70
Egiaztatuak	131	240	16	6	393	%23

2016ko EPEko deialdia	1. HE	2. HE	Guztira	%
Deituak	2.635	3.011	5.646	
1. probara aurkeztuak	1.185	1.668	2.853	%51
Egiaztatuak	323	440	763	%27

2016ko 2. deialdia	1. HE	2. HE	3. HE	4. HE	Guztira	%
Deituak	583	975	232	22	1.812	
1. probara aurkeztuak	337	596	98	11	1.042	%57
Egiaztatuak	101	132	12	3	248	%24

Hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data duten lanpostuen kudeaketa

2016an hainbat txosten aurkeztu dira Osakidetza Administrazio Kontseiluan eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan, lanpostuen hizkuntza-eskakizunak aldatzeko, edo derrigortasun-datak jarri, kendu edo aldatzeko. Lanpostuen euskara-ezaugarrien aldaketa horiek zerbitzu-erakundeek eskatu ondoren egin dira.

Hauek dira lanpostuen hizkuntza-eskakizunetan eta derrigortasun-datetan Osakidetza Administrazio Kontseiluak 2016an onartu dituen aldaketak:

Aldaketa mota	Kopurua
HE aldaketa	4
DD aldaketa	8
DD kentzea	52
DD jartzea	274

2016aren amaieran, 9.874 lanpostu daude Osakidetza derrigortasun-datarekin (egiturazko plantillaren %37,27).

Apirilean Euskara Zerbitzu Korporatiboaren derrigortasun-data eta HE kudeaketaren prozesua berregiaztatu zen ISO 9001:2008aren bitartez.

Itzulpenak eta interpretazioa

Itzulpen eta Interpretazio Zerbitzuak garrantzi nabarmena du Euskara Zerbitzu Korporatiboak; horren adierazgarri da aktibitate-erregistroak gora egin duela urterik urte. Ondorengo taulan islatzen da aktibitate hori:

Itzulpenak eskatu dituzten erakundeen kopurua	Eskatutako dokumentu kop.	Eskatutako orri kop.	Zenbatekoa
18	2.374	4.357	84.392,98

Zerbitzu-erakundeen itzulpen eskaerari buruz, honakoak dira datuak:

Erakundea	Dokumentu kop.	Orri kop.
Zuzendaritza Nagusia	1.938	3.510
Arabako Osasun Mentaleko Sarea	159	237
Erizaintza Eskola	84	222
Barakaldo-Sestaoko ESla	38	54
Barrualde-Galdakaoko ESla	32	82
Arabako ESla	32	61

Interpretazioak

2016an 19 interpretazio-saio egin dira; horietatik 5 Osasungintzako Mahai Sektorialaren bilerak izan dira.

Batzordeak-ekitaldiak Zuzendaritza Nagusian	Ekitaldi kop.
Mahai sektorialak	5
Aitorpenen banaketa - Euskararen Eguna	1
Berdintasunerako Batzordea	1

Interpretazio-zerbitzua eskatu duten erakundeak honakoak izan dira:

Erakundea	Zerbitzu kop.	Batzordea
Arabako ESla	4	Euskara Batzordea
Barrualde-Galdakaoko ESla	2	Hautaketa prozesua-defentsa / Euskararen Eguna
Bidasoko ESla	2	Jardunaldiak
Donostialdea ESla	1	Jardunaldia
BOMS	1	Jardunaldia
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla	1	EKALME biltzarra

Hizkuntza normalizazioko neurrien garapenean 2016an egindako aurrerapen nagusiak

Lehentasunezko hizkuntza ahozko komunikaziorako

Pazienteen lehentasunezko hizkuntza lehendik ere jasotzen zen Osakidetzaren informazio-sistemetan, baina ez zeukan inolako ondorio praktikorik. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzarekin adostu ziren egin beharreko aldaketak erregistroa behar bezala egiteko, eta horrela, gaur egun, euskara aukeratu duten pazienteei aukera hori agertzen zaie izenaren ondoan Osakidetzako aplikazio guztietan. Honekin adierazten da pertsona horrek euskaraz aritu nahi duela Osakidetzako zentro batera datorrenean izaten dituen ahozko harreman guztietan. Aldaketa hauekin batera, jarraibide bat bidali da zerbitzu-erakundeetara neurri honen garapena euren autonomiaren pean utziz; jarraibide horretan aholkatzen da euskara aukeratu duten pazienteei profesional euskaldunak esleitzea, egoerak hala ahalbidetzen duenean.

Herritarrei aukera honen berri emateko, kanpaina publiko bat bultzatu da Osasun Sailarekin elkarlanean, 2017an hedatuko dena. Bertan, lehentasunezko hizkuntza erregistratzeko aukeraren berri emateaz gain, non eta nola egin azaltzen da, eta erregistro hori egiteak zabaltzen dituen aukerak azaltzen dira.

Aipatzekoa da zerbitzu-erakunde batean (Debagoieneko ESI) eskualde mailako kanpaina bat bultzatu zela, inguruko udalekin eta euskalgintzan diharduten taldeekin elkarlanean, lehentasunezko hizkuntzaren erregistroa bultzatzeko. Harrera beroa izan du kanpainak: 2015ean %5a ziren euskara lehenetsita zuten herritarrak, eta 2016ko irailean %11,9.

2017ko urtarrilaren 2an, ahozko komunikaziorako lehentasunezko hizkuntza erregistratu duten 338.334 pertsonetatik, 113.618 dira euskara hautatu dutenak.

Historia kliniko elebiduna

Beharbada proiektu hau garatzeko zailena da, une oro jarraikortasun asistentziala errespetatu behar delako. Hala ere, aurrerapausoak eman dira hainbat arlotan.

Lan asistentzialerako erabiltzen diren estazio klinikoaren itzulpenean aurrera egin da (Osanaia eta Osabide). Halaber, ahalegina egin da Osakidetzak ematen dituen laborategiko txostenak estandarizatzeko eta euskarara egokitzeke, odol eta gernu analisiak batez ere. Itzulpen eta bateratze lan mardula ekarri du aipatutako honek guztiak.

EHUrekin elkarlanean, GNS 10 MC estandar klinikoaren itzulpenari ekin diogu; estandar hau gaixotasunen nazioarteko sailkapena da, eta nahitaez erabili beharrekoa da estatuko osasun sistema guztietan 2016tik aurrera. EHUrekin dugun lankidetzaren barnean dago Snomed CT ontologiaren itzulpena ere. Horren eskumena Osasun Ministerioarena da, eta Osakidetzak eta Ministerioaren artean abiatu den lankidetzak Snomed CT euskarara egokitzeke oso positiboa izan da: dagoeneko hiru lan-saio egin dira, non Snomed CTren ezagutza sakondu dugun eta euskarara egokitzeke oinarriak finkatu diren.

Eguneroko lanean euskara erabili nahi duten profesionalen laguntzeko asmoz, estazio klinikoetan Osabar izeneko tresna bat txertatu da; horren bidez, testuen itzulpen automatikoa egin daiteke, betiere Osakidetzaren itzulpen memorian badaude, eta Euskara Zerbitzu Korporatiboak erantzungo dituen hizkuntza-kontsultak edo itzulpen-eskaerak egin daitezke. Tresna 2016an garatu da, eta pilotajea eta hedapena 2017an egingo dira.

Atal honetan azaldu diren proiektuak aurrera eramateko ezinbestekoa izan da elkarlana, bai Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzarekin, bai Informatikako Zuzendariordetzarekin.

Zerbitzu eta profesional elebidunen informazio-kanpaina

Euskaraz bai sano! kanpaina bultzatu zenetik, 2011n, iritzia eskatu zaie bai profesionalen, bai erabiltzaileen zenbait erakundetan, eta emaitza positiboa izan da, nagusiki. Herritar elebidunak nagusi

diren zonalde soziolinguistikoetan batez ere, uste dute identifikazioak euskararen erabilerari lagundu egiten diola, eta frogatu ahal izan da erabilerak gora egiten duela profesionalak eta/edo zerbitzuak identifikatuta daudenean.

Hori dela eta, nabarmendu nahi da Euskaraz bai sano! kanpainaren euskarriak berritzeak duen garrantzia. 2016an jatorrizko kartelak berriro dira, oraindik ere funtsezko informazio-lana dutelako, eta beste euskarri batzuk ere birdiseinatu egin dira, adibidez norbanakoen identifikaziorako pinak. Halaber, euskarri berrien diseinuan indar berezia jartzen da, zerbitzu-erakundeek egiten dituzten iradokizunak kontuan hartuta (txartelak eramateko tresnak, serigrafiatzeko norbanakoen identifikagarriak...).

Euskararen erabilera bultzatzeko oinarritzko gidaliburuak

2012tik hona lan asistentzialerako tresna izan nahi duten zortzi gida argitaratu dira. Horietan, pazienteei izaten diren harremanetan, jorratzen den gaiaren inguruan hiztegi eta esamolde erabilienak lantzen dira. Euskara Zerbitzu Korporatiboak egiten ditu, eta urtean bi argitaratzeko ahalegina egiten da. Orain arte, hauek dira argitaratu diren gidak:

- Harrera
- Medikuntza orokorra
- Pediatria
- Larrialdiak
- Emagintza
- Ospitalizazioko solairuko erizaintza
- Fisioterapeutak
- Zeladoreak

Hurrengo bi gidak prestatzen ari gara jada; Psikiatria arloa eta Pertsonaleko Sailak jorratuko dira.

Beste argitalpen batzuk

Maila korporatiboan Osatuberri aldizkaria argitaratzen da; paperezko edizio bat du hilabete bikoitietan (5.000 ale): Osakidetza zentro guztietara banatzen da eta euskalduntze prozesuan dauden profesionalei ere bidaltzen zaie; edizio digital bat ere egiten da, hilabete bikoitietan, 4 orrialdekoa: edizio hau Osakidetza zentro guztiei bidaltzen zaie posta elektronikoz.

2016an paperezko edizioaren banaketa-zerrenden berritzea ekin zaio, hainbat ataletan zaharkituta zegoela baieztatu baitugu. Tolosaldea ESIko eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zerrendak berriro dira, eta hurrengoak izango dira Donostialdea eta Bidasoa ESIak, betiere erakundeetako euskara teknikariekin elkarlanean.

Zerbitzu-erakunde batzuk euren argitalpenak dituzte; horietan, edukiak ele bietan argitaratzen dira.

Ardura berezia duten tarteko agintari eta langileei zuzendutako prestakuntza modulua

Euskara planean jasotzen diren hizkuntza-irizpideen transmisio-lana ezinbestekotzat jotzen da. Zentzu horretan, garrantzitsua da tarteko agintariek euskara planeko edukien berri izatea, ondoren transmisio-lana egin dezaten euren pean dauden langileekin. Hori dela eta, on line prestakuntza modulu bat prestatu da, Osakidetza zentro guztietan ofizialen erabilera irizpideak izenekoa, eta 2017ko Prestakuntza Plan Korporatiboan txertatu da. 2016ko udazkenean diseinu-lanak bukatu ondoren, lan-talde bat osatu zen Osakidetza zentzuetako eta Osasun Saileko ordezkariekin modulua aztertzeko.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ezohiko deialdia (Europako hizkuntzen erreferentzia markoko B2)

Osakidetzan, harremanak ahozkoak dira oro har. Profesional askok, euskara erabiltzen dute pazienteekin dituzten harremanetan, baina, hainbat arrazoi tarteko, ez dute 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen. Profesional horiek guztiak euskara planera erakartzeko asmoz, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ezohiko deialdia prestatu da, ohiko deialdien ezaugarrietatik aldentzen dena. Proben hurrenkera eta izaera aldatu egin dira, betiere Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuak B2 mailarako (2. hizkuntza-eskakizunaren baliokidea) ezartzen duena errespetatuz.

Ahozko probak, lehenak prozesuan, 2017ko urtarrilerako daude aurreikusita. 341 langilek eman dute izena.

Osasunarekin zerikusia duten ikasketa akademikoak

Etorkizun laborala osasungintzan izango duten ikasketa akademikoetako ikasleei Osakidetza-ren hizkuntza-plangintza-ren berri emateko beharra detektatu zen (medikuntza, erizaintza, fisioterapiako unibertsitate graduak, erizaintzako laguntzaile lanbide heziketako moduluak...), eta lankidetzak bat ezarri zen EHUko Euskara eta Etengabeko Prestakuntzako Errektoreordetzarekin, Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin eta Lanekirekin. Lankidetzak horren ondorioz, eskuorri bat egin da ikasleen artean banatzeko, bai feriatan eta ate irekien jardunaldietan, bai matrikulazio-kanpainetan.

Beste ekimen batzuk ere jarri dira martxan, Osakidetza EHUko Euskara Errektoreordetzarekin eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin duen lankidetzaren ondorioz: Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamen bat onartu du lankidetzak-neurriak garatzeko Osakidetza, EHU eta LHko Sailburuordetzaren artean, bermatu nahi baita ikasleek praktikak euskaraz egin ahal izatea; lan-saioak egin dira EHUko osasun zientzietako fakultateetako arduradunekin eta osasun arloko moduluak eskaintzen dituzten LHko zentroetako arduradunekin; Osakidetza-ri eta euskarari buruzko solasaldi bat antolatu da, eta Osakidetza eta Lanekik materiala elkar trukatu dute lanbide-adar batzuetako euskarazko prestakuntzako ikasmateriala konpartitzeko.

Horrez gain, jardunaldi profesional batzuk antolatu dira, EHUko Uda Ikastaroen testuinguruan, Osasuna eta Hizkuntza izenburupean, osasun arretan hizkuntza-ren garrantziari buruz aritzeko. Jardunaldiok 2017ko ekainaren amaierarako daude aurreikusita.

Bikain kalitate-ziurtagiria, erakundeetan euskararen presentzia, kudeaketa eta erabilera neurtzeko

Osakidetza Euskara Planak zehazten du zerbitzu-erakunde guztiek pasatu beharko dutela Bikain ebaluazioa plangintza-aldi honetan, txosten honetan lehenago aipatu den legez. Orain arte, 10 erakundek egin dute Bikain ebaluazioa plangintza-aldia hasi zenetik, eta 9k lortu dute tarteko ziurtagiria, hau da, Euskara Planak ezarritako helburua. 2016an erakunde hauek lortu dute tarteko ziurtagiria: Debagoieneko ESI, Donostialdea ESI, Goierri-Urola Garaia ESI, Bidasoa ESI, Debarrena ESI eta Barrualde-Galdakao ESI. Horrez gain, Arabako ESIak oinarritzeko maila lortu du.

Aitormen jardunaldia

Urteroko jardunaldi bat ezarri da, euskararen sustapenean egindako lanarengatik nabarmendu diren erakunde, zerbitzu, pertsona edo proiektuak aitortzeko. Zerbitzu-erakundeei proposamenak egiteko eskatzen zaie, ondoren baloratu eta dagokien aitormena egiteko.

Abenduaren 1ean 2016ko edizioa egin da, eta 7 zerbitzu-erakundetako proiektuak aitortu dira. Horietatik, hiruren azalpena egin da. Jardunaldian Jon Zaratek parte hartu du, EHUko Euskara eta Prestakuntzako Errektoreordea bera, eta hizkuntza-normalkuntza-ren kanpoko ikuspegi bat eman du.

Aitormena jaso duten zerbitzu-erakundeak honako hauek dira: Debagoieneko ESI: "Osakidetza, nik euskaraz nahi dut" kanpaina; Barrualde-Galdakao ESI: ahozko komunikaziorako lehentasunezko hizkuntza-ren inguruko proiektua; Donostialdea ESI: "Ezagutzatik Erabilerara" eta "Gertu" programak; Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea: "Euskara, zubi bat osasunerantz" bideoa; Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESI: etengabeko

prestakuntzaren proiektua; Araba ESI: hainbat ekimen eta ahalegin; Barakaldo-Sestao ESI: “Euskara planaren integrazioan aurrera” proiektua.

Osakidetzako Euskara Plan Orokorrean garapen-batzordeak eta interes-taldeak

Maila korporatiboan, eta zerbitzu-erakundeetan ere, Euskara Plana garatzeko batzordeak osatu dira. Horietan Euskara Planeko neurriak egokiro betetzeko erabaki nagusiak hartzen dira. Erakundeko zuzendaritza guztietako ordezkariak hartzen dute parte bertan.

Zehazki, 2016ko ekainean eta azaroan, Osakidetzako Euskara Planeko Jarraipen Batzorde Korporatiboak bilerak egin ditu. Batzorde horretan zuzendaritza guztietako ordezkariak hartzen dute parte, eta baita ere Osasun Saileko ordezkariak, Informatika, Aholkularitza Juridikoa eta Lanak eta Zerbitzuak Zuzendariordetzetakoak, Komunikazio Unitatekoak eta Euskara Zerbitzu Korporatibokoak.

Batzorde horren bileraren ostean, interes-taldeei deialdia egiten zaie planaren garapenaren berri emateko eta Osakidetzan euskararen normalkuntzan konpromisoak adosteko.

Lankidetzak hitzarmenak

Hitzarmenak sinatu dira Mutuialarekin eta Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiekin, lankidetzak hitzarmen bat zehazteko euskararen erabileraren normalkuntzari dagokionean, eta elkarlanerako proposamenak aztertzeke.

Terminologia eta estandar klinikoa

2016an, Osakidetzako profesionalek zenbait talde teknikotan parte hartu dute eta Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeko terminologia-lanetan aritu dira (HIESaren, Traumatologiaren eta Desgaitasunen hiztegiak). Hiztegi horiek dagoeneko batzordeak aztertuta eta ontzat emanda daude. Horiez gain, osasun arloko 8 hiztegi (ginekologia, kardiologia, onkologia...) gehiagoren aurreneko bertsioa eginda dago (1. fasea), eta horien azterketan eta osaketan ere Osakidetzako profesionalek lagunduko dute, sortzen diren talde teknikoaren bitartez.

Gainera, Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboak bere plana eginda dauka hizkuntza plangintzako epe honetan (2016-2019) sortu beharreko terminologia-lanekin, Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordeak ontzat emandakoa. Hona hemen aurreikusitako lanen zerrenda:

- Proba klinikoen eta laborategikoen katalogoa
- Administrazio Sanitarioko Hiztegia handitzea eta eguneratzea
- GNS-10
- Erizaintzako NANDA, NOC eta NIC taxonomiak
- Medikuntza arloko siglak
- Snomed CT

Dokumentazio sanitarioaren estandarizazioa eta normalizazioa

Denbora luzea eman dugu ereduak dokumentuak batzen, erabiltzaileekin izandako harremanetan maiz erabilitako agirien estandarizaziorako. Hori eginda, 2016 urte hasieran Euskara Zerbitzu Korporatiboa eta Informazio Sanitarioaren eta Kudeaketaren Zuzendariordetzako mediku batek prozesu honetan landu beharreko dokumentuen zerrenda adostu zuten, dokumentu mota bakoitzeko hiruzpalau eredu hautatu zituzten, eta 2016ko maiatzean IVAPen Administrazioa Euskaraz atalaren (komunikazioan aditua dena) eskuetan utzi zuten; estandarizazio lanetan ari dira orain bertan.

Euskaraz lan egiteko trebakuntza ikastaroak

IVAPekin adostuta, izaera orokorreko edo zeharkako 4 trebatze ikastaro eskaini dira; 14 edizio, guztira. Gainera, 9 ikastaro gehiago ere eskaini dira Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboaren bitartez. Era berean, internetek eta sare sozialek hartu duten garrantziaz jakitun, berariazko ikastaroak antolatu dira Intraneteko, Estraneteko eta abarretako edukiak kudeatzeaz arduratzen diren langile teknikariak trebatu ahal izateko.

Trebakuntza programen garapena

Zerbitzu-erakundeetan bi hizkuntzetan lan egiten trebatzeko programak garatzeko asmoz, 2016an aukera eman zaie Euskara Zerbitzu Korporatibotik diru-laguntza jasotzeko. Finantzazio bateratu hori arautzen duen jarraibide bat argitaratu da. Programa hauek finantzatzeko erabiliko den diru-kopurua 39.695,47€koa da.

Euskalduntze ikastaro espezifikoak

Hizkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen Maramara elkarteak Mintzanet proiektuan parte hartzeko eskaintza egin digu. Osakidetzako langileak harremanetan jartzean datza proiektua, on line konektatu eta euskaraz hitz egiteko. Pilotua abiatuko da 2017ko hasieran, 3 hilabetez; helburua 10 bikote osatzea da, eta proba arrakastatsua bada, etorkizunean segida izango du.

Bestalde, zuzendaritza postuetan daudenentzako euskarazko trebakuntza eskaini egin da. On line izango da formazioa, eta lehen fasea 2017ko hasierarako dago aurreikusita, ekainera arte. Datorren ikasturtean segida emateko asmoa dago.

Hizkuntza eskubideak

Behin sartu zirenean hizkuntza-eskubideak Osakidetzako pazienteen eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren zerrenda ofizialean, eta horren ondoren indarrean sartu zenean 147/2015 Dekretua, Euskal osasun sistemaren barneko pertsonen Eskubide eta Betebeharren ingurukoa, 2016an eskubide eta betebeharrak nagusien errotulu ofiziala diseinatu da, eta bertan jasotzen dira baita ere hizkuntza-eskubideak. Zerbitzu-erakundeetan dagoeneko hasi dira errotulu hau jartzen aurrekoen ordez.

Unitateetako berariazko euskara programak

Euskara Planean ezarritakoa betez, Euskara Zerbitzu Korporatiboak unitatearen arabera Euskara programa berariazko baten erdua sortu du (Euskara Planaren oinarritzko irizpideak zerbitzu edo unitate bakoitzean praktikara eramateko programa), bai eta horiek betetzeko eta praktikan jartzeko jarraibide zerrenda egin ere. Agiri horiek 2016ko otsailean bidali zitzaizkien zerbitzu-erakundeetako teknikariei eta euskara arduradunei egoki iritzitako ekarpenak egin zitzaizkion, eta horren ondotik jarraibide bat egitea erabaki zen horren bidez arautzeko neurri hau zerbitzu-erakundeetako unitateetan nola transmititu eta hedatu behar den. Jarraibidearen zirriborroa egin zen; hala ere, oraindik ez gaude ziur dokumentua bere horretan bidaltzearen eraginkortasunaz, ez baldin bazaie bidaltzen jakinarazpen argi bat, xehetasun guztiekin, erdi mailako arduradunei eta unitate buruei, horren bitartez azaltzeko hizkuntza ofizialen erabilera irizpideak. Hortaz, jarraibidea aurrerago martxan jartzea erabaki dugu, Hizkuntza ofizialak Osakidetzan erabiltzeko irizpideei buruzko online ikastaroa bideratzen joan arte. Nolanahi ere, zerbitzu-erakunde batzuetan martxan jarri da euskara programa eredu hau hainbat unitatetan.

Ardura lanpostuetan euskararen ezagutzaren eskaera

Ikuspegi juridiko batetik zalantzak sortzen zituzten zuzendaritzako postuei eta arduradunei euskara eskatzeko egindako proposamenek, 2016an gaia Giza Baliabideetako juristen esku uztea erabaki zen, hori arautuko duen jarraibide bat sor zezaten. Jarraibidearen zirriborroa 2016aren amaieran aurkeztu zen, eta neurria, 2017an onartu.

Aholkularitza zerbitzu-erakundeei

Euskara Planaren neurriak bultzatzeko zerbitzu-erakundeei eman beharreko aholkularitza teknikoari dagokionez, 2016ko urtarrilean, hala zuzendari medikoei eta pertsonalekoei nola euskararen normalizaziorako teknikariei jarraibide formala bidali zitzaien; bertan azaltzen dira euskarazko espezialitate medikoen eskaintza abiarazteko eta garatzeko irizpide nagusiak.

Kexen erregistroa eta jarraipena

Ondorengo taulan 2016an jasotako kexak zehazten dira, jatorriaren eta eragin-eremuaren aipamenarekin:

JATORRIA	2016
NORBANAKO BAT	
BEHATOKIA	127
ELEBIDE	118
ARTXIBATZEKO	21
GUZTIRA	245

ERAGIN-EREMUAK	2016
ARRETA ESPEZIALIZATUA	233
ZUZENDARITZA NAGUSIA	11
OSASUN SAILA	1
LEHEN MAILAKO ARRETA	
ARTXIBATZEKO	21
GUZTIRA	245

Adostuta geneukala Eusko Jaurlaritzaren Elebide zerbitzuarekin behin betiko testua, hizkuntza-eskubideak urratzearekin lotutako kexak erregistratzeko eta horien jarraipena egiteko protokolorako testua izango dena, Osasun Sailak zenbait aldaketa egin zituen. Testu berriak Osakidetzaaren Administrazio Kontseiluaren oniritzia jaso zuen, beraz, protokoloaren sinadura-ekitaldia antolatzea baino ez da geratzen; lehenik, Elebiderekin, eta bigarrenik, Behatokiarekin.

Euskara Planaren tarteko ebaluazioa

Ikusita II. Euskara Planaren tarteko ebaluazioa plangintzaren aurreneko hiru urteak bete direnean egin behar dela, 2016ko abenduan, udan ekin zitzaion beharrezko izapideak egiteari eta ebaluazioa egingo duen enpresa adituak beharko dituen txostenak prestatzeari.

Enpleguaren ataria

Tresna edo erremintaren berrikuste lanetan jarraitu da, berori osorik hartuta; bai eta funtzionalitate berriak eskaintzen ere.

Adibidez, eduki berriak sartu dira laneko osasunaren arloan, horien artean, osasun-txostena, txertoen kartilla eta laneko istripuen zerrenda.

Era berean, 2016. urtean zehar, Enpleguaren Ataritik –zerbitzu-erakundeek % 100ean– eskakizunak izapidetzeko funtzionalitatearen aurkezpena amaitu da.

Garatu beharreko bi funtzionalitate berri identifikatu dira, hala nola, profesionalen kontratazioa kudeatzeko funtzionalitatea, eta guardia aldaketarako funtzionalitatea.

Kontratazioa kudeatzeko funtzionalitateari dagokionez, bere definizioari eman zaio hasiera.

Hobekuntzaren kudeaketa

Giza Baliabideen Zuzendaritzan, urtean zehar, prozesuen eraginkortasunaren eta efizientziaren hobekuntzan jarraitu da lanean, eredu parte-hartzaileetan oinarritutako kudeaketa-sistema eta estandar nazional eta nazioartekoen peko akreditazio-sistemak sustatuz, eta sormena eta berrikuntza bultzatuz, ezagutza trukeen eta elkarrekiko sorkuntzaren bitartez.

Ilido horretan, bere prozesu korporatiboak berrir ziurtatzeko ziklo berri bat hasi da, bere kudeaketa-sistemaren irismenean dauden eta ISO 9001 ziurtagiria daukaten neurrian. Honako hauek dira prozesuak:

- Ordainsari-kudeaketaren prozesu korporatiboa
- Lanpostuetako hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten kudeaketako prozesu korporatiboa
- Enplegu eskaintza publikoaren prozesu korporatiboa
- Lekualdatze-lehiaketaren prozesu korporatiboa

Kanpoko auditorien prozesua ondorengo zerbitzu-erakundeetan gauzatu da:

1. Arabako OMS
2. Debagoieneko ESla
3. Bilbo-Basurtuko ESla
4. Enkarterri-Gurutzetako ESla
5. Zuzendaritza Nagusia

Urtero bezala, auditorien prozesua sareko zerbitzu-erakundeek zati batean gauzatu da, hiru urteko aldian erakunde guztiak –% 100– auditatzeko konpromisoarekin.

Lan-osasuna

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Plana

Prebentzioaren arloko 2013-2016 aldirako ildo estrategikoek, Giza Baliabideak Antolatzekeo Planean deskribatutako segurtasun eta osasuneko 8. lerroan adierazitako ekintzekin batera, aurrera egiten jarraitu dute aurtan

Jarraian, 2016ko aurrerapen horren puntu nagusiak adierazten dira.

Faktore psikosozialak ebaluatzea

Arrisku psikosozialeko faktoreen ebaluazioa, hasiera-hasieratik, erakundearen lerro estrategikoa izan da eta, hortaz, jarduketarako lerro korporatibo eta global modura diseinatu eta planifikatu izan da denbora guztian Zerbitzu Korporatibotik.

Arrisku psikosozialei aurre egiteko estrategia berri bat diseinatu da Osakidetzan eta fase hori gauzatzeko Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren metodologia –FPSICO 3.1.– erabili da.

Giza Baliabideen Zuzendaritzak metodo hori aurkeztu zien langileen ordezkariak, Osakidetzan faktore psikosozialen ebaluazioa egiteko erreminta modura, Osakidetza Segurtasun eta Osasuneko Batzorde Korporatiboan.

2015eko azaroaren 16an, Segurtasun eta Osasuneko Batzorde Korporatiboaren bilera bat egin zen. Bilerara bertaratu ziren guztiek –bai Zuzendaritzako kideek eta bai prebentzioko ordezkariak–, 2016ko urtaril-otsailean abian jartzea adostu zuten, eta langile guztiak gonbidatzea esandako ebaluazioan parte har zezaten Segurtasun eta Osasuneko Batzorde Korporatiboak guztiei zuzendutako gutun baten bidez.

Kronograma jarraituz, Osakidetzan faktore psikosozialen ebaluazioa egin ahal izateko datuak biltzeko fasea otsailaren 8tik maiatzaren 31ra bitartean agitu zen.



Faktore psikosozialek eragina izan dezakete langilearengan, alde batetik, horiei buruz duen pertzepzioaren eta, bestetik, horiei erantzuteko langileak dituen gaitasunen arabera. Hau da, erakundearen egoera «psikosoziala» ez da objektiboki dauden baldintzei buruzkoa soilik; aldiz, kontuan hartzen du norbanakoak nola hautematen eta esperimintatzen dituen ere.

Giza Baliabideen Zuzendaritzak ebaluazioa enplegatu guztiei zuzentzea aukeratu du funtsezko hiru arrazoi hauengatik:

- Enplegatu-zerrenda osoari ahalik eta gehien doitzen zaion diagnostikoa lortzea.
- Lantoki eta unitate ugari eraberrituak 21 zerbitzu-erakunde osatzen duten Korporazio baten antolakuntza-konplexutasun guztia aintzat hartzea, kontuan izanik berorien eguneroko jarduerak oso desberdinak direla beren izaera, kokaleku edo osasun-erakundearen barruan (emergentziak, larrialdiak, EAG, lehen mailako arreta, ...) eman behar duten erantzun motaren arabera.


- Diagnostiko bat egin ahal izatea, eta ez soilik erakunde guztia osorik hartuta, baizik eta profesionalen profil desberdinak alderatuz.

Hori guztia abiapuntutzat balioko digun eta pertsonatik ahalik eta hurbilen dagoen diagnostiko bat edukitzeko helburuarekin, hori bai, anonimotasuna babestuz.

Bestalde, gogoan izan behar da prozesuan parte hartzea guztiz borondatezkoa dela. Alegia, galdetegia kolektibo osoari zuzenduko bazaio ere, profesional bakoitzak askatasunez eta bere borondatez erabakiko du prozesuan parte hartu edo ez.

Erakunde guztia aldi berean ebaluatzeko ikuspegi horrekin lan egin duen osasun-erakunde publiko bakarra Osakidetza izan da. Izan ere, bere tamaina kontuan hartuta, bere profesional guztiei zuzendutako faktore psikosozialen ebaluazioa egin baitu, sistema berritzaile bat erabilita, zeinak, eraginkortasun handiz, **% 30eko erantzun maila** gaindituz, profesionalak hautematen duten egoeraren lehen diagnostiko bat egitea ahalbidetu baitu.

Jaso den baliozko galdetegien kopurua 10.466koa izan da. *(FPSICO metodoko ITEM guztiei erantzuten dietenak hartu dira baliozkotzat)*



Profesionalen parte-hartzea – Informazio Sistemak

Erasoen behatokia

Erasoen behatokiaren bilerak mantentzeko konpromisoari eutsi zaio, Osakidetza profesionalen egindako erasoekin lotura duten ekintzak tratatzeko mahai tekniko espezifiko gisa. Hala, bi bilera egin ditu Behatokiak, 2016ko martxoaren 16an bata eta uztailaren 18an bestea. Datuak emateaz gainera, profesionalen egindako eraso motak modu zabalagoan nola sailkatu diren azaldu da. Era berean, gertakari horiek hainbat ikuspuntutatik aztertzeko saiakera egin da, analisia errazteko eta, horrekin batera, neurriak proposatzeko.

Prebentzioko ordezkari zuzendutako prestakuntza

Osakidetza Prebentzioko ordezkari zuzendutako Laneko Arriskuen Prebentzioko prestakuntzaren barruan, prestakuntza-ikastaro berri bat egin zen 2016ko urtarrilaren azken aldera. Prebentzioko 17 ordezkari hartu zuen parte guztira eta guztiek gainditu zuten prestakuntza-ikastaroa.

Enpleguaren ataria

Enpleguaren Atarian sarrera berri bat jarri da abian aurrean (Lan-osasuna). Sarrera horretan, aipaturako atariaren bitartez, langileek hainbat alderdi kontsulta ditzakete beren osasunaren inguruan, besteak beste, «txertaketa-kartilla», jasandako «lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak», eta norberaren osasun-azterketaren data eta iraunaldia. Gainera, txosten horiek paperean inprimatzeko aukera ere badago.



OHSAS 18001 Ziurtagiria

Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren akreditazioa ezartzen jarraitu da, OHSAS 18001 arauaren arabera, Osakidetza zerbitsu-erakundeetan, Osakidetza proiektu estrategiko gisa.

OHSAS PROIEKTUAREN AURRERAPENAREN ADIERAZLEAK

Ondoren adierazten diren adierazleak metatu daitezkeenak dira:

- LAP kudeatzeko sistemaren barne-auditorien adierazlea:**
Barne-auditoria egina duten ZE kop. = % 90 (18/20).
- OHSASen kanpoko ziurtagiriaren adierazlea:**
OHSASen kanpoko ziurtagiria egina duten ZE kop. = % 60 (12/20).
- Giza Baliabideen Zuzendaritzak egiaztatutako LAP kudeatzeko Osakidetza sistemaren barne-auditoreak:**
Egiaztatutako barne-auditoreen kopurua = % 95 (76/80)

Adierazleen deskribapena:

Adierazleentzako definituriko xedeak 2015. eta 2016. urteetarako planifikatu ziren arren, horiek betetzea lortu ez den kasuetan 2017ra arte luzatu dira.

Horrela, 1. adierazlearen kasuan, LAP kudeatzeko Osakidetzako sistemaren OHSASen barne-auditoretza egitea ezarri zen zerbitzu-erakunde guztietan (% 100). 2016. urtean, zerbitzu-erakundeek % 90ean egin dira OHSASen barne-auditoretzak, eta bi erakundetan egiteke geratu dira 2017. urterako (Arabako Errioxako ESla eta Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko zentroa).

2. adierazleak, berriz, beste helburu bat du ezarrita: OHSASen kanpoko ziurtagiria lortua izatea zerbitzu-erakundeek % 75ean. 2016. urtean zehar, 10 zerbitzu-erakundek mantendu dute beren OHSAS ziurtagiria, eta zenbaitek ziurtagiriaren irismena zabaldu dute. Hauek dira erakunde horiek: Bidasoko ESla (osorik), Uribeko ESla (osasun-zentroak-lehen mailako arreta), Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea (irismen osora zabaldu da), Barrualde-Galdakaoko ESla (Galdakaoko ospitalea), Barakaldo-Sestaoko ESla (osorik), Goierri-Urola Garaiko ESla (irismen osora zabaldu da) eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla (osasun-zentroak-lehen mailako arreta).

Tolosaldeko ESla (osorik), Donostialdeko ESla (osasun-zentroak-lehen mailako arreta) eta Gorkizko Ospitalea (osorik). Gainera, 2016an bi zerbitzu-erakunde berriak lortu dute LAP kudeatzeko Osakidetzako sistemaren OHSASen ziurtagiria, Santa Marina Ospitaleak (osorik) eta Debarreneneko ESla (osorik).

Hirugarren adierazleari dagokionez, 2016rako helburu bat ezarri zen: OHSASen barneko 80 auditore prestatzea Osakidetzako zerbitzu-erakundeek barne-auditoretzak egiten direla bermatzeko. Gaur egun, 76 barne-auditore aktibo ditugu, Giza Baliabideetako Zuzendaritzak egiaztatuak, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan aipatutako auditoriak egiteko; beraz, planifikatutako helburuaren % 95 beteta dago jada.

Gaitasunak Baloratzeko Batzordea

2016an argitaratu da 608/2016 Ebazpena, ekainaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinak Osakidetzan lanpostuan jarduteko gaitasuna baloratzeko batzordea sortzen zuen aurreko 1466/2012 Ebazpena aldatzen baitu.

Ebazpen horrekin, batzordean parte hartzen duten kideak berritzeaz gainera, berorren konposizioa aldatu da, izan ere, aurrerantzean, batzordekideak eta idazkaria ez ezik, hautaketa eta hornikuntza saileko ordezkari bat izango baitu. Oso beharrezkoa ikusi da hori egoera bakoitzari erantzun egokia eman ahal izateko, askotan, EPETik edo kontratazio-zerrendetatik datozen kasuak izaten baitira.

Gaitasunak Baloratzeko Batzordeak 3 bilera egin ditu 2016an zehar, eta 83 kasu berri tratatu ditu guztira.

Kasu kopurua: 83 kasu berri eta berrikuspen 1 (54 emakumezko/30 gizonezko)

- Elbarritasun mailaren bat dutenak: 72
- Elbarritasun gabeak: 9
- Ezintasun Iraunkorra dutenak: 3

Batzordeak kasu batzuetan eta besteetan eman dituen gaitasun emaitzak hauek izan dira:


- Ez-gai kasuak: 3
- Gai direnak: 25
- Gai baina oharrekin: 46 (*horietako 13 Proba / Jarraipen Aldian*)
- Zehaztu gabe: 10 (*informazio gehiagoren zain ebazteke dauden kasuak*)

Osasun Azterketak

Ondorengo azterketa hauek egin zaizkie langileei, haien osasuna zaintzeko xedearekin, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan:

URTEA	GUZTIZK.	HASIERAK.	ALDIZKARIAK	EPE	Eskak. Zuz.	>65u	Haurd.	BESTE
2016	15.789	3.790	10.407	181	8	140	420	843

Aplikatu diren zainketa-protokolo espezifikoak honako hauek izan dira:



Lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak

Urtean zehar ondoren adierazten diren datuok jakinarazi dira:




URTEA	LAN ISTRIPUAK			LANBIDE GAIKOTASUNA
	GUZTIZKOA	BAJARIK GABE	BAJAREKIN	GUZTIZKOA
2016	3.940	2.670	1.270	16

Horien artean, 971 istripu biologiko jaso dira guztira.

Istripu-indizeak

Istripu-indizeak aurrez ezarritako izendatzaile erkide baten arabera kalkulatzen dira, gero datuak alderatu ahal izateko.

Ondoren, azkeneko 3 urteetako maiztasun-indizeen joera, intzidentzia eta larritasuna adierazten dira:



Profesionalen aurkako erasoak

Osakidetzak, duela 13 urte, 2003an, bere profesionalen aurkako indarkeria-egoeratarako jarduketa-protokolo bat onartu eta Laneko Arriskuen Prebentzioko kudeaketa-sisteman txertatu zuen. Hala, horrelako egoerei ekiten zien erakunde aitzindari bihurtu zen, bai eta eraso baten biktima ziren langileei aboktu-laguntza ematen ere.

Nahiz eta (*"PT-AT02 – Protocolo de actuación. Violencia en el Trabajo"*) protokoloa 2006an eta 2009an berrikusi zen, beste berrikuspen oso bat egiten ari da orain, titulu berri batetik hasita, non lantokiko indarkeriari egiten zaion erreferentzia orokorraren ordeztu profesionalen egindako erasoak berariaz aipatuko diren.

Laneko gorabeheratzat hartzea eta Osakidetzaren Lege Aholkularitza bermatzeko oinarritzko ildoak mantendu beharko ditu. Lege Aholkularitzaren zereginak, kasu horietan, erasoak jasan dutenei lege arloko aholkuak ematea, salaketa jartzera doazenean laguntzea eta profesional horiek izango duten epaiketan defentsa lanak bere gain hartzea izango dira.

Aurten, Osakidetzan lan egiten duten 47 pertsonari eman zaie aholkularitza eta/edo defentsa juridikoa, ondoren zehazten den bezala:


– Mediakak:	19
– Erizaintza:	8
– Erizaintzako laguntzailea:	6
– Zeladoreak:	10
– Beste kategoriak:	4

47 jarduketetatik, 16 gorabehera soilak izan dira, non aholkularitza juridikoa eman den baina salaketarik ez den jarri; beste 31k, berriz, judizializatuta daude 25 prozesutan.



Ondoren jasotzen dira Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuaren Oinarritzko Unitateetan deklaraturako erasoei dagozkien datuak, urtean zehar.

ZERBITZU-ERAKUNDEAK	GORABEHERAK	ISTRIPUAK	BAJA GABE	BAJAREKIN	GUZTIZKOA
Z. Nagusia	1	0	0	0	1
Larrialdiak	1	1	1	0	2
Arabako ESla	35	19	17	2	54
Debagoieneko ESla	9	3	3		12
Arabako OMS	2	7	7		9
Arabako Errioxako ESla	1				1
Donostialdeko ESla	27	5	5		32
Bidasoko ESla	3	2	2		5
Goierri - Urola Garaiko ESla	8	0			8
Debabarreneko ESla	9	3	2	1	12
Gipuzkoako OMS	11	4	4		15
Uribeko ESla	12	0			12
Bizkaiko OMS	35	26	15	11	61
Santa Marina Ospitalea	3	4	2	2	7
Gorlizko Ospitalea	4	1	1		5
Bilbo-Basurtuko ESla	96	26	15	11	122
Barrualde - Galdakaoko ESla	39	11	10	1	50
Barakaldo - Sestaoko ESla	17	3	1	2	20
Ezkerralde-Enkarterri-Cruces ESla	37	8	7	1	45
GUZTIZKOA	350	123	92	31	473

Gainera, **intzidentzia-indizeak** (izandako erasoak 1.000 langileko) aurkezten dira gehiengoa diren lanbide-taldeetan:



Ondorengo tauletan bilduta daude, **laneko eremuen** arabera, izandako erasoen ondoriozko mota desberdinetako istripuak eta gorabeherak.



Txerto-programa arrisku biologikoei aurre egiteko

Langileei jarritako txertoei dagokienez, honako hauek dira datu esanguratsuenak:

DOSIAK GUZTIRA	BHB	TETANOS	GRIPE	AHB eta A+B	BESTE
12.771	1.777	1.232	7.960	1.675	127

Osasun-arrazoien ondoriozko lekualdatzeak

Honako hauek dira gure erakundeetan aurkeztutako kasu guztien datuak

2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
139	142	119	140	121	77	62	101	100

Erosketa Batzorde Korporatiboan parte hartzea

Laneko arriskuen prebentzio-irizpideak zerbitzu-erakundeetako Erosketa Batzordeetan txertatzea eta materialak (eskularruak, maskarak, etab.) erosteko prozesu zentralizatuko orri teknikoen garapenean parte hartzea, Zerbitzu honen helburuetako bat izan da hainbat urtez. Modu horretan, gai honen inguruko araudia betetzen dela ziurtatu nahi da, eta erositako materialak ongi egokitzen direla Osakidetza langileek erabili ditzaten.

Era berean, Prebentzio Zerbitzua elkarlanean aritu da *“Guía – manual de uso adecuado de guantes sanitarios”*, 2016ko berrikuspenaren garapenean, norberaren babeserako ekipamendu horien erabileran segurtasuna bermatze aldera.



Gizarte-arloko jurisdikzioa

Izapidetutako auzi-eskeak eta horien egoera

GAIA	Kop.	EBAZT.	ALDEK.	KONTR.	ERREKUR. EBAZT.	ALDEKO ERREKUR.	KONTR. ERREKUR.
Alta medikoak	10	5	4	1	0	0	0
Antzinatasuna	89	83	5	1	0	0	0
Bidegabeko zenbatekoak	1	0	1	0	0	0	0
Karteldegia	2	2	0	0	0	0	0
Kargu-uzteak eta kaleratzeak	10	4	4	0	2	0	0
Langileen aldi baterako kargu-uzteak	4	4	0	0	0	0	0
Gatazka kolektiboa	2	1	0	1	0	0	0
Soldata-aldeak	18	11	2	5	0	0	0
Segurtasun-neurrien gabeziak	1	0	0	0	1	0	0
Lan-finkotasuna	1	1	0	0	0	0	0
Ezintasuna eta baliaezintasuna	30	14	9	4	3	0	0
Askatasun sindikala	1	1	0	0	0	0	0
Gizarte Segurantzako prestazioak	2	1	1	0	0	0	0
Gastuak itzultzea	22	15	2	1	1	2	1
Oporrak, lizentziak eta baimenak	2	1	1	0	0	0	0
Beste batzuk	1	1	0	0	0	0	0
GUZTIRA	196	148	26	14	5	2	1

EBAZT. = Epairik gabe

ALDEK. = Aldeko ebazpena

KONTR. = Kontrako ebazpena 1.an

ERREKURTSOA EBAZT. = Erregutze-errekurtsua Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian edo kasazio-errekurtsua Auzitegi Gorenean

ALDEKO ERREKUR. = Aldeko epaia erregutze- edo kasazio-errekurtsuan

KONTR. ERREKUR. = Kontrako epaia erregutze- edo kasazio-errekurtsuan

IKERKETA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA

Osakidetza, harengandik jaiotako Osasun Ikerkuntzarako Institutuak (Biodonostia, BIOCRUCES eta Bioaraba) eta Kronikgune dira euskal osasun-sistema publikoko I+G+b jarduerak egikaritzen dituzten erakunde nagusiak. Biodonostia eta BIOCRUCES Carlos III.a Osasun Institutuak egiaztatu ditu 2011n eta 2015ean, hurrenez hurren.


Gure osasun-erakundean gauzatzen diren ikerketa eta berrikuntzei buruzko datuak Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioak (BIOEF) emandakoak dira, hori baita mota honetako jarduerak osasun-sisteman sustatzeko eta koordinatzeko tresna nagusia.

BIOEF erakundeari esleitu zaio Euskadiko osasun-sistema publikoaren ikerketa- eta berrikuntza jardueraren kudeaketa-gomendioa. Bera da, hortaz, arlo honetako «erakunde korporatiboa», kudeaketa-prozedura homogeneoak koordinatzen eta normalizatzen baititu Osakidetza I+G+b-ko erakunde guztiekin (Biodonostia eta BIOCRUCES institutuak eta Kronikgune) partekatzen duen ikerketa eta berrikuntza kudeatzeko tresna informatiko berberaren inguruan. Guzti horri esker, BIOEFek esparru honetan gertatzen denaren informazio globala eskain diezaioke osasun-sistemari.

Ikerketa-proiektuak

2016an aktibatuta egon diren laguntzak eta ikerketa-proiektuak

Proiektuak eta gainerako eskabide aktiboak (giza baliabideak eta azpiegiturak barne), 840 izan ziren 2016an, 45.360.625 euroko balioarekin aipatutako proiektuak guztiz gauzatzeko (hiru urte, batez beste). Zifra horietatik kanpo gelditzen dira farmazia-industriak sustatutako –edo sustatu gabeko– saiakuntza klinikoak, horiek geroago aipatuko direlarik.




Saiakuntza klinikoak


2016an abian jarri diren azterlan klinikoak 186 izan dira; horrek esan nahi du 287 kontratu sinatu dituztela exekuzioaz arduratzen diren zentroek (azterlan gehienak zentro anitzekoak dira).

Zentroen arabera banaketa kontuan hartuta, EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla da azterlan gehien dituen erakundea. Ondoren datoz DONOSTIALDEKO ESla, BILBAO-BASURTUKO ESla, ARABAKO ESla eta BARRUALDE-GALDAKAOKO ESla, hurrenkera horretan.

Azterlan motei erreparatuta, % 40 sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak dira, % 41 baimendu osteko azterlanak, % 10 baimendu aurrekoak, eta % 7 osasun-produktuekin egindakoak eta % 2 ikerketa-proiektuak. Finantzaketa moduari dagokionez, azterlan klinikoak % 86 komertzialak dira (farmazia-industriak sustatu eta finantzatutakoak) eta % 14 azterlan kliniko ez-komertzialak.



15 zerbitzutan biltzen dira 2016an abian jarritako azterlanen % 85 inguru:



Bolumen ekonomikoari dagokionez, azterlan klinikoak kontzeptuan 2016an fakturatutako zenbatekoa 2.409.251,65 eurokoa izan da guztira.

Finantzaketa

Emandako urte anitzeko lehiakortasunerako Europako funtsak

Nazioarteko finantzaketa duten (Europakoa, batik bat) proiektu aktiboak 41 dira 2016an. 7.098.788,64 euroko diru-laguntza dute guztira eta Euskadiko Osasun Sistema Publikoan gauzatu dira. Abian dauden 41 proiektu horietatik 2 gure osasun-sistematik koordinatzen dira*.

EXPEDIENTE ZK.	PROIEKTUAREN IZENA	PARTE HARTZEN DUTEN ZENTROAK
UE/2013/CHRODIS-JA	JOINT ACTION ON CHRONIC DISEASES	BIOEF
UE/2013/CAREWELL*	MULTI-LEVEL INTEGRATION FOR PATIENTS WITH COMPLEX NEEDS	OSASUN SAILA/ DONOSTIALDEKO ESla/ BILBAO-BASURTUKO ESla/ SANTA MARINA OSPITALEA/ BIOCRUCES INS. – EZKERRALDEA- ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla/ URIBE KO ESla/ DEBAGOIENENKO ESla/ / OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA/KRONIKGUNE
UE/2012/WORKFORCE	FORECASTING HEALTH WORKFORCE NEEDS FOR EFFECTIVE PLANNING IN THE EU- JOINT ACTION	OSASUN SAILA
UE/2012/DISCHARGE	DIAGNOSTIC IMAGING STRATEGIES FOR CORONARY ANGIOGRAPHY IN PATIENTS WITH STABLE ANGINA: COMPARATIVE EFFECTIVENESS RESEARCH OF EXISTING TECHNOLOGIES (DISCHARGE) - A PRAGMATIC RANDOMISED CONTROLLED TRIAL	OSASUN SAILA/BILBAO-BASURTUKO ESla/ BIOEF
UE/2013ANTeS	ACCELERATING NEUROMUSCULAR TREATMENT SELECTION	BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE- ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla
UE09/GRIP261060	GRIP-GLOBAL RESEARCH IN PAEDIATRICS	BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE- ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla
UE10/NEOCIRC282533	DOBUTAMINE FOR NEONATAL CIRCULATORY FAILURE DEFINED BY NOVEL BIOMARKERS	BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE- ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla
UE/2013ECRIN-IA	EUROPEAN CLINICAL RESEARCH INFRASTRUCTURE NETWORK - INTEGRATING ACTIVITIES	BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE- ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla
UE/2013/CIG	THE CD300 FAMILY OF RECEPTORS IN HIV INFECTION	BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE- ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla
UE/2012/SOX-BMI	ROLE OF SOX9-BMI1 IN ADULT NEURAL STEM CELLS AND IN GLIOMA STEM CELLS	BIDONOSTIA INST. – DONOSTIALDEKO ESla
UE/2013/AICR-SOX	FUNCTIONAL CHARACTERIZATION OF SOX2-P27 INTERACTION IN NORMAL AND CANCEROUS STEM CELLS	BIDONOSTIA INST. – DONOSTIALDEKO ESla

UE/2013/ASSEHS*	ACTIVATION OF STRATIFICATION STRATEGIES AND RESULTS OF THE INTERVENTIONS ON FRAIL PATIENTS OF HEALTHCARE SERVICES	OSASUN SAILA/BARRUALDE-GALDAKAOKO ESIA/BILBAO-BASURTUKO ESIA/URIBEKO ESIA/BIDASOKO ESIA/ BIOCRUCES INS. - EZKERRALDEA-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESIA/OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA/KRONIKGUNE
UE/2012/REFERENCESITE	BASQUE COUNTRY CANDIDATE REFERENCE SITE OF THE EUROPEAN INNOVATION PARTNERSHIP ON ACTIVE AND HEALTHY AGEING (EIP AHA)	KRONIKGUNE/ OSASUN SAILA
UE/2012/SMARTCARE	JOINING UP ICT AND SERVICE PROCESSES FOR QUALITY INTEGRATED CARE IN EUROPE	OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA/DEBAGOIENAKO ESIA/ KRONIKGUNE
UE/2013/PRE-START	A PILOT PROJECT FOR DEVELOPING AND IMPLEMENTING SUCCESSFUL PREVENTION STRATEGIES FOR TYPE 2 DIABETES	OSASUN SAILA/ BIODONOSTIA INS. – DONOSTIALDEKO ESIA/BIDASOKO ESIA/TOLOSALDEAKO ESIA/ / KRONIKGUNE
UE/2012/UNITED4HEALTH	UNIVERSAL SOLUTIONS IN TELEMEDICINE DEPLOYMENT FOR EUROPEAN HEALTH CARE	BILBAO-BASURTUKO ESIA/ BARRUALDE-GALDAKAOKO ESIA/ ARABAKO ESIA/BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESIA/SANTA MARINA OSPITALEA/OSATEK/ OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA/KRONIKGUNE/BIOEF
UE/2012FemNAT-CD	NEUROBIOLOGY AND TREATMENT OF ADOLESCENT FEMALE CONDUCT DISORDER: THE CENTRAL ROLE OF EMOTION PROCESSING	BILBO-BASURTUKO ESIA
UE12/ANGELAB317635	A NEW GENETIC LABORATORY FOR NON-INVASIVE PRENATAL DIAGNOSIS	BILBO-BASURTUKO ESIA/ BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESIA/BIODONOSTIA INS. – DONOSTIALDEKO ESIA
UE/2013/MASTERMIND	MANAGEMENT OF MENTAL HEALTH DISORDERS THROUGH ADVANCED TECHNOLOGY AND SERVICES - TELEHEALTH FOR THE MIND	LM LEHEN MAILAKO ARRETAKO ETA ARRETA KOMUNITARIOKO ZUZENDARIORDETZA/GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA/ BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA/BARRUALDE-GALDAKAOKO ESIA/BIODONOSTIA INS. – DONOSTIALDEKO ESIA/ARABAKO ESIA/OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA/UPV-EHU/KRONIKGUNE
UE/2013/CANCON	JOINT ACTION-EUROPEAN GUIDE ON QUALITY IMPROVEMENT IN COMPREHENSIVE CANCER CONTROL	OSASUN SAILA/ OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA/
UE/2014/CAPN3_CA	TARGETING CALCIUM HANDLING PROTEINS IN LGMD2A MUSCULAR DYSTROPHY	BIODONOSTIA INST. – DONOSTIALDEKO ESIA


UE/2015/EMERGE-JA	JOINT ACTION: EFFICIENT RESPONSE TO HIGHLY DANGEROUS AND EMERGING PATHOGENS AT EU LEVEL	BILBO-BASURTUKO ESla
USA/2014/MJFF10189	STUDY BY NEUROIMAGING OF CARRIERS OF E46K MUTATION OF ALPHASYNUCLEIN GENE AS A MODEL OF IDIOPATHIC LEWY BODY DISEASE	BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla
UE/2015/I-MOVE-plus	I-MOVE+ INTEGRATED MONITORING OF VACCINES EFFECTS IN EUROPE: A PLATFOTM TO MEASURE AND COMPARE EFFECTIVENESS AND IMPACT OF INFLUENZA AND PNEUMOCOCCAL VACCINES AND VACCINATION STRATEGIES IN THE ELDERLY	OSASUN SAILA/ BIODONOSTIA INS. – DONOSTIALDEKO ESla
UE/2015/CHRONICITY VALLEY	CHRONICITY VALLEY	BIOEF
UE/2012/HEALTH/IBD-CHARACTER	IBD-CHARACTER: INFLAMMATORY BOWEL DISEASE CHARACTERIZATION	BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla
UE/2015/FIC3/SEIZSAFE	SEIZSAFE: A PATIENT-AUTO ADAPTIVE SYSTEM FOR DETECTION, RECORDING AND ALERT TO CAREGIVERS OF NIGHT-TIME SEIZURES, LINKED TO PRIVATE CLOUD PLATFORM FOR PATIENT TRACKING AND BIG DATA	BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla
UE/2015/ACT AT SCALE	ADVANCING CARE COORDINATION AND TELEHEALTH DEPLOYMENT AT SCALE	OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA/KRONIKGUNE
UE/2015/C3CLOUD	A FEDERATED COLLABORATIVE CARE CURE CLOUD ARCHITECTURE FOR ADDRESSING THE NEEDS OF MULTI-MORBIDITY AND MANAGING POLY-PHARMACY	OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA/BILBO-BASURTUKO ESla OSI URIBE/ OSI ALTO DEBA/ I. BIODONOSTIA – OSI DONOSTIALDEA/ OSI TOLOSALDEA/ KRONIKGUNE
UE/2016/EASL	EUROPEAN REGISTRY DATA COLLECTION ON CHOLANGIOCARCINOMA	BIODONOSTIA INST. – DONOSTIALDEKO ESla
UE/2015/ECSEL/ASTONISH	ASTONISH- ADVANCING SMART OPTICAL IMAGING AND SENSING FOR HEALTH	BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla
UE/2015/EUNETHTA-JA3	HEALTH TECHNOLOGY ASSESSMENT COOPERATION	OSASUN SAILA/BIOEF
UE/2015/PARAFISCHONTROL	ADVANCED TOOLS AND RESEARCH STRATEGIES FOR PARASITE CONTROL IN EUROPEAN FARMED FISH	ARABAKO ESla
UE/2015/REFBIO2	RED TRANSFRONTERIZA DE INVESTIGACION BIOMEDICA DE LOS PIRINEOS 2 - HACIA LA TRANSFERENCIA EFECTIVA DE RESULTAODS DE LA I+D BIOMEDICA Y SU VALORIZACION EN EL ESPACIO PIRINEOS	BIOEF/ BIODONOSTIA INS. – DONOSTIALDEKO ESla/ BIOCUCES INS. - EZKERRALDEA-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla
UE/2015/SCIROCCO	SCALING INTEGRATED CARE IN CONTEXT	OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA/ARABAKO ESla/OSATEK/ KRONIKGUNE
UE/2015/STARR	DECISION SUPPORT AND SELF-MANAGEMENT SYSTEM FOR STROKE SURVIVORS	BIOCRUCES INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla

UE/2015/SYSPHARMPEDIA	SYSTEMS PHARMACOLOGY APPROACH TO DIFFICULT-TO-TREAT PEDIATRIC ASTHMA	BIODONOSTIA INST. – DONOSTIALDEKO ESla
UE/2015/TITTAN-INTERREG	NETWORK FOR TECHNOLOGY, INNOVATION AND TRANSLATION IN AGEING	BIOEF/KRONIKGUNE
UE/2016/H2020/MIDAS-BD	MEANINGFUL INTEGRATION OF DATA, ANALYTICS AND SERVICES	OSASUN SAILA/ OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA/ BIOEF
UE/2016/ITN/TRAIN-2	TRIBBLES RESEARCH AND INNOVATION NETWORK	BIOEF
UE/2015/MAGIC	MOBILE ASSISTANCE FOR GROUPS & INDIVIDUALS WITHIN THE COMMUNITY - STROKE REHABILITATION	GORLIZKO OSPITALEA/ OSAKIDETZA - EROSKETA PUBLIKO BERRITZAILEAREN BULEGOA

Proiektu aktiboen kanpoko finantzaketa-iturriak

2016eko proiektu aktiboen urte anitzeko kanpoko finantzaketaosatzen duten 45,3 milioi euroek honako jatorri hauek dituzte:

Kanpoko finantzaketako iturriak



- EAP: Euskal Administrazio Publikoa
- EAO: Estatuko Administrazio Orokorra
- EB/Nazioart.: Europako Batzordea – Nazioartekoak
- E. prib.: Erakunde pribatuak
- BEPB: Beste erakunde publiko batzuk

Argitalpen zientifikoak

Ondoren deskribatzen diren datuak nazioarteko datu-baseetan indexatutako dokumentuei buruzkoak dira, Scopus, WOS eta Pubmed datu-baseetatik atera dira eta 2015/01/01etik 2015/12/31ra arteko aldiari dagozkio. Adierazi beharra dago, hemen aurkezten diren emaitzek mugak dituztela; izan ere, euskal osasun-sistemako profesionalek datuak biltzeko estrategia desberdinak jarraitu dituzte. Bildutako erreferentziak Excel 2007 programaren bidez kudeatu dira.

Ateratako datuak baliozkotu ondoren, 1.135 artikuluko zientifiko erregistratu dira, eta horietatik 995 inpaktu-faktorea duten aldizkarietan argitaratu dira.

Kuartilen arabera banaketa honako hau da:

Cuartil	Nº publicaciones	%
Q1	554	48,8%
Q2	185	16,3%
Q3	162	14,3%
Q4	94	8,3%
Sin FI	140	12,3%
Total	1.135	100,0%



Inpaktu-faktorea duten artikuluen % 85,6 nazioarteko aldizkarietan argitaratu da.

Euskal Biobankua

Euskal Biobankua (www.biobancovasco.org) Osakidetzaren plataforma bat da, BIOEFek kudeatutakoa. Oinarrizko ikerketa klinikoa sustatzeko bideratua dago, prebentziorako, diagnostikorako eta itxarpeutikoen aurkikuntzarako tresnen sorrera errazteko asmoz. Sare-biobanku baten moduan funtzionatzen du, Osasun Sailburuaren 2015eko uztailaren 13ko Aginduari arabera eta 6/2016 Instrukzioari jarraituz. Laborategiak ditu Osakidetzako ospitale nagusietan, ikerketara bideratutako laginak eta datuak hartzeko, prozesatzeko, biltzeko eta lagatzeko.

2016an, Euskal Biobankuaren funtzionamendua berriz ere baimendu du Osasun Sailak uztailaren 7ko 135/2015 Dekretuaren arabera.

Biobankuaren **jarduera** lau ekintza-ildotan oinarritzen da nagusiki:

- Ikerketa biomedikorako erreminta:
 - Diagnostikoetako lagin-soberakinen edo etorkizuneko proiektuei lotutako laginen sarrera kudeatzea, edo bildumak berariaz sortzea.
 - Laginen irteera kudeatzea, ikerketa-proiektuen eskarien (lagapenen) arabera.
- Jasotako eta lagatutako laginen kalitate teknikoaren bermatzea: kalitatea bermatzea erregistro-, prozesamendu-, mantentze- eta banaketa-prozesuetan.
- Betebehar etiko eta legalak bermatzea: baimen informatuak jasotzen direla eta iritien diren laginak indarrean dagoen legedia betetzen duten proiektuetara bideratzen direla bermatzea.
- Biobankuaren funtzionamendua hobetzea I+G+b proiektu propioen garapenaren bidez, lagin biologikoen eta horiei lotutako ikerketa biomedikotarako kalitate altuko datu klinikoen eskaria igo egin baita.

1. Ikerketa biomedikorako erreminta

1.1. Laginen sarreraren kudeaketa

Euskal Biobankuak, Osakidetzako, Osasun Saileko eta Onkologikoko 240 medikuren elkarlana ez ezik, lagin-hornitzaileen eta 16 nodo-koordinatzaileen lankidetzatza izan du. 60.528 emaileren laginak erregistratu ditu, 652 patologiararen arabera sailkatuak, eta emailak 588.963 alikuota izan dira.

Euskal Biobankuaren nodo bakoitzaren ekarpena

Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla – Biocruces Institutua

Biobankuko emailen % 26,20 zentro honetatik dator. Emailak horiek zerbitzu mediko kirurgiko hauetatik datoz: hematologia (% 51), neurologia(10%), endokrinologia (% 7), digestioa (% 5), kirurgia orokorra (% 11), pediatria (% 5) eta arnas aparatua (% 2).

Donostialdeko ESla – Biodonostia Institutua

Biobankuko emailen % 31,58 zentro honetatik dator. Emailak horiek zerbitzu mediko kirurgiko hauetatik datoz: neurologia (% 33), digestio-aparatua (% 40), obstetrizia eta ginekologia (% 10), genetika (% 5), oftalmologia (% 3) eta neurokirurgia (% 2).

Bilbo-Basurtuko ESla

Biobankuko emailen % 9,55 zentro honetatik dator. Emailak horiek zerbitzu mediko kirurgiko hauetatik datoz: urologia (% 40), kirurgia orokorra (% 10), digestioa (% 37), pneumologia (% 4), dermatologia (% 3), neurologia (% 2) eta immunologia (% 1).

Barrualde-Galdakaoko ESla

Biobankuko emaileen % 8,31 zentro honetatik dator. Emaile horiek Galdakao-Usansoloko ospitaleko zerbitzu mediko kirurgiko haueetatik datoz: endokrinologia (% 24), obstetrizia eta ginekologia (% 24), pneumologia (% 20), kirurgia orokorra (% 10) eta hematologia (% 6).

Arabako ESla

Biobankuko emaileen % 11,10 zentro honetatik dator. Emaile horiek zerbitzu mediko kirurgiko haueetatik datoz: loaren nahasmendurako diziplinarteko unitatea (% 30), kardiologia (% 14), obstetrizia eta ginekologia (% 22), psikiatria (% 6), genetika (% 10), gaixotasun infektzioak (% 5) eta gaixotasun metabolikoak (% 6).

Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa


Biobankuko emaileen % 11,60 zentro honetatik dator

Euskal Biobankuak, era berean, populazioko lagin-bilduma handiak kudeatzen ditu, besteak beste, jaioberrien baheketaren populazioko lagin-soberakina eta beste bilduma batzuk: EPIC, INMA, PREDIMED, etab. Horrez gain, 2016an 90 garun-emate jaso dira Ehun Neurologikoen Emaileentzako Programaren bitartez.


1.2. Laginen irteeraren kudeaketa

Biobankuaren oinarritzko funtzioa da laginak (lagapenak) ematea indarrean dagoen esparru etiko eta legalean eskatutako baldintzak betetzen dituzten proiektuei eta ikertzaile klinikoekin elkarlanarekin burutzen direnei. 2016an zehar, biobankuak 241 lagin-eskabide kudeatu ditu (115 eskari 2016an hasiak, eta gainerakoak aurreko urteetatik indarrean) eta 42.640 alikuota laga dizkie.

Euskal Biobankuko nodo bakoitzak 2016an lagatako alikuota kopurua



Aktibo dauden 241 lagin-eskabideen banaketa, jatorri geografikoa eta proiektuaren ikertzaile nagusiaren zentroa aintzat hartuz



Laginen sarreraren eta irteeraren inguruko hobekuntzak

- OSABIDEn lagin-eskabideak egiteko gune bat gehitu da, horiek bidaltzeko eta biobankuan prozesatzeko, lehen mailako arretatik eta arreta berezitik, biokimika-frogekin batera, eta Gaixotasun Arraroen Erregistroan.
- Datuak biltzeko koaderno elektronikoko bat sortu da, azterlan bakoitzaren aldagai multzoaren arabera ad hoc diseina daitekeena; hala, datuen zentro anitzeko bilketa ahalbidetzen du.
- Prozedura berriak txertatu dira: DNAREN erauzketa mikrobioma fekaletik, gaixotasun arraroak edo neurodegeneratiboak dituzten pazienteentzako fibroblastoen hazkuntza zelularrak, eta tumoreak aztertzeko *tissue microarrays* delakoak.
- Biobankuaren web orriko online lagin-katalogoa hobetu egin da, eta egunero gaurkotzen da.

2. Kalitate teknikoaren bermea

Aldian-aldian gauzatzen diren barneko kalitate-kontrolez gain, International Society for Biological and Environmental Repositories (ISBER) nazioarteko kalitate-programan sartu da Biobankua.

3. Berme etikoa eta legala

100 eskaeratik gora erantzun dira aholkularitza eta informazio tekniko, zientifiko eta etikoa emateko, ikerketarako giza-laginen harreraren, biltegiatzearen eta kudeaketaren inguruan.

Baimen informatuen eredu berriak sortu dira adingabeentzat, gaixotasun arraroak dituzten pazienteentzat eta Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko emaleentzat.

4. Euskal Biobankuan garatutako proiektuak biobankuen teknologiaren inguruan

- DIAPA proiektua: anatomia patologikoaren irudiaren digitalizazioa biobankuen kudeaketan. CDTIk diruz lagundua.
- Bigdatius proiektua: datu klinikoen erabilera egoera teknologiko eta zientifiko berrien aurrean: «aukera eta inplikazio zientifikoak». Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak diruz lagundua.
- Osasun-datuak eta ikerketa-proiektuetan sortutako omikoak berrerabiltzea, horiei erabilera klinikoa emateko eta analitika aurreratuei buruzko etorkizuneko proiektuetan erabiltzeko Osasun Sailak diruz lagundua.

Osasun-zentro bakoitzeko ikerketa-jarduera

Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla – Biocruces Institutua

Euskal osasungintzan ikerketa-bolumen handiena duten bi zentroetako bat da: ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 25, eta finantzaketa guztiaren % 26,59 (saiakuntza klinikoak kenduta). Zentroak 97 ikertzaile nagusi ditu, eta 12 milioi euroko balioa duten 210 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Finantzaketa-iturri garrantzizkoena Estatuko Administrazio Orokorra da, abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 37,19 baita haren ekarpena. Europatik datorren finantzaketa % 23,9 da, Euskal Administrazio Publikoarena % 17,79, Estatuko nahiz Euskadiko beste erakunde publiko batzuen % 1,55, eta erakunde pribatuena % 19,56.

Zentro honetan, 2016an zehar, 67 azterlan kliniko berri jarri dira abian; hau da, Osakidetza azterlan berri guztien % 23. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera, azterlan gehien egiten dituzten 4 zerbitzuak –azterlan guztien % 45– honako hauek dira: onkologia medikoa % 15, neurologia % 15, digestio-aparatua % 7 eta lehen mailako arreta % 7. Analisia azterlan mota kontuan hartuta egiten badugu, % 45 sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak dira, % 51 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak, eta % 4 beste era bateko ikerketak.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software-garapenak. Ondorengo zerbitzu hauetatik datozen bi patente familia aktibo ditu: Dermatologia («*Larruazaleko melanomaren diagnostiko eta pronostiko metodoa*» Europako Patentea, eskabidean, Bilbo-Basurtuko ESlekin elkarlanean garatua, gaur egun negoziazio-prozesuan dago lizentziadun posibleekin) eta Anatomia Patologikoa («*Irudi histologikoen analisia*» PCT nazioarteko patentea, jada eskatua, Bilbo-Basurtuko ESlekin, Barrualde Galdakaoko ESlekin eta Arabako ESlekin elkarlanean garatua, Euskal Biobankuarekin eta EAEko teknologia-zentro batekin batera). Era berean, Genetika Zerbitzuaren bi garapen ere baditu, know-how lizentzia eman zaienak («*Ataxiak diagnostikatzeko kit-a*» eta «*Distrofia miotonikoa diagnostikatzeko kit-a*»; bi garapen horiek ez dira patente bidez babestu baina merkatuan daude jada eta sistemarako itzulkin ekonomikoak sortzen ari dira).

Bestalde, zentroko zorro teknologikoaren parte dira Bizkaiko Lehen Mailako Arretako Ikerketa Unitateko (BLMAIU) eta Biocruces Institutura atxikitako zenbait ikertzailek sortutako software garapen bat («*Agindu Bizimodu Osasungarria – ABO*» softwarea, komertzialki ustia dezan Espainiako enpresa bati lizentziatu zaiona eta marka erregistratua duena) eta Metabolismo Unitatearen beste garapen bat («*Hiperamonemia diagnostikatu eta tratatzeko gida informatizatua*» softwarea).

Osakidetza I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biocruces-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2016an 96 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 23,3.

Donostialdeko ESla – Biodonostia Institutua

Euskal osasungintzako zentro ikertzaile handiena da: ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 36,79, eta finantzaketa guztiaren % 33,83 (saiakuntza klinikoak kenduta). 116 ikertzaile nagusi ditu eta 15,3 milioi euroko balioa duten 309 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Zentroaren kanpoko finantzaketan Euskal Administrazio Publikoaren ekarpena da nagusi: orain abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 39,76. Europatik datorren finantzaketa % 6,58 da; Estatuko Administrazio Orokorrena % 36,52; erakunde pribatuen finantzaketa % 13,79 da, eta beste erakunde publiko batzuen ia % 3,35.

2016an zehar 66 azterlan kliniko berri jarri dira abian; hau da, Osakidetza azterlan berri guztien % 23. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera, azterlan gehien egiten dituzten 5 zerbitzuak –azterlan guztien % 65– honako hauek dira: onkologia medikoa % 20, digestio-aparatua % 15, neurologia % 12,

gaixotasun infekziosoak % 9 eta kardiologia % 9. Analisia azterlan mota kontuan hartuta egiten badugu, % 47 sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak dira, % 39 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak, % 12 osasun-produktuen azterlanak, eta % 2 ikerketa-proiektuak.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software-garapenak. Ondorengo zerbitzu hauetatik datozen hiru patente-familia aktibo ditu: Onkologiaren Ikerketa Esparrua («*Mutazioak hautemateko gailua*» Europako Patentea, eskabidean, negozioazio-prozesuan dago merkataritza-ustiapenerako lizentzia jasotzeko) eta Neurozientzien Ikerketarako Esparrua, zeinak bi patenteren eskaera egin baitu, («*Adrenoleukodistrofiaren diagnostikoa eta tratamendua*» Europako patentea, eskabidean, negozioazio-prozesuan dago lizentziadun posible batekin merkataritza-ustiapenerako lizentzia lortzeko, eta «*Triazoles for muscle contraction regulation*» Espainiako Patentea, eskabidean).

Halaber, Mikrobiologia Zerbitzuaren garapen bat ere badu («*Pneumokokoaren kit serotipatua*», know-how gisa lizentziatu zaio estatu-mailako enpresa bati; merkatuan dago eta Osasun Sistemarako itzulkin ekonomikoak sortzen ari da.

Osakidetzako I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biocruces-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2016an 143 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 34,7.

Bilbo-Basurtuko ESIa

Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 10 garatzen du, eta osasun-sareko kanpo-finantziazio guztiaren % 9,07 lortzen du (saiakuntza klinikoak kenduta). 42 ikertzaile nagusi ditu, eta 4,1 milioi euroko balioa duten 84 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Estatuko Administrazio Orokorren ekarpena orain abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 21,32 da. Aipatzekoa da Europatik datorren finantzaketa, % 37,73, eta Euskal Administrazio Publikoarena, % 27,23.

2016an zehar, 56 azterlan kliniko berri jarri dira abian; hau da, Osakidetzako azterlan berri guztien % 19. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera, azterlan gehien egiten dituzten 4 zerbitzuak –azterlan guztien % 59– hauek dira: neurologia % 16, erreumatologia % 13, onkologia medikoa % 11 eta kardiologia % 11. Analisia azterlan mota kontuan hartuta egiten badugu, % 41 sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak dira, % 50 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak, % 7 produktu sanitarioarekin egindako azterlanak eta % 2 ikerketa-proiektuak.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software-garapenak. Ondorengo zerbitzu hauetatik datozen bi patente-familia aktibo ditu: Dermatologia Zerbitzua, Ezkerraldea Enkarterri Gurutzetako ESI – Biocruceseko Dermatologia Zerbitzuarekin elkarlanean, («*Larruazaleko melanomaren diagnostikorako eta pronostikorako metodoa*» Europako Patentea, eskabidean, merkataritzan ustiatzeko lizentziadun posibleekin negoziatzeko/lizentziadunak bilatzeko prozesuan) eta Anatomia Patologikoaren Zerbitzua («*Irudi histologikoen analisia*», PCT nazioarteko patentea, jada eskatua, Bilbo-Basurtuko ESIrekin, Barrualde Galdakaoko ESIrekin eta Arabako ESIrekin elkarlanean garatua, Euskal Biobankuarekin eta EAEko teknologia-zentro batekin batera).

Gainera, Pediatria Zerbitzuan sortutako bi software garapen ere baditu («*Haurrengan asma diagnostikatzeko eta hasierako tratamendurako gida informatizatua*» eta «*Haurren asmaren tratamendurako eta hurrengo kontroletarako gida informatizatua*»); baita Barrualde-Galdakaoko ESIko Ikerketa Unitatearekin batera, Ikerketa Unitatean garatutako software/praktika klinikorako gida bat ere («*Aldaka-belaunean esku hartzeko algoritmoa*» zeinak baimena lortuta uen Euskadiko Osasun Sistematik kanpoko osasun-erakunde batek erabili dezan).

Osakidetzako I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biocruces-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2016an 34 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 8,3.

Barrualde-Galdakaoko ESla

Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 6,19 garatzen du, eta osasun-sareko kanpo-finantziazio guztiaren % 4,94 lortzen du (saiaakuntza klinikoak kenduta). 32 ikertzaile nagusi ditu, eta 2,5 milioi euroko balioa duten 53 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Estatuko Administrazio Orokorraren ekarpena orain abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 57,38 da. Europatik datorren finantzaketa: % 1,89koa da, eta Euskal Administrazio Publikoarena % 35,85.

2016an zehar, 27 azterlan kliniko berri jarri dira abian; hau da, Osakidetzako azterlan berri guztien % 9. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera, azterlan gehien egiten dituzten 4 zerbitzuak –azterlan guztien % 63– hauek dira: kardiologia % 26, lehen mailako arreta % 15, onkologia medikoa % 11 eta pneumologia % 11. Analisia azterlan mota kontuan hartuta egiten badugu, % 22 sendagaiekin egindako saiaakuntza klinikoak dira, % 70 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak, eta % 7 produktu sanitarioarekin egindako azterlanak.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software-garapenak. Patente familia aktibo bat du Anatomia Patologikoen Zerbitzutik datorrena («*Irudi histologikoen analisia*» PCT nazioarteko patentea, jada eskatua, Bilbo-Basurtuko ESlekin, Barrualde Galdakaoko ESlekin eta Arabako ESlekin elkarlanean garatua, Euskal Biobankuarekin eta EAEko teknologia-zentro batekin batera).

Horrez gain, sei software garapen ditu, horietako bi Ospitaleko Gerentziatik zuzenduak («*Aginte Taula Ekonomiko Sanitarioa*» softwarea Espainiako enpresa bati lizentziatua komertzialki ustia dezan eta «*Serious Game Check List Kirurgikoa*» EAEko enpresa bati lizentziatua komertzialki ustia dezan), beste software bat Erizaintzatik zuzendua («*Diabeteserako APPSa*» app-ak deskargatzeko atarietan eskuragarri) eta azkeneko hirurak Ikerketa Unitatean garatutakoak («*Katarata ebakuntzarako softwarea*», «*ADIEPOC*» eta «*Aldaka-belaunean esku hartzeko algoritmoa*» azkeneko hau Bilbo-Basurtuko ESko Ikerketa Unitatearekin elkarlanean. Hiru garapenek baimen-lizentzia daukate sinatuta, Euskadiko Osasun Sistematik kanpoko osasun-erakundeek erabili ahal izan ditzaten).

Osakidetzako I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biocruces-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2016an 14 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 3,4.

Arabako ESla

Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 7,38 garatzen du, eta osasun-sareko kanpo-finantziazio guztiaren % 6,15 lortzen du (saiaakuntza klinikoak kenduta). 38 ikertzaile nagusi ditu, eta 2,7 milioi euroko balioa duten 62 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Estatuko Administrazio Orokorraren ekarpena orain abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 47,06 da. Euskal Administrazio Publikoaren finantzaketa % 43,32koa da, eta erakunde pribatuena % 9,04koa.

2016an zehar, 52 azterlan kliniko berri jarri dira abian; hau da, Osakidetzako azterlan berri guztien % 18. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera, azterlan gehien egiten dituzten 6 zerbitzuak –azterlan guztien % 54– hauek dira: alergologia % 12, kardiologia % 12, pneumologia % 8, neurologia % 8, pediatria % 8 eta endokrinologia % 8. Analisia azterlan mota kontuan hartuta egiten badugu, % 37 sendagaiekin egindako saiaakuntza klinikoak dira, % 50 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak, % 12 osasun-produktuekin egindako azterlanak eta % 2 ikerketa-proiektuak.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software-garapenak. Ondorengo zerbitzu hauetatik datozen lau patente-familia aktibo ditu: Loaren Unitatea («*Lo egitean ahoz gorako etzanera ekiditeko gailua*», nazioarteko babes handiko patentea; 2015ean lortu zituen 2017an merkaturatzeko baimenak), Osasun Mentalerako Ikerketa Unitatea («*Eragile antipsikotikoen bidezko tratamenduaren erantzuna aurreikusteko kit-a*», eskabidean dagoen patentea, merkataritzan ustiatzeko lizentziadun posibleekin negoziatzeko/lizentziadunak bilatzeko

prozesuan), Medikuntza Nuklear eta Erradiofisikoaren Zerbitzua («*Biopsiarako kit-a*» eskabidean dagoen patentea) eta Anatomia Patologikoaren Zerbitzua («*Irudi histologikoen analisisa*», PCT nazioarteko patentea, jada eskatua, Bilbo-Basurtuko ESIrekin, Barrualde Galdakaoko ESIrekin eta Arabako ESIrekin elkarlanean garatua, Euskal Biobankuarekin eta EAEko teknologia-zentro batekin batera).

Bestalde, bi software garapen ditu, Ikerketa Unitatearen ekimenez: («*SMSalud*» softwarea, zeina 2013an erregistratu zen marka gisa, eta «*AKTIdiet*» softwarea, zeinaren marka erregistratzeko eskabidea 2016an egin zen. Bi garapenak EAEko enpresa bati lizentziatuak daude ustiapen komertziala egin dezan)

Osakidetza I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biocruces-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2016an 25 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 6,1.

Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa

Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 0,95 garatzen du, eta osasun-sareko kanpo-finantziazio guztiaren % 1,47 lortzen du (saiakuntza klinikoak kenduta). 3 ikertzaile nagusi ditu, eta 668.000 euroko balioa duten 8 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Estatuko Administrazio Orokorren ekarpena orain abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 34,64 da. Euskal Administrazio Publikoaren finantzaketa % 58,02koa da, eta erakunde pribatuena % 7,34koa.

Osakidetza I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biocruces-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2016an 7 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 1,7.

Osakidetza Zuzendaritza Nagusia

Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 1,07 garatzen du, eta osasun-sareko kanpo-finantziazio guztiaren % 3,7 lortzen du (saiakuntza klinikoak kenduta). 6 ikertzaile nagusi ditu, eta 1,6 milioi euroko balioa duten 9 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Finantzaketaren jatorriari dagokionez, nabarmentzekoa da atzerriko finantzaketa, orain aktibo dauden proiektu eta eskabideen % 89,45 baita. Ondoren datoz Euskal Administrazio Publikoa, % 6,78, eta Estatuko Administrazio Orokorra, % 3,77.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software-garapenak. Hiru software-garapen ditu. Horietako bi Osakidetza Sistema Informatikoen Zuzendariordetzari dagozkio («*Estazio kliniko*» softwarea eta «*Naia Health Care*» softwarea. Bi software garapenak EAEko bi enpresari lizentziatu zaizkie komertzialki ustia ditzaten). Hirugarren garapena Etengabeko Prestakuntzako Unitateari dagokio («*Zu eta kronikotasuna*» prestakuntza-programa, zeina Espainiako enpresa bati lizentziatu zaion, komertzialki ustia dezan).

Osakidetza I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biocruces-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2016an 3 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 0,7.

Berrikuntza

Berrikuntza-proiektuak eta gaikako eremuak

BOTTOM - UP 2016	
Integrazioa	35
Komunitarioa	7
Osabide Globala	1
Paziente aktiboa	5
Prebentzioa eta sustapena	17
Rolak	5
Soziosanitarioa	8
Sendagaien erabilera	9
Segurtasuna	2
Beste batzuk	1
Guztira	90

Berrikuntza antolakuntzan eta kudeaketan

- Osasun-arloko Berrikuntza Plataforma (PINNSA): Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak sustatutako ekimena, Carlos III.a Osasun Institutuarekin eta Autonomia Erkidegoekin elkarlanean. Helburua osasun-zerbitzuen elkarlana sustatzea eta esperientziak partekatzea da.
- HOBE+: berrikuntza-foroa Osakidetza berrantolakuntzaren barruan errolda eta ideiak sortzeko eta zehazteko. Antolakuntza-aldaketa, produktu edo zerbitzu modura hauteman diren proposamenak gauzatzea du xede.
- Berrikuntzako Ekintza Plana: berrikuntza kudeaketa hobetzea prozesu erkide batzuk eta partekatutako tresna bat ezartzearen bitartez; horrela, berrikuntza-jardueren ezaugarriak errazteaz gainera, mota horretako jardueren buruzko erabakiak hartzea eta planteamendu estrategikoak egitea ahalbidetu nahi da.
- ITEMAS plataformaren «Berrikuntzarako Laguntza Unitateen Egituraketa» lantaldea: berrikuntza-unitateak (BU) sortzeko oinarriak definitzea, eta horiek egiaztatzeko eta sortzeko gida bat eratzea. Era berean, ITEMASeko kideen BUak akreditatzea bilatzen du.
- Bultzada bat ematea herritarrek osasun-gaietan parte har dezaten Euskadiko Osasun Sistema Publikoan (EOSP): Osasun Sailak, Osakidetza eta BIOEFek garatutako ekimena da. Interes talde anitzetatik datozen pertsonen osatutako lantaldean oinarritutako dinamika jarraitzen dio. Euskadiko Osasun Sistema Publikoan herritarren parte-hartzea sustatzeko Planaren diseinua (47 pertsona, 5 lantalde) eta horren inplementaziorako, jarraipenerako eta hedapenerako proposamena. Lan horren emaitza izan dira bi dokumentu nagusi hauek:
 - «Euskadiko Osasun Sistema Publikoan herritarren parte-hartzea sustatzeko Plana. Hausnarketa estrategikoak eta jarduketako illoak» eta
 - «Osasun arloan herritarren parte-hartzea sustatzeko Osakidetza erakundeentzako gida».
- Elkar Ulertzeko Memorandumak Europako beste herrialde eta eskualde batzuekin: Memorandumen jarraipena (gaur egun Ipar Irlanda, Eskozia eta Akitania) egiteko Idazkaritza Teknikoa. Horien barnean sartzen dira, besteak beste, finantzaketa europarrerako deialdien aurkezpene eta ezaugarriak trukatzeko

ikerketa-bisiten antolakuntza, webinar-ak, etab.

- IntegraSarea: Osakidetzak, Osasun Sailak, BIOEFek eta Innobasquek garatutako proiektua Osakidetzan integrazioaren bidetik aurrera egiteko. Lankidetzaren sare bat da, eta bertan 18 zerbitzu-erakundeetako 90 profesionalak baino gehiagok hartzen dute parte bost arlo edo lan eremutan-oinarrituta. Urteko txostena argitaratzea eta hedatzea. Lantaldeen dinamizazioa, zerbitzu-erakundeek eskatuta, Lean eta DT metodologiaren bitartez.
- Ebaluazio-erremintak integrazioan: IEMAC, D'Amour, IEXPAC. Erreminten diseinua, hedapena eta horiek ZEetan inplementatzeko elkarlana.
 - IEMAC 75 (makro): ESlentzako laguntza metodologikoa, burututako 24 ebaluazio, banakako txostenaren bidalketa, hedapena nazioko zein nazioarteko kongresuetan.
 - D'Amour-en galdetegia: erremintaren migrazioa Osakidetzako Sletara, Osakidetzako Urteko Txosten Globala, ZE bakoitzaren Banakako Txostena, hedapena Espainiako zein nazioarteko kongresuetan.
 - IEXPAC: erremintaren baliozkotzea, IEXPACen telefono-bertsioaren baliozkotzea, erremintaren hedapena ZEetan eta PKn txertatze posiblea
 - IEMAC 36 (meso): erremintaren baliozkotzea, IEMAC 36ren erabilera PKren ebaluazioetan, erremintaren hedapena ZEetan.
- Erizaintzari buruzko gogoeta estrategikoa: Osasun Sailaren eta BIOEFen proiektua, Osakidetzako erizainen lantalde bat sortu eta erizaintzak osasun-sisteman jokatzeko duen rolaz eztabaidatzeko, bereziki lehen mailako arretan. Proiektu honetan sareko 15 erizainek hartu zuten parte.
- Osakidetzako Osasun Eskolarentzako laguntza eta aholkularitza
 - Pazientea ahalduztzeko ekimenen egituraketa
 - Kronikoen Sarearen egokitzapena eta pazientei zein herritarrei orokorrean zuzendutako web plataforma bat garatzeko bideragarritasunari buruzko ikerketa (Eskoziako «Living it up» ekimena eredutzat hartuta)
 - Asistentzia-bideak (diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa)
- Laguntza eta aholkularitza Osasun-sistemaren (EOSP) eta Hirugarren sektorearen erlazioari dagokionez:
 - C hepatitisaren Euskadiko Planaren Gizarte eta Herritarren Partaidetzarako Batzordea
 - Hirugarren Sektoreko Batzordea
 - Euskadiko Fibrosi Kistikoa
 - Talidomidaren Euskadiko Biktimen Elkarte, etab.
- Kudeaketa aurreratua: Osasunerako talde aurreratuko kideak, Osakidetzako Zerbitzu Erakundearen elkarlanerako eta sostengurako.
- Behaketa- eta prospektiba-eragilea. «Osasuneko prospektiba 2020» (2016an hasitakoa). Osasun-antolaketaren esparruko etorkizuneko ikuspegiak aztertzen dituen dokumentua

Berrikuntza koordinazio soziosanitarioan

- InterRAI-CA balorazio soziosanitarioako erremintaren hedapenarekin jarraitzea: 140 profesionaletik gora daude inplikaturik. 2016ko urtarilaren eta otsailaren bitartean 6 prestakuntza-saio gauzatu ziren RAI erabiltzaile berriekin hiru lurralde historikoetan. Irailean eta urrian zehar jarraipen- eta ebaluazio-saioak burutu ziren, eta 2016ko abenduan, balioespenen eta emaitzen amaiera-txostena egin zen. InterRAI-CAren ezarketaren definizioa Osabide Globalen eta Gizarte.net-en (etorkizuneko historia soziosanitarioa): Osabide Global eta Gizarte.net informazio-sistematan balorazio soziosanitarioako tresna (InterRAI-CA) txertatzearen eraginkortasuna aztertzea. Ordezko aukeren azterketa InterRAI-CA tresna eskala handian ezartzeko aukerei buruz edota Osakidetzan ad hoc garatutako erreminta baten barneko garapena lantzearen inguruan.
- Osabide Globalaren hedapena egoitzetan: Osabide Globalaren ezarketa 30 egoitzatan eta hitzarmena prestatzea Euskal Sarearen konektibitatea lortze aldera.

- Plan operatibo soziosanitarioak: hiru plan operatibo (LH bakoitzeko bat); horretarako, lurraldeko koordinatzaile soziosanitarioen lantaldearen antolakuntza eta dinamizazioa eta euskarri teknikoa eragiketa planak lantzeko.
- Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileentzako etxeko laguntza-plana: proiektuaren diseinuan kolaborazioa eta EAEko zaintzaileei buruzko ikerketarako laguntza.
- Txosten soziosanitarioa, Arreta Soziosanitarioako Euskal Kontseiluaren baitan egin. Txostenak 2016an garatutako jardura laburbiltzen du.
- Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren II. Edo Estrategikoen ebaluazio Txostena 2013 – 2016; estrategia soziosanitarioari amaiera eman zitzaionean egin zen, eta estrategia-ildoen baitako ekintzak zenbateraino lortu diren errepasatzen eta aztertzen du txostenak.
- Web ataria eta Baliabide Soziosanitarioen Mapa: Atarian argitaratutako eduki soziosanitarioen definizioa, abian jartzea eta lanketa.
- Protokolo soziosanitarioen erlazioa: galdetegi baten definizioa, datuen bilketa eta analisi kuantitatiboa eta EAEko protokolo eta batzorde soziosanitarioen hedapenari buruzko txostenaren lanketa.
- Programa-kontratuari egindako ekarpenak ikuspegi soziosanitariotik: elkarlanean egindako lan-saioa eta ikuspegi soziosanitarioko ekarpenak 2016ko programa kontratuari. Iradokitako ekarpenen berrikusketa eta egokitzapena.

Nazioartea

- Nazioarteko bi proiektu:
 - «Report on care pathways approaches for multimorbid chronic patients»
 - Joint Action Chrodis-en hainbat ekintzetan parte-hartzea, Osakidetzarekin batera, gaixotasun kronikoen eta zahartze osasuntsuaren sustapenaren inguruan.

Kanpoko eragileekiko lankidetzak

- Leading Health Systems Network (LHSN) eta Imperial College of London: Euskadiko pazientearen txostena-segurtasuneko agente taula, pazientearen segurtasunari buruzko alderatze-txostena herrialde kideen artean. Gorabeheren albiste emateko sistemaren txosten-galdeketa. Ezagutza trukatzeko mintegi birtualetan izandako parte-hartzea.
- NHSko AQUA (Advancing quality Alliance)
- IFIC (International Foundation of Integrated care)
 - Zeelanda Berriko eta NHSko profesionalen Study-tour-a Euskadira, 2016ko maiatzean, IntegraSarea proiektuan egindako kolaborazioaren harira.
 - Special Interest Group-en (SIG) kide sortzaileak Values of Integrated Care-n eta bi argitalpen IFICen Journal-en (2015-16)
 - 4 komunikazioaren aurkezpena ICIC Bartzelonan proiektu estrategikoen inguruan (soziosanitarioa, parte-hartzea eta integrazioa), horietako bat sarirako hautagai izan da.

Zabalkundea eta gaikuntza

- Masterra Osasun Kudeaketan 2015-2016.
 - Praktiketako bi ikasleren tutoretza
- Zabalkunderako eta gaikuntzarako ekintzak garapen soziosanitarioaren inguruan:
 - Parte-hartzaileentzako informazio-jardunaldiak InterRAI-CAREN ezarpenaren inguruan
 - InterRAI-CAREN erabiltzaileentzako prestakuntza-jardunaldiak


- Zabalkunderako eta gaikuntzarako ekintzak hiritarren parte-hartzearen inguruan:
 - Sentsibilizazio orokorra herritarrek osasunean izan beharreko parte-hartzeari buruz (ekimen guztian zehar): topaketak Osakidetza ZEEkin eta hainbat jardunalditan parte hartzea:
 - Kalitaterako Asistentzialeko Euskal Batzordearen Jarduera-AKEB (2016/11/10)
 - Bilbo-Basurtuko ESIko zientziaren eta berrikuntzaren III. Jardunaldia (2016/11/17)
 - Diagnostikoa eta ekintza-planaren proposamena, 2016an inplementatzeko.
 - Osasun-aktaren Artikulua
- Hedapenerako eta gaikuntzarako ekintzak integrazioaren eta kronikotasunaren inguruan:
 - Arreta Integratuko Jardunbide Egokien II. Jardunaldian parte hartzea.
 - Paziente Kronikoaren Osasun Atentziorako VIII. Biltzar Nazionalaren komunikazioen aurkezpena (Madril, 2016ko apirilaren 6-7an)
 - Bidasoko ESIko integrazioari buruzko artikulua argitalpena, International Journal for Integrated Care
 - Eraginkortasun teknikoaren ebaluazioari buruzko artikulua baten argitalpena Gaceta Sanitaria aldizkarian
 - IntegraSarea Komunikazio Plana eta newsletter-a (Osakidetza eta Zuzendaritza-taldeetako 35.000 profesionali baino gehiagori bidalia).
 - Komunikazioen aurkezpena ICIC 2016ri (16th International Conference on Integrated Care. Bartzelona, 2016ko maiatzaren 23-25)
- EITB Maratoia 2016 “Enfermedades Neurodegenerativas”: coordinación e interlocución entre sistema sanitario y EITB.

Jabetza intelektualeko erregistro aktiboak


2008ko urriaren 1ean BIOEFen eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren artean izenpetutako akordioaren indarrez, BIOEF fundazioak kudeatzen ditu Osakidetza garatutako ikerketa eta berrikuntza jardueretatik eratorritako emaitzen jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen babesa eta transferentzia.

2016ko abenduaren 31n, BIOEFek kudeatutako Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren (EOSP) zorro teknologikoak 11 garapen teknologiko zituen (8 patente-familia aktibo eta sekretu industrial gisa babestutako 3 asmakuntza – know how) eta beste 15 garapen IKTen osasun-eremuan (horietatik 3 marka-erregistro eskatu dira) eta 12 garapen jabetza intelektualeko eskubideen babesean.

Ondorengo grafikoetan garapenen laburpen bat erakusten da, duten tipologiaren arabera eta jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak babesteko estrategiaren arabera:



Tipologiaren arabera garapenak



Babes-estrategiaren arabera garapenak

Ondoren xehekiago sailkatuta agertzen dira garapenak, banaka izendatuta eta alboan garapen mota, helburua, zein zentro eta zerbitzutakoa den eta berorren egoera ustiapen komertzialari dagokionez:

GARAPENA	GARAPEN MOTA	HELBURUA	EOSP ZENTROA / ZERBITZUA	MERKATARITZA USTIAKETA
Biopsiarako Kit-a	Materialak eta gailuak	Diagnostikoa - Biopsiak egiteko gailua	Arabako ESla - Bioaraba/ Medikuntza Nuklearreko Zerbitzua eta Erradiofisikako Zerbitzua	ESKAINITZA TEKNOLOGIKOA
Adrenoleukodistrofiaren diagnostikoa eta tratamendua	Sendagaia - Farmazia	Adrenoleukodistrofiako tratamendua	Donostialdeko ESI - Biodonostia / Neurozientzietako Ikerketa Unitatea	ESKAINITZA TEKNOLOGIKOA
Larruazaleko melanomaren diagnostiko- eta pronostiko-metodoa	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Melanoma diagnostikoa/ pronostikoa	Ezkerralde-Enkarterri- Gurutzetako ESla - Biocruces eta Bilbo-Basurtuko ESla / Dermatologia Zerbitzuak	ESKAINITZA TEKNOLOGIKOA
Eragile antipsikotikoen erantzuna aurreikusteko kit-a	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Diagnostikoa/ antipsikotikoen tratamenduaren pronostikoa	Arabako ESla - Bioaraba/Osasun Mentaleko Ikerketa Unitatea	ESKAINITZA TEKNOLOGIKOA
Zelularteko kaltzioa erregulatze konposatu berriak	Sendagaia - Farmazia	Kaltzioaren desorekari lotutako gaixotasunen tratamendua	Donostialdeko ESla - Biodonostia / Neurozientzietako Ikerketa Unitatea	ESKAINITZA TEKNOLOGIKOA
Mutazioak hautemateko gailua	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Mutazioen diagnostikoa/ pronostikoa	Donostialdeko ESla - Biodonostia / Onkologia Ikerketa	ESKAINITZA TEKNOLOGIKOA
Irudi histologikoen analisisa	Irudia	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Hainbat zentro, BIOEF (Biobankua)	
Triajerako multimedia ikastaroa	IKT osasuna	Trebakuntza larrialdien sailkapenerako	Osakidetza Larrialdiak	http://virtualwaregroup.com/es/productos/virtualtriage
Apnea ekiditeko gailua	Materialak eta gailuak	Apnearen prebentzioa	Arabako ESla - Bioaraba/ Loaren Unitatea	http://www.sibelmed.com/somnibel/
Estazio klinikoa (softwarea)	IKT osasuna	Osasunaren kudeaketa	Osakidetza Zuzendaritza Nagusia/ Zuzendariordetza Informatikoa	http://www.ibermatica.com/sala-de-prensa/noticias/osakidetza-e-ibermatica-premiadas-por-su-proyecto-osabide-global

GARAPENA	GARAPEN MOTA	HELBURUA	EOSP ZENTROA / ZERBITZUA	MERKATARITZA USTIAKETA
Aginte-taula ekonomiko sanitarioa (Softwarea)	IKT osasuna	Osasunaren kudeaketa	Barrualde-Galdakaoko ESla/ Kudeaketa	http://www.bioef.org/Noticias/tbid/359/mid/991newsid991/1245/Default.aspx
Agindu bizimodu osungarria (Softwarea)	IKT osasuna	Osasunaren autozainketa	Ezkerralde-Enkarteri-Gurutzetako ESla - Biocruces/UIPAPB	http://oiker.bioef.org/Ofertadeservicios/PatentesDerechos-deautor/Noticias/tabid/263/mid/808/newsid808/1203/Default.aspx
Hiperamonemiari buruzko gida informatizatua	IKT osasuna	Praktika klinikoko gidak	Ezkerralde-Enkarteri-Gurutzetako ESla - Biocruces/ Metabolismoaren unitatea	www.e-guidesmed.ehu.es
Haurren asmaren hasierako tratamendurako gida informatizatua	IKT osasuna	Praktika klinikoko gidak	Bilbo-Basurtuko ESla / Pediatria Zerbitzua	www.e-guidesmed.ehu.es
Haurren asmaren hurrenez hurrengo tratamendurako gida informatizatua	IKT osasuna	Praktika klinikoko gidak	Bilbo-Basurtuko ESla / Pediatria Zerbitzua	www.e-guidesmed.ehu.es
Pneumokokoaren kit serotipatua	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Pneumokokoaren diagnostikoa/ pronostikoa	Donostialdeko ESla – Biodonostia/ Mikrobiologiako Zerbitzua	http://www.operon.es/products/pneumostrip
«Zu eta kronikotasuna» prestakuntza-programa	IKT osasuna	Kronikotasunari ekiteko prestakuntza	Osakidetza Zuzendaritza Nagusia/ Etengabeko Prestakuntza	https://www.tak.es/noticias/tu-y-la-cronicidad
SMSALUD APP-AK	IKT osasuna	Prebentzioa-Tabakoa uztea	Arabako ESla - Bioaraba/Arabako Ikerketa Unitatea	http://www.smsalud.net/
Distrofia miotonikoa diagnostikatzeko kit-a	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Distrofia miotonikoaren diagnostikoa/ pronostikoa	Ezkerralde-Enkarteri-Gurutzetako ESla - Biocruces/Genetika Zerbitzua	https://www.imegen.es/hospitales-y-especialistas/kits-de-analisis/
Ataxiak diagnostikatzeko kit-a	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Ataxien diagnostikoa/ pronostikoa	Ezkerralde-Enkarteri-Gurutzetako ESla - Biocruces/Genetika Zerbitzua	https://www.imegen.es/hospitales-y-especialistas/kits-de-analisis/
Serious Game check list kirurgikoa	IKT osasuna	Check list kirurgikoaren profesionalen prestakuntza	Barrualde-Galdakaoko ESla/Kudeaketa	http://virtualwaregroup.com/es/portfolio/surgical-checklist-formacion-personal-enfermeria

GARAPENA	GARAPEN MOTA	HELBURUA	EOSP ZENTROA / ZERBITZUA	MERKATARITZA USTIAKETA
Diabetes Apps	IKT osasuna	Osasunaren autozainketa - diabetes	Barrualde-Galdakaoko ESla/ Erizaintza	https://itunes.apple.com/es/app/onhealth-diabetes/id608180719?mt=8
Naia Health Care (Softwarea)	IKT osasuna	Osasunaren kudeaketa	Osakidetzako Informatika Zuzendariordetza	http://www.bilbomatica.es/es/content/naia-health-care
Kataraten esku-hartzerako softwarea	IKT osasuna	Praktika klinikoko gidak	Barrualde-Galdakaoko ESla/Ikerkuntzako Unitatea	http://www.ac-tasanitaria.com/el-hospital-trillium-health-partners-utilizara-un-software-creado-por-investigadores-de-osakidetza/
Aktidiet App-ak	IKT osasuna	Osasunaren autozainketa	AOU – Bioaraba/ Arabako Ikerketa Unitatea	www.aktidiet.bioaraba.org/
Aldaka-belaunean esku hartzeko algoritmoa	IKT osasuna	Praktika klinikoko gidak	Barrualde-Galdakaoko ESla/Bilbo-Basurtuko ESla	
Adiepec	IKT osasuna	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Barrualde-Galdakaoko ESla/Ikerkuntzako Unitatea	


Innosasun Programa

Osasun Sailak eskaintzen duen tresna bat da, enpresen berrikuntza-sistemari laguntza emateko, Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren baitan (ZTBP). Laguntza-mekanismo honen bidez, osasun-sistemaren eta enpresa-sektorearen arteko elkarrekintza artikulatzen da (baita erlazionatutako eragileena ere). Hala, erantzuna ematen zaie azken horien beharrei I+G+b gaiaren inguruan. Innosasunen jarduerak osasun-sistemaren elkarlana sustatzen du osasun-sektoreko enpresen kide gisa, produktu berritzaileen garapenean, baliozkotzean eta merkaturatzean.

INNOSASUN programak hirugarrenen beharrezanean erantzuten die, batez ere enpresei eta erlazionatutako EAEko beste agente batzuei, osasun-sistemaren gaitasun, know how eta lankidetzako sare zabalarari esker ad hoc sostengua emanez; izan ere, proben ingurune erreal edo living lab modura ez ezik, berrikuntza irekiko ekosistema gisa ere jardun baitezake. Programak kontaktu eta beharrianak bideratzeko kudeaketa egiten du (BIOEFek koordinatutako leihatila bakar baten bidez, baldin eta eskatzaileak kanalak jada ezarrita ez baditu edo koordinazio globala behar badu), honako gai hauekin lotuta:

- Aholkularitza eta orientazio klinikoa
- Frogapeneko azterlan klinikoak
- Lagin biologikoen kudeaketa I+G+b proiektuetarako (Biobankua)
- Datuen hornidura
- Beharrianak beste sostengu-mekanismo batzuetara bideratzea EOSPren barruan.

INNOSASUNen jarduerari buruzko datuak (1. grafikoa)



2016An, INNOSASUNek 87 laguntza-eskaera jaso ditu guztira, 57 erakundetatik. Horietako 69 eskaera EAEko 42 erakundek egindakoak dira: % 50 ETEak, % 21,43 ETEak ez diren enpresak, % 11,9 Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarea (ZTES) eta % 16,67 enpresa-sektoreko beste eragile batzuk, besteak beste, enpresa-sustapenerako cluster-ak edo agentziak. Zenbaketa horretan, ez dira kontuan hartu lagin biologikoak kudeatzeko eta hornitzeko eskaerak; izan ere, aparteko atal batean agertzen dira (Biobankuko datuak).

87 laguntza-eskaerak horrela banatzen dira ekintzaren arabera: 31 aholkularitza –24 EAEkoak–; 22 diseinu eta lanketa, enpresa-sektoreak garatutako teknologiarri buruzko ikerketa klinikoaren esparruan –18 EAEkoak–; 3 datuen hornidura –2 EAEkoak–; 26 kanalizazio osasun-sistemaren baitako sailletara, erakundeetara edo laguntza-mekanismoetara –20 EAEkoak eta 5 beste eragile batzuekin elkarlanean egindako ekintzei dagozkienak (cluster-ak, bioinkubagailuak, enpresa-sustapenerako agentziak), guztiak ere EAEkoak–.

INNOSASUNen jarduera ahalbidetzeko, interes bereziko taldeak (IBT) sortu dira. Horietan osasun-arloko profesionalek eta Osakidetzako hainbat Zerbitzu Erakundetako ikertzaileek parte hartzen dute, patologia, ikerketa-ildo edo gai berdinean interesa dutenak.

IBTak ad hoc sortzen dira hirugarren batek aurkeztutako behar zehatz bati erantzuteko. Era beren, irekiak dira; interesa duten osasun-arloko profesional berriak sar daitezke une oro.

IBTek osasun-sistemaren eta enpresa-esparruko erakundeen arteko elkarlana ahalbidetzen dute osasunaren arlo ezberdinetan. Horrez gain, erreminta oso erabilgarria dira etorkizunean sor daitezkeen elkarlan-beharrei erantzuteko talde bakoitzaren eremu espezifikoan.

Innosasunek 9 IBTrekin lan egin du 2016an, esparru hauetan:

- Gaixotasun erreumatologikoak
- Digestio-aparatua/hepatologia
- Alergologia/otorrinolaringologia
- Errehabilitazioa
- Fabrikazio aditiboa
- Onkologia
- Aurpegi-masailetak kirurgia
- Dermatologia
- Ginekologia

IBT guztiak zentro anitzekoak dira, hau da, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako hainbat profesionalek parte hartzen dute, eta irekiak dira; IBTetan parte-hartzaile berriak sar daitezke une oro. Era berean, IBT berriak sortzea espero da, hirugarrenek hainbat patologiatan dituzten beharrei erantzuteko. 1. taulan IBTen baitako zerbitzuak zehazten dira, eta Osakidetzako zer zerbitzu-erakundetakoak diren adierazten da.

1. TAULA. IBTetan parte hartzen duten zerbitzuak

Osakidetzako zerbitzu-erakundeak	IBT 1: Errehabilitazioa	IBT 2: Gaixotasun erreumatologikoak	IBT 3: Fabrikazio aditiboa	IBT 4: Digestio-aparatua/hepatologia	IBT 5: Alergologia/Otorrinolaringologia	IBT 6: Onkologia
Donostialdeko ESla	Errehabilitazioa	Erreumatologia	Traumatologia Otorrinolaringologia Aurpegi-masailetak kirurgia Neurokirurgia	Digestio-aparatua	Otorrinolaringologia	Onkologia medikoa
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla	Errehabilitazioa		Aurpegi-masailetak kirurgia	Digestio-aparatua		Onkologia medikoa
Arabako ESla	Errehabilitazioa	Erreumatologia		Digestio-aparatua		Onkologia medikoa
Bilbo-Basurtuko ESla	Errehabilitazioa	Erreumatologia	Traumatologia	Digestio-aparatua	Alergologia Otorrinolaringologia	Onkologia medikoa Onkologia Erradioterapikoa
Debabarreneko ESla	Errehabilitazioa					
Barrualde-Galdakaoko ESla	Errehabilitazioa					Onkologia medikoa
Barakaldo-Sestaoko ESla	Errehabilitazioa			Digestio-aparatua		
Gorlizko Ospitalea	Errehabilitazioa		Errehabilitazioa Zainketa aringarriak			
Parte-hartzaileen kopurua	16	8	13	12	4	25

Enpresa-sektorearekin elkarlanean, urtean zehar aholkularitza eta azterlan klinikoaren inguruan gauzatutako jarduerari buruzko txosten xehatua:

Innosasunaren jarduerak nagusien artean, hauek dira enpresa-sektoreak gehien eskatzen eta balioesten dituenak: alde batetik, produktu/zerbitzu berrien garapenean laguntzeko eta bideratzeko aholkularitzak, eta bestetik, Osakidetza zentroetako ad hoc azterlan klinikoak, aipatutako produktu edo zerbitzuen efikazia- eraginkortasuna-efizientzia edo kostua, eraginkortasuna edo eragin ekonomikoa frogatzeko.

Aholkularitzetako datuak

Innosasunek, 2016an, 31 aholkularitza kudeatu ditu guztira (24 EAEko erakundeentzat); horietan, osasunaren arloko 54 profesionalak parte hartu dute, eta enpresekin bildu dira produktu berrien erabilerari eta egun garatzen ari diren produktuen hobekuntzari buruzko iritzia berri emateko. Honako hauek baloratu dira: digestio- eta ginekologia-gaixotasunentzako tratamendu berriak; dermatologiari, erreumatologiari, errehabilitazioari eta psikiatriari zuzendutako osasun-proiektuak, eta IKT soluzioak zein 3D-inprimagailuetarako edo fabrikazio aditiborako aplikazioak.

Aholkularitza-bileren ondorioz, konfiantzazko taldeak sortzen dira osasun-sektorearen eta enpresa-sektorearen artean, aurrerago ikerketa klinikoari eta berrikuntzari lotutako proiektuetan elkarlanean aritzeko.

Azterlan klinikoaren datuak

2016an, azterlan klinikoak burutzeko 22 eskaera jaso dira produktu berrien efikazia eta eraginkortasuna frogatzeko eta erakusteko. Hala, urte horretan 11 azterlan egin dira, horietako 8 EAEko erakundeentzat eta 3 EAE kanpokoentzat.


Azterketa kliniko aktibo horietan Osakidetza zentroetako 8 ESIk hartu dute parte: Bilbo-Basurtuko ESIa, Barakaldo-Sestaoko ESIa, Uribeko ESIa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIa, Goierri-Urola Garaiko ESIa, Bidasoko ESIa, Arabako ESIa eta Donostialdeko ESIa; gainera, 8 ospitale nagusik eta Lehen Mailako Arretako 12 osasun-zentrok ere hartu dute parte. Halaber, osasungintzako 147 profesionalak hartu dute parte azterlan horietan, tartean mediku espezialistek, lehen mailako arretako medikuek eta erizainek.

Azterketa klinikoetan parte hartu duten Osakidetza zentroetako zerbitzuak ondorengo espezialitate hauetakoak dira: digestio-aparatua, erreumatologia, errehabilitazioa, endokrinologia, kardiologia eta nefrologia; baita Biocruces Institutuko – Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko eta Bilbo-Basurtuko ESIko Ikerketa Unitateek ere.


Honako hauek dira ebaluatutako produktuak: % 36,4 sistema berriak, bioteknologiako produktuak eta diagnostiko molekularra; % 9 material eta gailu berriak; % 27,3 sendagaiak eta % 27,3 IKT osasuneko sistemak (2. grafikoa).

2016ko azterlan kliniko aktiboen finantzaketaren % 54,5 jatorri pribatukoa da, eta gainontzeko % 45,5 lehiaketa-deialdien bidez lortutako funts publikoetatik dator (3. grafikoa). Lehiaketa-jatorria duen finantzaketaren % 60k Estatuko Administrazio Orokorrean (EAO) du jatorria, eta % 40k Eusko Jaurlaritzaren Administrazioan (EJA).

2. grafikoa. Ebaluatutako produktuen tipologia



3. grafikoa. Azterlan klinikoaren finantzaketaren jatorria




Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia 2020


Ikerketa eta berrikuntzako «Plan Zuzendaria»

Euskal osasun-sistema publikoaren lehenbiziko osasun arloko ikerketa- eta berrikuntza-estrategia da.

Osasun Sailaren Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategiaren egitekoa eta ikuspegia:



Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia 2020 **lau ardatzen** inguruan egituratzen da (Eragina, Integrazioa, Pertsonak eta Baliabideak); ardatz horien xedea **lau helburu estrategiko** edo nagusi betetzea da.



Hedapen korporatiboa

Argitalpenak

- OSAKIDETZAKO 2015eko jarduera-memoria.
- Alfa-1-antitripsinaren eskasia
- Esklerosi tuberosoa
- Hemoglobinuria
- I. motako Gaucher-en gaixotasuna
- Psikofarmakoak eta haurdunaldia
- Ijito-herriaren monitoreen eskuliburua
- IntegraSarea txostena

Congresuak eta jardunaldiak

- Gripearean kontrako txertoari buruzko saioa.
- Erizaintzako zaintza-jardunaldiak.
- Jardunbide egokiak Integrazioan.
- Erosketa publiko berritzailea.
- Minaren aurkako tratamendua.
- Osasun-eskolen kongresu nazionala.
- Euskara bultzatzen duten unitateei aitortza.
- Barne Erizaintza Egoiliarren jardunaldia.
- Pazientearen segurtasuna.

Intraneta / webgunea /s are sozialak

2016an guztira 381 berri argitaratu ziren Intranet Korporatiboan eta 290 kongresu eta jardunaldi iragarri ziren, erakundearen interesekoak zirenez. Gainera, atal garrantzitsuak berregituratu eta/edo sortu ziren Intranetean zein webgunean, eta 2016an 3.317 eduki ditu.

- Gardentasuna eta gobernu ona
- Organigramak
- IntegraSarea lankidetzeta-sarea
- Osasun-zentroak
- Erosketa publiko berritzailea
- Lan-osasuna
- Partaidetza
- Kolon-ondesteetako minbizia
- Tabakoa

Gainera, intranetak jarri dira abian hauetan: Gipuzkoako Osasun Mentalaren Sarea, Tolosaldea, Arabako Osasun Mentalaren Sarea, Bizkaiko, Arabako eta Debarbarrenako Osasun Mentalaren Sarea.

Ikus-entzunezkoak

1. Ikus-entzunezkoen ekoizpena

Bideoak egitea	76
DVD edukien sorkuntza eta egiletza	110
Bideo digitala editatzea, prozesatzea eta kodifikatzea	758
Multimedia aurkezpenen garapena	39
Legezko kopia eta bikoizketa	163
Material grafikoa diseinatzea eta lantzea	34
Irudiaren tratamendu eta konposizio digitala	1.964

2. Kntsultoretza

Komunikazio-arloko aholkularitza	36
Prestakuntza eta irakaskuntza	34
Laguntza teknikoa	123

Argitalpen bideografikoak

Eduki mediko eta sanitarioko 76 bideo egin dira, eta egonkor eutsi zaio balio erantsi handiko ikus-entzunezko edukien sorkuntza-bolumenari, 2015eko ekoizpenarekin alderatuta. Ekoizpenaren parterik handiena Bizkaiko zentroei dagokie, Gurutzeta eta Basurtuko unibertsitate ospitaleak nabarmentzen direlarik. Hona hemen egindako ikus-entzunezkoak gaika banakatuta:

Teknika kirurgikoa	41
Zauri txikiko kirurgia	20
Graduondoko irakaskuntza	6
Kudeaketa, marketina eta komunikazioa	4
Osasun-heziketa	3
Hezkuntza sanitarioa	2

Osasun Zientzietako Argitalpen Elektronikoen Funtseko ikus-entzunezko erregistro kopurua **1.748ra** heldu da.